



HEZKUNTZA INKLUSIORAKO

MATERIALEN GIDA:

ADIMEN ETA GARAPEN URRITASUNA

HAUR HEZKUNTZA



FEVAS

LAGUNTZEN DU:





HEZKUNTZA INKLUSIORAKO

MATERIALEN GIDA:

ADIMEN ETA GARAPEN URRITASUNA

HAUR HEZKUNTZA



FEVAS

LAGUNTZEN DU:



FEVASek (Adimen Urritasuna dutenen aldeko elkarten Euskal Federazioa) egindako gida.



aurki**bidea**

AURKEZPENA	6
SARRERA	11
HELBURUAK	15
MARKO TEORIKOA	17
Inklusiorako eskubidea	18
Adimen Urritasuna	22
Autismo Espektroaren Nahasketak	28
TUTORETZAK	31
INFORMAZIO OSAGARRIA	37
HAUR HEZKUNTZA, JARDUERAK	40
1) Posterra	42
2) Denak berdinak al gara?	44
3) Denok behar dugu laguntza	48
4) Diferentzia bizi	52
5) Desberdintasunak elkartu egiten gaituzte	54
BESTE ZENBAIT MATERIAL	57



*Gure ikasgeletan adimen eta garapen urritasuna duten ikasleak ego-
tea ezinbesteko pausoa izan zen inklusiorako bidean. Baina FEVAS-
ek, adimen eta garapen urritasuna duten seme-alaben familiak
elkartzen dituen elkartze mugimendu bezala, lanean jarraitzeko
ardura dauka gaur egun ere gizartean benetako inklusioa ezinezko bilakatzen
duten oztopoak kentzen joatea.*

*Lan zaila da hori, inolako zalantzarik gabe. Horregatik FEVASen lehentasunezko
ekintzetako bat hezkuntza da. Ondorioz lan talde bat eratu dugu, elkarteetako
ordezkariak eta hezkuntza alorreko espezialistek osatua, ez ditzagun ahaztu adi-
men eta garapen urritasuna duten 1.300 ikasle horiek; haurrek eta gazteek etor-
kizun hobea izango dute hezkuntza komunitatea eta familiak elkarlanean aritzen
bagara eta norabide berean jarduten badugu.*

*Asko hitz egiten da adimen urritasuna duten pertsonak hezkuntza sisteman sar-
tzearen garrantziari buruz, izan ere justiziazkoa da, eta beraientzat oso ona,
baina oso gutxitan planteatzen da gai hori benetako interesa duen zerbait bezala,
ikasle guztientzat onuragarria eta aberasgarria izango den zerbait bezala; hala
ere, uste dugu ikasle guztiek dutela adimen urritasuna ezagutzeko eskubidea.*

*Gida honekin adimen urritasunaren ezagutza eskolako erkidegora hurbildu nahi
dugu, eta, horretarako, hezkuntzako etapa bakoitzeko ikasleei egokitutako in-
formazio garrantzitsua, edukiak eta egokitutako jarduerak bildu ditugu. Kontua
da aniztasuna arazo gisa hartu beharrean, guztien ikasketa aberastuko duen
errealitate gisa hartzea da. Horrela, guztion artean, ikasketekin zuzenean erla-
zionatutako alderdiez gain, elkartasunean, tolerantzian, enpatian eta besteekiko,
desberdinekiko, errespetuan oinarritutako jarreraren eta balioen sustapenean oina-
rritutako kultura bultzatuko duen eskola lortu ahal izango dugu; sentsibilizatuko
duen eta adimen urritasuna duten pertsonen beste era batera begiratzen eraku-
tsiko duen eskola. Hori da gure helburua.*

*FEVASen badakigu, horrela egiaztatu ahal izan dugulako sarri askotan, irakasleak
direla gurekin egunero borrokan ari direnak inklusioa lortu ahal izateko. Horre-
gatik zuen ikasgeletan eta taldeetan gida hau erabiltzeko gonbidapena luzatzen
dizuegu. Guk, behar duzuen laguntza guztia emango dizuegu. Hor duzue.*

Juan Cid, FEVASeko presidentea

Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (FEVAS), Euskadiko Autonomia Erkidegoan adimen urritasuna duten pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten familien elkarteak biltzen ditu. 11 erakunde eratzten dute eta, ondorioz, alor honetako Euskadiko antolakuntza sare garrantzitsua da.

FEVASek zerbitzuak eskaintzen dizkie bere kide diren erakundeei, eta beraien jarduerak koordinatzen ditu, talde osoaren interesari dagozkien gaitan ekintzarako irizpideak bateratuz. Euskal Federazio honen helburu nagusietakoa gizartea sentsibilizatzea eta gizarte politiketan eragina izatea da.

ERAKUNDE ELKARTUAK:



FEVAS zifratan

Adimen urritasuna duten **9.100** pertsona
1.160 profesional **7.900** familia **800** bolondres
 Lan hastapeneko **2** zentro **3.000** erabiltzaile Aisia zerbitzuetan



Arreta Goiztiarreko **3** zentro Eguneko arretarako **37** zentro
 Hezkuntza bereziko **2** Ikastetxe **69** Egoitza unitate
3 Babes zerbitzu Kontzertaturiko **47** Hezkuntza Unitate

Aniztasuna ez da
ikusten gainditu
beharreko arazo gisa,
guztien ikasketari
laguntzeko baliabide
aberasgarri gisa
baizik

(Booth, Ainscow, Black-Hawkins, Vaughn eta Show)

SA-
rrera

Hezkuntza Inklusiorako
Hezkuntzako Materialak



Orain arte askotan esan da oso garrantzitsua dela urritasuna duten ikasleak beste guztien munduan aritzea, ikasgeletako bizitzako parte izan daitezen eta gizarte harremanak eta erabateko garapena indartuko duen hezkuntzako partaide izan daitezen... Ardura horiek, gehien bat, ikasgelan urritasuna duen ikasleren bat duten irakasleek izan dituzte. Hala ere, oso gutxitan egin da gai horri buruzko gogoeta urritasunik duen ikaslerik ez zegoen ikasgelatan.

Hori dela eta, Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (FEVAS) erabateko konpromisoa hartu du eskola inklusibo modeloaren garapenarekin. **Funtsezkoa da irakasleek konturatzeko zein garrantzitsua den aniztasuna, desberdintasuna eta urritasuna beraien eguneroko irakaskuntza jardunean sartzea.** Alor horretan aurre egin

ahal izateko, eman beharreko laguntza emango duten eta irakasleentzat erabilgarri izango diren materialak sortu ditugu, urritasunaren errealitatea barne izango duen hezkuntza sistemaren eraikuntzan aurrera egiten lagungarri izan daitezten.

“Desberdintasunean” hezteak ezagutzea eta onartzea da, eta inoiz ez ezkutatzea. Ezkutatzen bada baztertu egiten da.

Irakasleei, **jardunbide inklusiboak martxan jartzea erraztuko dieten gakoak eman nahi dizkiegu, adimen eta garapen urritasunari buruzko oinarritzko edukiak eskainiz. Halaber, hezkuntzako etapatan zehar,** ikasleak sentibilizatzen eta desberdintasunean eta urritasunaren ezagutzan, ulerpenean eta onarpenean hezten lagunduko duten hainbat baliabide aurkezten ditugu. Laburbilduz, balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko kontzientziaioa sustatuko duten oinarritzko ezagutzak eta ikasgelako proposamenak.

Beste alde batetik, ikusten dugu beharrezkoa dela hezkuntzako inklusioa ikasle guztiek urritasunaren inguruan ikasteko duten aukera gisa lantzea, horrela desberdinak diren pertsonetikiko errespetua eskuratzeko edo garatzeko. Ezin dugu ahaztu ikasleek “urritasunari buruz jakiteko” eskubidea dutela, eta irakasleen ardura dela kontzientziaio horretan laguntzea.

Hezkuntzako komunitate osoak ezagutu behar duen errealitatea da. **Agente guztiek estrategia egokiak garatu behar dituzte hezkuntza sistema gero eta inklusiboa izan dadin.**

Urritasunaren inguruan sentibilizatzeko eta urritasun hori ulertzeko lan pedagogikoa aurrera eramateko eta adimen urritasuna duten pertsonekin elkarbizitzeko balio egokiak ezartzeko, hezkuntzako etapa bakoitzera egokitutako materialak proposatzen ditugu. Azken helburua elkarbizitzara heltzea da, **pertsona bakoitza den bezala aitortu behar dela ulertuz, eta ez izan nahiko lukeen bezala.**

“Haur guztientzat eta haien desberdintasun guztientzat toki izango duten eta horiek errespetatuko dituzten ikasgelak sortzea denbora asko eskatzen duen erronka da... Aurrera jarraitu behar dugu borrokan gure adierazpenekin, gure irakaskuntza lanarekin eta gure curriculumarekin, inklusioa, justizia eta errespetua lortzeko ahaleginean”

(Stainback-Stainback, 1999)

IRAKASLE GUZTIARENTZAT

Hemen aurkezten ditugun materialak irakasle guztiei daude zuzenduta, **beren ikasgeletan adimen urritasuna duen ikaslerik izan edo ez.**

Merkatuan dauden hainbat material buruzko proposamenak biltzen eta eskaintzen dira; guztiak ere bilaketa eta azterketa sakona egin ondoren aukeratu dira, eta ikasgelan erraz eta uneoro erabili daitezke.

Jarduera bakoitza, bere materialekin, hezkuntzako etapetan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) pentsatuz orientatu eta diseinatu da; hori dela eta, etapa bakoitzerako jarduera egokienak ere adierazten ditugu.



Etaparen bakoitzean honako hau biltzen da:

- **Sentsibilizazio kartelak.**
- **Ipuinen, irakurketen proposamenak, bakoitza bere jarduerekin.**
- **Jolasak.**
- **Ikus-entzunezko euskarrian dauden materialak, filmak eta antzezlanak, ikusteko eta aztertzeko.**
- **Hala irizten badiote tutoreek garatu ditzaketen proposamenak.**

HEL- buruak

HELBURUAK

Materialen erabilerarekin bilatzen ditugun helburuak honako hauek dira:

• Bermatzea

Ikasleak, eskolako prozesu osoan, adimen edo garapen urritasuna duten ikaskideei buruzko informazio egokia eta egokitua izan dezan bermatzea.

• Heztea

Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonetik jarraera positiboetan heztea (errespetua, tratu egokia eta elkarrekiko laguntza, etab.).



Tutoretzak lantzean honako hau bilatzen da:

- ▶ **Sentsibilizatzea** Gizakien arteko desberdintasunen inguruan.
- ▶ **Sentsibilizatzea** “Ikusten diren urritasunen” inguruan.
- ▶ **Sentsibilizatzea** Urritasunen inguruan haien sintomen arabera (adibidez, jokaera, komunikazioa...).
- ▶ **Planifikatzea** Etapa bakoitzerako egokiak diren jarduerak planifikatzea eta burutzea, era egituratuan eta eduki argiekin.
- ▶ **Implikatzea** Ikasleak jardueraren burutzapenean.
- ▶ **Akordioetara eta jardunbide adostuetara** heltzea.

MARKO teorikoa

INKLUSIORAKO ESKUBIDEA

Inklusioa, beste ezer baino gehiago, eskubidea da, baina argi dago oso kontzeptu zabala dela, eta argitu behar da. Definizio bat baino gehiago bildu eta kontuan har dezakegu, Pattersonena, adibidez: **“Norbanako bakoitzak bere balioa duela eta taldeko kide dela uste izatean oinarritutako bizitzeko modu bat da, elkarrekin bizitzeko era. Inklusioan oinarritutako eskola ikasle guztiak barne, partaide, sentituko diren eskola izango da”**. Horrek esan nahi du ikasle guztiak onartuak izan behar direla, bakoitzari bere berezitasuna aitortu behar zaiola, baloratu egingo direla, eta guztiek ere eskolan parte hartuko dutela, bakoitza bere gaitasunen arabera. Esan dugun bezala, FEVASen helburua, irakaskuntzari dagokionez, eskola inklusiboa da.

Eskola inklusiboa honela ulertu behar da:

- ▶ Ikasketarako eta parte hartzeko oztopoak identifikatzen dituen, ondoren murrizteko, eta, halaber bi prozesu horiek bultzatzeko baliabideak indartzen dituen.
- ▶ Ikasleen beharretan zentratzeaz gain, **eskolako testuinguruaren planteamenduei buruzko gogoeta** egiten duena.
- ▶ Ikasle guztiei, aurrera egiteko **hezkuntza alorreko aukerak eta laguntzak** ematen dizkiena.
- ▶ Ikasle guztiak ahalik eta irakaskuntza indibidualizatuenean parte har dezaten **prestatzen dituen ikasketak giroa** eskaintzen duena.
- ▶ **Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean** guztiontzat aberastasun gisa erakusten duena.
- ▶ Hezkuntzako Erkidegoak bere hartzen dituen **balio inklusiboak garatzen dituen**.
- ▶ **Desberdintasunean hezten duena**, bakoitzaren berezitasuna ezagutaraziz.
- ▶ **Aniztasunaren errespetuan, aitorenean eta balioan hezten duena**.

Ikuspegi inklusiboak **aniztasuna irakaskuntza-ikasketa prozesua aberastuko duen elementu gisa** eta, ondorioz, giza garapena bultzatuko duen elementu gisa, baloratzea bilatzen du. Inklusioak **etengabeko hobekuntza prozesuarekin konpromisoa eta jarrera eskatzen du**; hezkuntzako kulturak, politikak eta jardunbideak aztertzeke eta horien gainean gogoeta egiteko eta oztopoak eta hobetu beharreko alorrak identifikatzeko esfortzua eskatzen du. Inklusioan aurrera egitea errespetu, tolerantzia eta elkartasun jarreretan aurrera egitea da; balioetan hezte da, baina balioak, erakustez gain, bizi egiten dira; elkarrekin biziz elkarrekin bizitzen ikastea da.

Helburu horiek errealitate bilakatzeko, eta desio onetan gera ez daitezen, beharrezkoa da Hezkuntza Erkidegoko agente guztiak informatzea, sensibilizatzea eta mentalizatzea, baita ikasleak ere; oso garrantzitsua da aniztasun hori ezagutzeko eta ulertzeko aukera izatea.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da irakasleek desberdintasunean hezteko erantzukizuna beren gain hartzea. **“Desber-**

dintasunek ikasteko aukera handiak eskaintzen dituzte. Desberdintasunak baliabide doakoa, ugaria eta berriztagarria dira”. (*Robert Barth 1990, Stainback eta Stainback-etik hartua, 2004, 26. orr.*)

Horrela, aniztasuna elkarrekintzak eta ikasketak aberasteko aukera gisa onartu ahal izango da. Beharrezkoa da “desberdintasuna sozializatzea”, informazioan eta elkarrekintzarako adibide egokietan oinarrituz.

“Ikasgelan denok nolabait desberdinak garela planteatzea, denak berdinak garela, “Kepa” izan ezik, planteatzea baino askoz ere aukera aberasgarriagoa da”.

(*Parrilla, 2005, 121. orr.*)

Helburua ez da urritasuna ulertzea soilik, beste pauso bat eman behar da: urritasuna duten pertsonetikiko balio positiboak garatzea. Urritasuna duten pertsonak humanizatu, errespetatu eta dignifikatu dituzten balioak; tolerantzia, elkartasuna, errespetua eta inklusioa bultzatuko duten balioak.

Zalantzarik gabe, ikasle guztiei desberdintasunari buruzko informazioa ematea eta gai hori lantzea, eguneroko jardunaren bidez urritasuna duten pertsonekin nola aritu erakustea, oso lagungarri izango da elkarbizitza sustatzeko, enpatia -besteen tokian jartzeko eta besteak sentitzen duena sentitzeko gaitasuna- garatzeko, pertsonak hobeto onartzeko eta, azken finean, urritasuna duen edozein pertsonaren bazterketa saihestuko du.

Haurtzarotik balioetan heztea oso garrantzitsua da helburu horiek lortu ahal izateko. Horrela, desberdintasunen irakaskuntza-ikasketa prozesua sustatzeko lana egiteko orduan irakasleentzat lagungarri izango diren orientabideak eman nahi dizkiegu.

“Aniztasunaz hitz egiteak berdintasunez hitz egitera garamatza. Aniztasuna gizakiari loturik dagoen berdintasunaren adierazpen jakin bat baino ez da”.

(Parrilla 2003; 98.orr.)

FEVASen HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN aldeko apustua egiten dugu, hau da, guztiontzako eskola, pertsona guztiak bere izango dituen eskola, pertsona horiek era batekoak edo besteakoak izanik ere. Ikasgela eta eskola inklusiboak sortzen baditugu, desberdintasunak errespetatu dituzten eta desberdin ikusten dena baztertuko ez duten **gizarte inklusiboak lor ditzakegu. Aniztasuna aberastasunerako benetako balio gisa hartu behar da.**

Onartu behar dugu inklusioa prozesu bat dela izan ere eskolak aniztasunari erantzuteko erarik egokienak bilatu behar baititu. Horretarako estilo profesionala beharko da, irakasleek adimen urritasuna duten pertsonetikiko jarrera eta ekintza positiboak sor ditzaten; beharrezkoak dira **beraien inklusio jardunbideei buruzko gogoeta egingo duten eta aurrera egiteko helburuak ezarriko dituzten profesionalak.**

“Esperientziarengatik badakigu posible dela ikasle guztiak ikasgeletan izatea, baldin eta hezitzaileek horiek hartzeko, adiskidetasuna sustatzeko, curriculum egokitzeko eta praktikak graduatzeko esfortzua egiten badute. Hala ere, erabateko inklusioa ez da beti erraza izaten. Ondorioz, beharrezkoa da helduek haurra baztertzearen bide erraza ez hartzea, gizarte inklusio egokia lortzeko soluzioak bilatzea baizik”

(Stainback eta Stainback, 1999, Parrillatik hartuta, 2005, 115. orr.)

ADIMEN URRITASUNA

Azken bi hamarkadatan aldaketa handia ikusi dugu urritasuna ulertzeko eran. Laguntzan eta gaitasun funtzionalen berreskuratzean zentratutako betidaniko planteamenduen ordez, urritasuna duten pertsonak bizitzako alor guztietan parte har dezaten, aukera berdintasuna saihesten duten oztopoak identifikatzean eta kentzean oinarritutako beste planteamendu batzuk ezarri dira.

Uste dugu gure gizartea antolatzeko modua aldatzen badugu, urritasuna duten pertsonak aurkitzen dituzten oztopoak asko murriztu daitezkeela, kasu askotan desagertu ere egin daitezkeela. Gaur egun inklusioa bultzatzen da, mugatuagoa den egokitzenaren helburuaren gaineratik, hori baita urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta gizarte aktiboan parte hartzeko aukera ematen duen faktore nagusia.

Urritasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenaren (CIF, OME-ak 2001ean onetsia) arabera, urritasuna duen pertsona, zenbait faktore elkarrekin aritzen diren in-

guruan dago. Faktore horiek funtsezkoak izan daitezke aukera berdintasun egoera edo bazterketa egoera izateko. Sistema horren eraketa zehatza egin ahal izateko beharrezkoa izango da faktore horiek identifikatzea, haien jokaera aztertzea eta pertsonarekiko berdintasuna edo bazterketa lortzeko orduan duten eragina ikustea.

“Gure gizartea antolatzeko modua aldatzen badugu, urritasuna duten pertsonak aurkitzen dituzten oztopoak asko murriztu daitezkeela, kasu askotan desagertu ere egin daitezkeela”

CIF 2001ak bi azpi-talde nagusitan antolatzen du informazioa:

1. FUNTZIONAMENDUA ETA URRITASUNA

1 a) Funtzionamendua:

Norbanako baten elkarrekintzaren (“osasun baldintza” batekin) eta testuinguruko faktoreen alderdi positiboak adierazten ditu. Bertan sartzen dira Gorputzaren Funtzioak, Gorputzaren Egiturak, Jarduerak eta Parte hartzea.

1 b) Urritasuna:

Norbanako baten elkarrekintzaren (“osasun baldintza” batekin) eta testuinguruko faktoreen alderdi negatiboak adierazten ditu. Bertan sartzen dira Gorputzaren Funtzioen eta Gorputzaren Egituren gabeziak, Jardueran dauden mugak eta Parte hartzeko zailtasunak.

2. TESTUINGURUKO FAKTOREAK

Norbanako baten bizitzaren eta bizimoduaren oinarria dira. Bertan Ingurumenearekin eta Pertsonarekin erlazionatutako faktoreek dute eragina.



Adimen Urritasunari buruzko Elkarte Amerikarrak (AAIDD) honela definitzen du adimen urritasuna: "adimen funtzionamenduan zein egokitze jokaeran, egokitze gaitasun kontzeptuzkoetan, sozialetan eta praktikoetan adierazitakoan, muga esanguratsuak dituen urritasuna. Urritasun hori 18 urte bete aurretik sortzen da"

(Luckasson eta cols)

Definizio hori abiapuntutzat hartuta, **pertsona batek adimen urritasuna izan dezan hiru irizpide bete behar ditu:**


- Muga esanguratsuak adimen funtzionamenduan.
- Muga esanguratsuak egokitze jokaeran.
- Urritasuna 18 urte bete aurretik agertzea.

AAIDD-aren iritziz, **BOST PREMI-SA** hartu behar dira kontuan definizioa aplikatu ahal izateko:

- Funtzionamenduan ematen diren mugak, adin eta kultura berekoen erkidegoko giro tipikoen testuinguruarekin erlazionatuz hartu behar dira kontuan.
- Baliozko ebaluazioak kontuan izan behar ditu kultur eta hizkuntz aniztasuna, bai eta komunikazioarekin eta zentzumenekin, trebezia motoreekin eta jokaerarekin erlasionaturiko desberdintasunak ere.
- Mugak, sarri askotan, bat datoz norbako baten gaitasunekin.
- Mugak deskribatzeko orduan xede garrantzitsua da beharrezko laguntzen profila garatzea.
- Eman beharreko laguntzak denbora luzean ematen badira, kasu gehienetan urritasuna duen pertsonaren bizitza funtzionamenduak hobera egingo du.

Beraz, eredu teorikoa aldatu egiten da aurreko definizioekin alderatuz. **Norbanako baten adimen mugak ez dira nahiko norbait adimen urritasun gisa baloratzeko. Kontuan izan behar da pertsonaren eta inguruaren arteko elkarrekintza.** Inguruari garrantzia ematearen ikuspegi hori da, baita ere, 1978an Warnock txostenak hartu zuena, hezkuntza, behar berezien kontzeptuan sartzean eta behar horien alderdi erlatiboa eta interaktiboa azpimarratzean.

AAIDD-ak kontuan hartzen duen adimen urritasunaren eredu teorikoa honako hau da:



Dimentsio bakoitzeko garrantzitsuena laburbilduz:**1. Adimen gaitasunak:**

Adimena gaitasun orokor gisa hartzen da, eta haren barruan sartzen dira arrazoiketa, plangintza, arazoen konponketa, kontzeptu abstraktuen pentsamendua, ideia konplexuen ulerpena, azkartasunez ikastea eta esperientziatik ikastea.

2. Jokaera moldatzailea:

Pertsonak, beraien eguneroko bizitzan funtzionatzeko ikasi dituzten gaitasun kontzeptuzkoen, sozialen eta praktikoen multzoa da.

Kontzeptuzko trebezien, trebezia sozialen eta praktikoen ADIBIDEAK:**A. Kontzeptuzkoak**

- ➔ Hizkuntza (hartzailea eta adierazlea)
- ➔ Irakurketa eta idazketa
- ➔ Diruarekin erlazio-tutako kontzeptuak
- ➔ Zer egin nahi duten jakitea

B. Sozialak

- ➔ Interpertsonala
- ➔ Erantzukizuna
- ➔ Autoestimua
- ➔ Sineskortasuna (engainatua edo manipulatu izateko aukera)
- ➔ Xalotasuna
- ➔ Arauak jarraitzea
- ➔ Legeak betetzea
- ➔ Biktimizazioa saihestea

C. Praktikoak

⇒ **Eguneroko bizitzako jarduerak**
Jatea, transferentzia / mugikortasuna, garbitzea, janztea

➔ **Eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak**

Janariak prestatzea, etxea garbitzea, garraioa, botikak hartzea, dirua erabiltzea, telefonoa erabiltzea

- ➔ Lanbide hastapeneko trebeziak
- ➔ Inguru osasungarria izatea

3. Parte hartzea, interakzioak eta gizarte rola:

Dimentsio honek, norbanakoak erkidegoan duen parte hartzea eta bertan betetzen duen tokia ebaluatzen du.

4. Osasuna (fisikoa, burukoa, etiologia):

Osasunaren Mundu erakundeak emandako definizioa kontuan izanik, erabateko ongizate fisikoa, burukoa eta soziala dela ulertzen da.

5. Testuingurua (giroak eta kultura):

Dimentsio honek, urritasuna duen pertsonak egunero bizi dituen baldintzak deskribatzen ditu. Gutxienez hiru maila biltzen dituen Bronfenbrenner-en eredu ekologikoan oinarritzen da:

• **Mikrosistema:** hurbileko inguru soziala, pertsona, familia eta inguruko beste zenbait pertsona barne.

• **Mesosistema:** auzokideak, erkidegoa eta hezkuntza edo laguntza zerbitzuak eskaintzen dituzten elkarteak.

• **Makrosistema:** kultur patroia orokorrak, gizarteak, herrialdea edo eragin sozio-politikoak.

“Inguru erabilerrazen egokitzapena eta diseinua ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonen funtzionamendua hobetzeko”

Kontzeptu berri horretan, bere gaitasunetan muga jakin batzuk dituen pertsonaren funtzionamenduan inguruak duen garrantzia aitortzen da. Hau da, **atzerapena ez dago pertsonan edo inguruan, baizik eta pertsonak, bere inguruan aritzeko dituen gaitasunen ondoriozko funtzionamenduan.**

Pertsonen gaitasunak genetikoki markaturik datoz, baina gaitasun horiek garatzea ez da genetikaren kontu soila: testuinguruak ere badu eragina. Beraz, ingurua lagungarria edo ez hain lagungarria izan daiteke. Inguru erabilerrazen egokitzapena eta diseinua ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonen funtzionamendua hobetzeko.

Garrantzitsuena, pertsona urritasunaren gaitetik dagoela ulertzea da; beste ezer baino lehen pertsona bat ikusi behar dugu, bere eskubideak onartu eta garapenerako aukerak eskaini.

AUTISMOAREN ESPEKTROAREN NAHASKETAK (TEA)

TEA hitzak dimentsio desberdinen jarraipena azpimarratzen du, kategoria bakarra kontuan hartu beharrean. **TEA duten pertsonengan era kualitatiboan aldatzen da gizarte elkarrekintzarako, komunikaziorako eta irudipenerako gaitasunen multzoa.** Ondoren laugarren faktorea ere sartu zen: jardueren eta interesen patroik errepikakorak.

Horrek esan nahi du TEA duten baina oinarrizko sintoma anitzak dituzten pertsonak aurkituko ditugula:



“Nahasketa neuro-psikiatrikoak dira, mota askotako adierazpen klinikoak dituzte eta nerbio sistema zentralaren garapenerako faktore anitzeko disfuntzioen ondorio dira. Zergati organiko desberdinak dituen adierazpen kliniko espektro zabal horren ezaugarria zenbait funtzio fisiologikoren eta neuropsikologikoren ukipen nuklearra da”

(Autismo-Europa)

1. Elkarrekiko gizarte elkarrekintzaren garapeneraren nahasketa

Pertsona batzuegan gizarte isolamendua ikusten dugu; beste batzuk pasibo egoten dira, besteenganako interes gutxi erakutsiz. Pertsona batzuek era arraroan ezar ditzakete gizarte harremanak. Orokorrean, gizartearen arauak ulertzeko eta emozioak, pentsamenduak eta interesak konpartitzeko zailtasunak izaten dituzte. Ez dituzte ulertzen esanahi bikoitza duten esaldiak, zailtasunak dituzte besteen intentzioez jabetzeko. Hori guztia dela eta, pertsona horientzat zaila izaten da gizarte harremanak ezartzea.

2. Ahozko komunikazioaren eta ahozkoa ez denaren nahasketa

Pertsona batzuek ez dute inolako hizkuntza motarik garatzen; beste batzuk sistema alternatiboak edo komunikazio handigarririk erabiliz komunikatzen dira.

Sarri askotan, beraien hizkuntz trebezien era eta edukia desberdinak izaten dira. Batzuek ekolalia izan ohi dute, hau da, hitzen edo esaldien errepikapena; inbertsio

pronominala eta hitzen asmakuntza.

Aurpegiko adierazpenak, jarrerak edo keinuak ulertzeko zailtasunak izan ohi dituzte; jokaera horiek gizarte elkarrekintza zailtzen dute. Ez dute hizkuntza erabiltzen esperientziak konpartitzeko. Zailtasunak dituzte elkarrizketa bat hasteko edo jarraitzeko; ez dituzte txantxak, ironia eta esanahi bikoitzak ulertzen.

3. Interesen eta jokaeren errepertorio mugatua

Pertsona gehienek ez dute ohiko simulazio, fikzio edo fantasia jolasa garatzen, eta horrek asmo mugatzen du besteen emozioak eta intentzioak ulertzeko gaitasuna. Oso zaila egiten zaie gertatu behar dena aurrez ikustea.

Jokaeraren patroiak errepikakorak eta errirozkoak dira, eta ezohiko objektu bitxiak hurbileko izan ditzakete. Pertsona batzuek interes bereziak izaten dituzte. Horrez gain, ez ohiko sentsibilitatea erakusten dute sentimenteren estimuluen aurrean. Mugimendu estereotipatuak izaten dituzte: hegaz egitearen itxura, eskuak igurztea, balantza egitea...

Marko teorikoa

Nahasketa horiez gain, TEA duten pertsonak loturiko bigarren mailako sintomak izaten dituzte. Ohikoenak honako hauek izaten dira: krisi epileptikoak, elikaduraren nahasketak, loaren nahasketak, inpulsibitatea, hiperaktibitatea, adimen urritasuna...

Autismoaren jatorria oso argi ez dagoen arren, jatorri biologikoa duen nahasketa dela uste da. Baron-Cohen eta Bolton-en arabera, zergati biologikoen artean faktore genetikoa, infekzio birikoak eta haurdunaldian edo erditzean gertaturiko zailtasunak daude; horietako edozeinek sor dezake TEA eragiten duen buru kalte arina. Zergati biologiko horiek ez dira haur guztiengan aurkitzen, eta horrek esan nahi du oraindik beste zenbait faktore biologiko aurkitu gabe daudela.



TEAk eragin handiagoa du gizonezkoen artean (hiru bider gehiago ematen da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino), baina emakumeek pronostiko larriagoa izaten dute. Ez dakigu zergatik dauden desberdintasun horiek gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Joaquín Fuentesen iritziz (Gipuzkoako Poliklinikako haur eta gazte psikiatria zerbitzuko burua), Euskadin 250 haurretatik 1ek TEA-ren bat erakusten du, kasu arinenetatik hasi eta larrienetaraino.

TU- toretzak

Ikasle talde bakoitzak, bere ezaugarriak eta beharrak ezagutzen dituen irakasle tutore bat du bere eskola bizitza osoan. Tutore horren lana ezinbesteko laguntza da ikasleentzako trebakuntza integralerako, izan ere, hezkuntzako etapa bakoitzean ezaugarri edo jokaera desberdinak dituen arren, beti ere ahalegina egingo baitu ikasgelan harmonia egon dadin helburuen, edukien eta taldearen sozializazio prozesuaren artean.

Gure iritziz tutoreen lana **prozesu jarraitua da eta ikasleei munduaz eta besteez duten ikuspegi propioa eraikitzen lagundu behar die**; horrek diziplina anitzeko jarduerak burutzea eskatzen du, izan ere, **tutoretzak hezkuntza ekintza eta irakas-kuntza lana osatzen baititu**.

UNESCO-ren aurrean aurkeztutako XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordearen txostenaren arabera “hezkuntza, bizitza osoan, lau zutabetan oinarritzen da: **ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi**”. Horretarako tutorearen lana funtsezkoa da; ikasleari laguntzen dio hezkuntza prozesu osoan, ezagutzaren eta ikasketaren aldeko jarrerak bultzatuz eta sormena, autonomia eta erantzukizuna sustatuz.

“Desberdintasuna ez da bakoitza den izaki errepikaezin horren adierazpen soila, kasu askotan, izatera heldu ahal izanaren, izateko aukera gehiago edo gutxiago izatearen eta gizarte, ekonomia eta kultura alorretako ondareetan parte hartzeko adierazpena ere bada”

(Gimeno Sacristán, 1999, López Melerotik hartua 2004, 69. orr.)



Tutoreak ikaslea bere ikasketa prozesuan bertan inbolukratzen du ikasgai bakoitzaren programan beren beregi biltzen ez diren trebatze eta heltze prozesuaren zenbait alderdi lantzen baititu. Horrela, **balioetan hezten du eta ikasleentzat eredu da, erreferente garrantzitsua**. Helduak beti dira funtsezko elementua; esaten eta egiten dutena, nola jokatzeko duten eta nola zuzentzen diren urritasuna duten pertsonengana, imitatzeko eredu izango dira ikasle guztientzat. Hau da, **haurrek helduengan ikusten dituzten jarre-
rek eta jokaerek zerikusi handia izango dute urritasuna duten pertsonen balioak ezartzeko orduan. Hori guztia “curriculum ezutuaren” parte da**. Oso garrantzitsua da argi izatea eta ondorio hori ezagutzea, desberdintasuna onartuko, errespetatuko eta aitortuko duen eredu inklusiborantz aurrera egin ahal izateko.

Tutoretzak oso une egokia dira eskolako antolakuntzan pertsona eta gizarte mailako trebakuntza hedatuko duten zenbait gai lantzeko orduan. Hori dela eta, tutoretza lana, ongi planifikatuta baldin badago, oso erabilgarri izan daiteke ikasleak adimen edo/eta garapen urritasunaren inguruan sentsibilizatzeko.

Gure esperientziak erakutsi digu **irakasleek, gai jakin batzuen inguruan, adimen urritasunaren inguruan, adibidez, sentsibilizatu ahal izateko eta ideia garrantzitsuak transmititu ahal izateko, horrekin bat datozen sinesmenak eta jarrerak izan behar dituztela, seguru sentitzeaz gain.**

Horretan laguntzeko oinarritzko ezagutzak emango ditugu, eta baita ikasgela barruan erabili beharreko zenbait material, ikasleak sentsibilizatzeko eta beraien artean urritasuna duten pertsonetik jarraera positiboak sortzen laguntzeko.

Emaitzak lortzeko oso garrantzitsua da profesionalek adimen edo/eta garapen urritasuna duten pertsonengan sinestea eta eskolan elkarrekintzarako eredu positibo gisa agertzea, horrela urritasuna duten pertso-

Informazioaren eta sentsibilizazioaren bidez berezko laguntza sortuko dira ikasgelako ateak zeharkatzen dituzten eta adimen urritasuna duten pertsonentzat.

nak ulertzeko eta beraienganako ulermen eta arreta giroa sortzeko.

Hau da, **tutoretzak eguneroko jardunaren osagarria dira; ikasleak onespenerako prestatu ahal izateko, irakasleek aniztasuna eta urritasuna onartu behar dituzte.**

Ezinbestekoa da irakasleek ikasleak motibatzea besteak onar ditzaten. Beraz, desberdintasunak aurkitzen, ezagutzen eta errespetatzen lagundu beharko diete, gelan horretarako giro egokia ezarriz. Guztien errespetuan eta onarpenean hezi behar dituzte, elkarlanean eta elkarrekiko laguntzan eta erantzukizunean. Komenigarria da **informazioaren eta sentsibilizazioaren bitartez berezko laguntzak sortzea ikasgelako ateak zeharkatzen dituzten eta adimen urritasuna duten pertsonentzat.**



Adimen edo/eta garapen urritasuna duten pertsonak dauden ikasgeletako ikasleek ezagutzen dute zer den desberdintasuna, beraien ideiak sortu dituzte urritasuna duen pertsonarekin izandako esperientziaren arabera, helduei pertsona horiekin ikusten dieten jarreraren arabera eta beraien gurasoen eta inguruko iritzia kontuan izanik. Kasu horretan, ikasleek beraien informazioa jaso dute, eta beha-

rezkoa da irakasleek, tutoretzen bitartez, ikasleen iritzia ezagutzea, iritzi hori aztertzea eta egituratzea eta eman beharreko azalpenak ematea. **Garrantzitsua da, baita ere, familiari baimena eskatzea edozein ekintza edo jarduera burutu ahal izateko.**

Irakasleei ematen zaien laguntza osatzeko, **“sareko” lanaren** edo elkarlanaren ideia gomendatuko genuke. Kasu horretan, urritasuna duten pertsonak beraiak, auto-kudeatzaileen taldeen bitartez, une batzuetan tutoretzetan har dezakete parte, beraien esperientziak ezagutarazteko... Auto-kudeatzaileak, adimen urritasuna duten pertsona helduak dira, eta aldian behin beraien elkarteetan biltzen dira, komunikaziorako trebeziak jasotzeko, pertsona eta gizarte mailan autonomia handiagoa lortzeko eta beraien kabuz hitz egiteko eta erabakitzeak aukerak zabaltzeko. Horrez gain, beraien eguneroko bizitzan erabakiak hartzen eta pertsona eta hiritar gisa beraiei ere dagozkien gai praktikoen inguruan eztabaidatzen ere ikasten dute. Adimen urritasuna duten pertsonen elkarteetan oso ohikoa da talde horiek eratzea.

“Aniztasunaz hitz egiteak berdintasunez hitz egitera garamatza. Aniztasuna gizakiari loturik dagoen berdintasunaren adierazpen jakin bat baino ez da”.

(Parrilla, 2003:98).

INFOR-
MAZIO
Osagarria
Adimen urritasuna

ATAL HONETAN HAINBAT LIBURUREN ETA HAINBAT WEB GUNEREN ERREFERENTZIA SARTUKO DUGU, LAGUNGARRI IZAN DAITEZKEELAKO IRAKASLEEK ADIMEN URRITASUNARI ETA GARAPENAREN BESTE NAHASKETA BATZUEI BURUZ GEHIAGO JAKIN DEZATEN

Déjame que te hable de los niños y niñas con autismo de tu escuela. Hernández, J; Martín, A. y Ruíz, B. (2007). Madrid: Teleno Ediciones, S.L.

Liburu hori lagungarri izan daiteke autismoaren espektroko nahasketa duten ikasleen aurrean erantzun egokia emateko.

¡Mírame! Forma de ser. Forma de actuar. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

¡Escúchame! Relaciones sociales y comunicación. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

¡Atiéndeme! Ocio y aprendizajes. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

Andresen bitartez, garapenaren nahasketa jeneralizatua (GNG-TGD) diagnostikatu zaion kasu errealeran hurbiltzeko aukera emango diguten hiru liburu.

Actividad física adaptada: El juego y los alumnos con discapacidad. Ríos Hernández, M; Blanco Rodríguez, A; Bonany Jané, T. y Carol Gres, N. (2006). Barcelona: Paidotribo.

Liburu honetan zenbait sentsibilizazio jolas biltzen dira, aniztasunaren errespeturako bide gisa.

“Valora la diferencia” ikasgelatik urritasuna lantzeko prestatu den hezkuntza programa da. Jerezko Udalak, Omad bulegoaren (Oficina Municipal de Atención a la DISCAPACIDAD) bitartez, honako gune honetatik jaitsi daitezkeen programa hauek bultzatzen ditu:

<http://www.omad.jerez.es/index.php?id=11>

Oinarrizko premisa honako hau da:

- Bazterketa ezaren gehi ekintza positiboaren emaitza gizartratzea da.

Lan horiek lantzeko honako material hauek jaitsi daitezke:

- Hezitzailearen Gidaliburua - Guía del educador.

- Lehen Hezkuntzako Unitatea - Unidad Primaria.

- Bigarren Hezkuntzako Unitatea - Unidad Secundaria.

- Batxilergoko Unitatea - Unidad Bachillerato.

Jarduera gehienak gehiago zentratzen dira sentimen urritasunetan edo urritasun fisikoetan.

La discapacidad en el cine. Alegre de la Rosa, O.M. (2003). Barcelona. Ediciones Octaedro.

Liburu horrek Hezkuntza Bereziak zinean izan duen historia laburbiltzen digu. Filmak laukietan agertzen dira sailkatuta. Eta zinea irakaskuntzarako baliabidea dela kontuan izanik, liburua-aren amaieran zenbait gidoi ditugu, ikasleekin urritasunaren gaia landu ahal izateko.

Web gune interesgarriak:

FEVAS Adimen Urritasuna duten pertsonen aldeko Elkarleen Euskal Federazioa.

www.fevas.org

FEAPS Confederación Española de Organizaciones a favor de las personas con discapacidad intelectual

www.feaps.org

Attem Asociación para el tratamiento de personas con alteraciones del desarrollo

www.attem.com

CERMI Comité Español de Representantes de personas con discapacidad

www.cermi.es

Confederación Autismo España

www.autismo.org.es/AE/default.htm

Creena Centro de Recursos de Educación Especial de Navarra. Departamento de Educación del Gobierno de Navarra

www.pnte.cfnavarra.es/creena/003Documentacion/descargar.html

Discapnet El portal de la discapacidad

www.discalpnet.es

Inico Instituto Universitario de Integración en la Comunidad

inico.usal.es

Junta de Andalucía Los trastornos generales del desarrollo. Una aproximación desde la práctica

www.juntadeandalucia.es/educacion/nav/contenido.jsp?pag=/Contenidos/PSE/orientacionyatenciondiversidad/educacionespecial/Publicaciones

Needirectorio. Recursos para la Atención a la Diversidad. Región de Murcia Consejería de Educación y Ciencia

www.needirectorio.murciadiversidad.org/

Real Patronato sobre Discapacidad

www.rpd.es

HAUR HEZKUNTZA



Haur hezkuntzako lana *helburu* nagusi batera dago zuzenduta:

Ikasleak kontzientziaztea, denak desberdinak garela ikus dezaten, eta badaudela laguntza behar duten haurrak.

Ikasgelan egiteko *bostjarduera* proposatzen ditugu; horretarako zenbait material aukeratu ditugu, horiek nola erabili azalduz. Horrez gain, ikasgelan erabili daitezkeen beste zenbait material kontsultatzeko gonbidapena luzatzen da.

Posterra



jarduera

Haur Hezkuntza

1 JARDUERA

Desberdintasunen inguruan sentsibilizatzeko posterra

Zuen esku ikasgelan jartzeko poster bat jarriko dugu. Posterra ikasturteko hainbat unetan erabili daiteke, taldearentzako interes gune gisa.

Jarduera honen helburua irudien bitartez sentsibilizatzea da. Ikasleek desberdintasunak identifikatzea eta ezagutzea eta informazioa izatea bilatzen da. Azpimarratu behar da pertsona batzuek zailtasunak dituztela, baina horrek ez duela esan nahi ez dutela eskolan egon behar; denak talde bateko kide gara eta haiek ere eskolan dauden haurrak dira.

Jarduera talde handian egin daiteke, alfonbra gainean daudenean, edo talde txikietan, bestela. Irudien laguntzaz desberdintasunak azalduko dira, eta baita eman dezakegun


laguntza mota. Pertsonen arteko desberdintasunak ugariak izan daitezke: batzuek sentimen zailtasunak dituzte, beste batzuek oinez ibiltzeko zailtasunak, beste batzuek gauzak ulertzeko, beste batzuek hitz egiteko, beste batzuek gauzak egiten zentratzeko, beste zenbaitek jolasteko... Bakoitzari era batean lagundu diezaiokegu, eta gure laguntzarekin hobeto egongo dira.

Beste zenbait iradokizun:

Guztion artean egin panel bat kartulina batzuetan; ikasleek desberdinak diren pertsonak agertzen diren irudiak bilatu beharko dituzte, ondoren ebakitzeko eta itsasteko.



Denak berdina al gara?




2 jarduera

Haur Hezkuntza

2 JARDUERA

Denak berdina al gara?



Haurtzako ipuinen bitartez desberdintasunerantz sensibilizatu dezakegu. Komenigarria da jarduera horretaz baliatzea, ikasleek ikus dezaten “desberdina” izatea ez dela inor baino gutxiago izatea.

Material gomendatua: **Elmer**
McKee, D. (2006),
Bartzelona: Beascoa.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera.

Elmerren istorioa kontatzen da. Elmer koloretako elefantea da, gainerako elefanteen desberdina, besteak grisak baitira. Ikasgelan izan dezakegun ipuin bilduma da, eta ikasgelako lan materialaren barruan ere sar dezakegu.

Ipuinaren laburpena:

Elefante talde batean badira gazteak, zaharrak, altuak, potoloak edo argalak. Denak desberdinak dira, baina kolore bera dute, grisa, denak

Elmerrek izan ezik, izan ere, Elmer koloretako elefantea baita. Gehienetan besteek barre egiten zuten Elmerrekin, baina nekatuta zegoen desberdina izateaz eta, ondorioz, egun batean taldea utzi zuen. Oihanean, beste animaliekin gurutzatzean, denek agur egiten zioten. Elefante koloreko baiez betetako zuhaixka aurkitu eta gorputza igurtzi zuen, bere gorputz osoa gris geratu arte, baienez zukuaren eraginez. Bere taldera itzultzeko bidean animalia guztiek “egunon elefante jauna” esaten zioten Elmerri, inork ez zekien Elmer zenik. Taldean ere inork ez zen konturatu Elmer heldu zenik, beste elefanteei txantxak egiten hasi zen arte, denak oso serio ikusten zituelako. Denak barrez hasi ziren. Euria hasi zuen, eta euriak berriro ere Elmerren benetako koloreak atera zituen. Azkenean, urtero jai bat egitea erabaki zuten, Elmerren eguna ospatzeko. Egun horretan elefante guztiek kolorez margotzen dute beraien gorputza, denek Elmerrek izan ezik, Elmerrek bere gorputza grisez margotzen du eta.

JARDUERAK

Ipuina kontatu ondoren honako jarduera hauek iradokitzen dira:

1. Egin gogoeta honako gai hauei buruz:

▫ *Zergatik utzi zuen Elmerrek bere elefante taldea?*

Elmer gainerakoen desberdin sentitzen zelako.

▫ *Elmer taldera itzuli zenean, ezagutu al zuten?*

Inork ez zuen ezagutu, ez baitzuen bera ematen, gainerako elefante guztien kolore gris bera zuelako.

▫ *Bere itxuraz gain, zein beste ezaugarri berezi du Elmerrek?*

Besteei barre eragiten die, bere txantxekin.

▫ *Nolakoa da Elmerren egunaren ospakizuna eta zergatik ospatzen da?*

Elefanteak kolorez margotzen dira, eta Elmer gris elefante kolorez margotzen da. Bere gorputza gainerako elefanteek zuten gris kolorez margotuz egun batean Elmerrek bere taldeari txantxa egin ziola ospatzen da.

▫ *Elmerren lagun izan nabiko zenuke?*

Marrastu nolakoa izango litzatekeen egun bat Elmerrekin.

2. Ikasleek azal dezatela zer gertatzen den ipuinean.

3. Ikasle bakoitzak Elmer marraz dezala, eta denbora batez ikasgelako “maskota” izan dadila.

4. Ikasleek beste pertsonaia batzuk bila ditzatela etxean dituzten edo liburategian irakurtzen dituzten ipuinetan. Elmer bezala, desberdin sentitzen diren pertsonaia izan beharko dira.

5. Ikasleek Elmerren istorio berriak asma ditzatela.



Jardueraren
Ondorioa

Badira, Elmer bezala, besteen desberdin senti daitezkeen pertsonak, baina lagunak dira eta garrantzitsuak dira.

BESTE AHOLKU BATZUK:

Klik gunean, gainera, **“Aprendiendo a leer con Elmer”** bezalako jarduerak daude, kontuan hartzeko modukoak, Lehen Hezkuntzan batez ere. Egilea Remedios de Cabo Laso da. (http://clic.xtec.net/db/act_es.jsp?id=2051)

Elmerri buruz Mckee-k idatzitako istorio gehiago ere badaude:

- “*El baño de Elmer*”.
- “*El chapuzón de Elmer*”.
- “*Elmer en la nieve*”.
- “*Elmer en zancos*”.
- “*Elmer juega al escondite*”.
- “*Elmer y el abuelo Eldo*”.
- “*Elmer y el clima*”...

Denok behar dugu laguntza



3

Jarduera

Haur Hezkuntza

3 JARDUERA

Denok behar dugu laguntza

Taldea kontzientziatu behar dugu, denok behar dugu laguntza zerbait egiteko.

Material gomendatua:

La tortuga Marian.

Taboada, A. (2008). Madril: Ediciones SM.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera.



► **Ipuinaren argumentua:**

Marian dortokak irakurtzeko eta idazteko zailtasunak ditu. Bere ikaskideek lagundu egiten diote. Bere urtegunean, guztien artean hegoak oparitzen dizkiote, ahal duen lekuraino hegaz egin dezan.



JARDUERAK**Ipuina irakurri ondoren egin daitezkeen galderak:**

▫ *Zuen ustez Marian dortoka ikasteko gai al da?*

Bai, Down sindromea (adimen urritasuna eta garapenaren beste nahasketa batzuk) duten hurrekin gertatzen den bezala, Marian dortokak ikas dezake, laguntza eta denbora gehiago behar badu ere.

▫ *Zer egiten du okilak Marian dortokarekin?*

Bere ondoan eseri eta hizkiak ikasten laguntzen dio.

▫ *Nola tratatzen dute eskolan Marian dortoka?*

Onartu egiten dute, beste ikasle bat da.

▫ *Zure ustez zergatik oparitzen dizkiote hegalek?*

Gauza guztietan (irakurketan, idazketan...) ahal duen lekuraino hel dadin.

▫ *Nahiko zenuke Marian dortokak bere urtegun jaira gonbidatzea? Erantzuna baiezkoa baldin bada, marraztu urtegun jai hori*

Marraztu ondoren esan behar da ez daudela berdinak diren bi izaki, guztiak bakarrak eta desberdinak garela.



Pertsona batzuek, Marian dortokari gertatzen zaion bezala, denbora gehiago behar dute ikasteko, kostatu egiten zaie eta zailagoa da. Oso garrantzitsua da guztion artean eman diezaiekegun laguntza, ahal duten lekuraino hel daitezen. Haur bakoitzak identifikatu behar du zein laguntza behar duen.

Diferentzia bizi



Haur Hezkuntza

4 JARDUERA

Diferentzia bizi

Jarduera honekin hurrek zailtasunak esperimentatzea eta bizitzea bilatzen da.


Adibidez, zirkuitu bat antola daiteke, eta bertan ikasleek oilo itsuaren jolasera jolas dezakete, ikaskideren bati begiak estaliz, keinuen bidez komunikatzen ahalegindu daitezke, hanka bakar baten gainean edo gurpildun aulki batean toki batetik bestera joan, zenbait objektu esku bakarrarekin hartu...



Diferentzia, desberdintasuna, sentitu



Desberdintasunek elkartu egiten gaituzte



5
jarduera

Haur Hezkuntza

5 JARDUERA

Desberdintasunek elkartu egiten gaituzte

Ikasleekin, desberdintasuna eta ezintasuna erakusten den antzezlan bat edo filma bat ikustera joatea gomendatzen da.

“Panta Rhei” konpainiak **Beltzitina** estreinatu zuen 2000. urtean. Antzezlanak 60 minutu irauten ditu.

<http://www.teatropantarhei.com/castellano/repertorio/beltzitina.htm>

Adin gomendatua: 4 urtetik aurrera.
Hizkuntza: Gaztelania eta Euskara.

Apdema Elkarteak eta Eusko Jaurlaritzak lagundu zuten antzezlan honetan.

► **Beltzitina antzerkiaren argumentua:**

Beltzitina buruko atzerapena duen neskatila eta Txuribeltz ahartetxo itsusia. Biak desberdin sentitzen dira eta besteek baztertu egiten dituzte, baina elkarrekin adiskidetasunaren balioa aurkitzen dute.

Beste aukera batzuk “SHREK” eta “Buscando a Nemo” filmak izan daitezke.



“Desberdintasunek
ikasketarako aukera
handiak biltzen dituzte.
Desberdintasunak
doako baliabide ugaria
eta berriztagarria dira”.

(Robert Barth 1990, Stainback eta Stainback-etik hartuta 2004:26).

Beste zenbait
MATE-
RIAL

IKASTUNITATEA**Elkarrekin ikasten dugu**

“Aprenem junts” elkartasuna, tolerantzia eta banakoen arteko desberdintasunen onarpen balioak lantzeko sortzen da.

<http://www.aprenemjunts.es/indexflashesp.html>

Ordenagailuaren bitartez ikastetxean zein familian egin daiteke lan, izan ere, bertan eskaintzen diren jarduerak anitzak baitira.

Etapak: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza**IPUINAK**

Haur literatura, berez garrantzia izateaz gain, baliabidea izan daiteke irakasleentzat, balioak eta jarrerak transmititzeko, elkartasuna, tolerantzia, adiskidetasuna, etab.

Familian zein eskolan oso garrantzitsua da pertsona helduak betetzen dugun lana, haurren esku jarriko diren ipuinak aurreratzeko orduan, eta baita ipuin horiek interpretatzen laguntzeko orduan ere, beraien erreferenteak baikara.

El gallo Jacinto. Alcántara, R. (1999). León: Everest, D.L.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera.

Jacintok gehien atsegin zuena abestea zen, baina hain gaizki abesten zuenez, gainerako animaliek ezin zuten jasan.

El gallo que no sabía cantar. Dallas-Conté, J. (2001). Madril: Ediciones S.M.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera

Oilarrak ahaztu egin zuen nola kantatu behar zen, eta saiatzeko bakoitzean gaizki egiten zuen. Horregatik beste animalia guztiak berarekin sartzen ziren.

Ahatetxo Itsusia haur literaturako klasikoa da, eta asko dira lan hau argitaratu duten argitaletxeak.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera.

Kalandraka Ediciones Andalucías piktogramaz egindako ipuin honen egokitzapena du.

Horrez gain, Walt Disney-ren “El Patito Feo” (1939) filma ere badugu. Ikasleek ikus dezakete.

“Marimba” antzerki taldeak lan horri buruzko antzezlan du.

Lolo, un conejo diferente. Genechten, G.V. (1999). Madril: SM.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera.

Lolo besteak ez bezalako untxia da, belarri bat erorita baitu. Berak besteak bezalakoak izan nahi du, baina konturatzen da desberdin izatea ez dela txarra.

Mi hermano tiene autismo. González, A. y Labat, V. (2008). Un libro explicativo para niños entre 4 y 5 años. Madril: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa.

Adin gomendatua: 4 eta 5 urte.

Ipuin hau 2005. urtean argitaratu zen lehen aldiz. Autismoa duten pertsonen anai-arrebei zuzenduta dagoen arren, oso erabilgarria da, baita ere, gainerako ikasleentzat eta irakasleentzat.

Óscar el botón. Nagy, E. (2001). Barcelona: Ediciones Beascoa, S.A.

Adin gomendatua: 4 urtetik aurrera.

Oscar oso beroki serioan bizi da, eta bidaiatzea erabaki du. Lagunak egin nahi ditu, baina baztertu egiten dute, desberdina delako. Azkenean ilargiarekin elkartuko da, eta bark oso aholku ona emango dio.

Está bien ser diferente. Parr, T. (2004). Bartzelona: Serres S.L.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera.

Egileak adierazi nahi die haurrei desberdina izatea ondo dagoela.

Un bicho raro. Urberuaga, P; Rodero, P. y Morán, J. (2003). Zaragoza: Edelvives.

Adin gomendatua: 3 urtetik aurrera.

Txori jaio berria bere nortasuna bilatzen ari da, desberdina izatea ez dela ezer txarra konturatzen den arte.

Komenigarria da, baita ere, ipuin egokituz osatutako materialak izatea. Piktogramak dituzten ipuinak, MAKAKIÑOS bildumakoak. BATAk (autismoa duten pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkien elkarteak) argitaratutako ipuinak. Bilduma horietako batzuk betidaniko ipuinak dira, sagutxo pinpirina, untxitxo zuria... (www.kalandraka.com)

ANTZEZLANAK

Antzezlanak ere baliabide egokia izan daitezke gure helburuak lortu ahal izateko.

Elmer, el elefante

“Teatro de la Luna” konpainiak (Madril) 45 minutu irauten duen lan hau estreinatu zuen 1995ean.

Adin gomendatua: 3 urtetik 8 urtera.

Antzezlan gaztelaniaz eta euskaraz ikus daiteke.

Txosten pedagogikoa dute Elmerrentzat lan egin ahal izateko. Honako orri honetan ikus daiteke:

<http://www.teatrodelaluna.com/mediafiles/14-ES-1.pdf>

Txostenean honako aurkibide hau proposatzen da:

- *Elmer matematika orduan.*

- *Elmer eta zientziak.*

- *Elmer eta hizkuntza*

- *Elefanteei buruzko ipuinen bibliografia.*

Elmer y Wilbur

“Teatro de la Luna” konpainiak (Madril) 50 minutu irauten duen lan hau estreinatu zuen 2007an.

<http://www.teatrodelaluna.com>

Adin gomendatua: 3 urtetik 8 urtera.

Wilbur Elmerren lehengusua da. Lauki zuridun eta belzdun elefantea da, eta animalia askoren ahotsak imitatzen ditu.

El patito feo

“Marimba” konpainiak (Madril) 55 minutu irauten dituen lan hau antzeztzen du.

<http://www.marimbamarionetas.com/index.php>

Koaderno pedagogikoa bat proposatzen dute:

<http://www.marimbamarionetas.com/doc/CP-PatitoFeo.pdf>

Gidoi osoa dohainik jaitsi daiteke honako helbide honetan:

http://www.lulu.com/items/volume_47/712000/712952/1/print/el-patito-feo.pdf

Adin gomendatua: 2 urtetik aurrera.





HEZKUNTZA INKLUSIORAKO

MATERIALEN GIDA:

ADIMEN ETA GARAPEN URRITASUNA

LEHEN HEZKUNTZA



FEVAS

LAGUNTZEN DU:





HEZKUNTZA INKLUSIORAKO

MATERIALEN GIDA:

ADIMEN ETA GARAPEN URRITASUNA

LEHEN HEZKUNTZA



FEVAS

LAGUNTZEN DU:



FEVASek (Adimen Urritasuna dutenen aldeko elkarten Euskal Federazioa) egindako gida.



aurki**bidea**

AURKEZPENA	6
SARRERA	11
HELBURUAK	15
MARKO TEORIKOA	17
Inklusiorako Eskubidea	18
Adimen Urritasuna	22
Autismo Espektoaren Nahasketak	28
TUTORETZAK	31
INFORMAZIO OSAGARRIA	37
LEHEN HEZKUNTZA, JARDUERAK	40
1) FEVASeko posterra	42
2) Desberdintasuna bizitzea eta laguntzaren garrantzia sentitzea	44
3) Oztupoak identifikatuz	46
4) Desberdina naiz	50
5) Desberdina da eta nire laguna da	56
6) Zer gertatzen zaien jakin nahi dugu	60
7) Berdinak al gara guztiak?	64
8) Nolako naiz	66
9) Hitzak garrantzitsuak dira	68
10) Filmetan errealitatea islatzen al da?	74
Beste zenbait material	78



*Gure ikasgeletan adimen eta garapen urritasuna duten ikasleak ego-
tea ezinbesteko pausoa izan zen inklusiorako bidean. Baina FEVAS-
ek, adimen eta garapen urritasuna duten seme-alaben familiak
elkartzen dituen elkartze mugimendu bezala, lanean jarraitzeko
ardura dauka gaur egun ere gizartean benetako inklusioa ezinezko bilakatzen
duten oztopoak kentzen joatea.*

*Lan zaila da hori, inolako zalantzarik gabe. Horregatik FEVASen lehentasunezko
ekintzetako bat hezkuntza da. Ondorioz lan talde bat eratu dugu, elkarteetako
ordezkariak eta hezkuntza alorreko espezialistek osatua, ez ditzagun ahaztu adi-
men eta garapen urritasuna duten 1.300 ikasle horiek; haurrek eta gazteek etor-
kizun hobea izango dute hezkuntza komunitatea eta familiak elkarlanean aritzen
bagara eta norabide berean jarduten badugu.*

*Asko hitz egiten da adimen urritasuna duten pertsonak hezkuntza sisteman sar-
tzearen garrantziari buruz, izan ere justiziazkoa da, eta beraientzat oso ona,
baina oso gutxitan planteatzen da gai hori benetako interesa duen zerbait bezala,
ikasle guztientzat onuragarria eta aberasgarria izango den zerbait bezala; hala
ere, uste dugu ikasle guztiek dutela adimen urritasuna ezagutzeko eskubidea.*

*Gida honekin adimen urritasunaren ezagutza eskolako erkidegora hurbildu nahi
dugu, eta, horretarako, hezkuntzako etapa bakoitzeko ikasleei egokitutako in-
formazio garrantzitsua, edukiak eta egokitutako jarduerak bildu ditugu. Kontua
da aniztasuna arazo gisa hartu beharrean, guztien ikasketa aberastuko duen
errealitate gisa hartzea da. Horrela, guztion artean, ikasketekin zuzenean erla-
zionatutako alderdiez gain, elkartasunean, tolerantzian, enpatian eta besteekiko,
desberdinekiko, errespetuan oinarritutako jarreraren eta balioen sustapenean oina-
rritutako kultura bultzatuko duen eskola lortu ahal izango dugu; sentsibilizatuko
duen eta adimen urritasuna duten pertsonen beste era batera begiratzen eraku-
tsiko duen eskola. Hori da gure helburua.*

*FEVASen badakigu, horrela egiaztatu ahal izan dugulako sarri askotan, irakasleak
direla gurekin egunero borrokan ari direnak inklusioa lortu ahal izateko. Horre-
gatik zuen ikasgeletan eta taldeetan gida hau erabiltzeko gonbidapena luzatzen
dizuegu. Guk, behar duzuen laguntza guztia emango dizuegu. Hor duzue.*

Juan Cid, FEVASeko presidentea

Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (FEVAS), Euskadiko Autonomia Erkidegoan adimen urritasuna duten pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten familien elkarteak biltzen ditu. 11 erakunde eratzten dute eta, ondorioz, alor honetako Euskadiko antolakuntza sare garrantzitsua da.

FEVASek zerbitzuak eskaintzen dizkie bere kide diren erakundeei, eta beraien jarduerak koordinatzen ditu, talde osoaren interesei dagozkien gaitan ekintzarako irizpideak bateratuz. Euskal Federazio honen helburu nagusietakoa gizartea sentsibilizatzea eta gizarte politiketan eragina izatea da.

ERAKUNDE ELKARTUAK:



FEVAS zifratan

Adimen urritasuna duten **9.100** pertsona
1.160 profesional **7.900** familia **800** bolondres
 Lan hastapeneko **2** zentro **3.000** erabiltzaile Aisia zerbitzuetan



Arreta Goiztiarreko **3** zentro Eguneko arretarako **37** zentro
 Hezkuntza bereziko **2** Ikastetxe **69** Egoitza unitate
3 Babes zerbitzu Kontzertaturiko **47** Hezkuntza Unitate

Aniztasuna ez da
ikusten gainditu
beharreko arazo gisa,
guztien ikasketari
laguntzeko baliabide
aberasgarri gisa
baizik

(Booth, Ainscow, Black-Hawkins, Vaughn eta Show)

SA-
rrera

Hezkuntza Inklusiorako
Hezkuntzako Materialak



Orain arte askotan esan da oso garrantzitsua dela urritasuna duten ikasleak beste guztien munduan aritzea, ikasgeletako bizitzako parte izan daitezen eta gizarte harremanak eta erabateko garapena indartuko duen hezkuntzako partaide izan daitezen... Ardura horiek, gehien bat, ikasgelan urritasuna duen ikasleren bat duten irakasleek izan dituzte. Hala ere, oso gutxitan egin da gai horri buruzko gogoeta urritasunik duen ikaslerik ez zegoen ikasgelatan.

Hori dela eta, Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (FEVAS) erabateko konpromisoa hartu du eskola inklusibo modeloaren garapenarekin. **Funtsezkoa da irakasleek konturatzeko zein garrantzitsua den aniztasuna, desberdintasuna eta urritasuna beraien eguneroko irakaskuntza jardunean sartzea.** Alor horretan aurre egin

ahal izateko, eman beharreko laguntza emango duten eta irakasleentzat erabilgarri izango diren materialak sortu ditugu, urritasunaren errealitatea barne izango duen hezkuntza sistemaren eraikuntzan aurrera egiten lagungarri izan daitezten.

“Desberdintasunean” hezteak ezagutzea eta onartzea da, eta inoiz ez ezkutatzea. Ezkutatzen bada baztertu egiten da.

Irakasleei, **jardunbide inklusiboak martxan jartzea erraztuko dieten gakoak eman nahi dizkiegu, adimen eta garapen urritasunari buruzko oinarritzko edukiak eskainiz. Halaber, hezkuntzako etapatan zehar,** ikasleak sentibilizatzen eta desberdintasunean eta urritasunaren ezagutzan, ulerpenean eta onarpenean hezten lagunduko duten hainbat baliabide aurkezten ditugu. Laburbilduz, balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko kontzientziaioa sustatuko duten oinarritzko ezagutzak eta ikasgelako proposamenak.

Beste alde batetik, ikusten dugu beharrezkoa dela hezkuntzako inklusioa ikasle guztiek urritasunaren inguruan ikasteko duten aukera gisa lantzea, horrela desberdinak diren pertsonetikiko errespetua eskuratzeko edo garatzeko. Ezin dugu ahaztu ikasleek “urritasunari buruz jakiteko” eskubidea dutela, eta irakasleen ardura dela kontzientziaio horretan laguntzea.

Hezkuntzako komunitate osoak ezagutu behar duen errealitatea da. **Agente guztiak estrategia egokiak garatu behar dituzte hezkuntza sistema gero eta inklusiboa izan dadin.**

Urritasunaren inguruan sentibilizatzeko eta urritasun hori ulertzeko lan pedagogikoa aurrera eramateko eta adimen urritasuna duten pertsonekin elkarbizitzeko balio egokiak ezartzeko, hezkuntzako etapa bakoitzera egokitutako materialak proposatzen ditugu. Azken helburua elkarbizitzara heltzea da, **pertsona bakoitza den bezala aitortu behar dela ulertuz, eta ez izan nahiko lukeen bezala.**

“Haur guztientzat eta haien desberdintasun guztientzat toki izango duten eta horiek errespetatuko dituzten ikasgelak sortzea denbora asko eskatzen duen erronka da... Aurrera jarraitu behar dugu borrokan gure adierazpenekin, gure irakaskuntza lanarekin eta gure curriculumarekin, inklusioa, justizia eta errespetua lortzeko ahaleginean”

(Stainback-Stainback, 1999)

IRAKASLE GUZTIARENTZAT

Hemen aurkezten ditugun materialak irakasle guztiei daude zuzenduta, **beren ikasgeletan adimen urritasuna duen ikaslerik izan edo ez.**

Merkatuan dauden hainbat material buruzko proposamenak biltzen eta eskaintzen dira; guztiak ere bilaketa eta azterketa sakona egin ondoren aukeratu dira, eta ikasgelan erraz eta uneoro erabili daitezke.

Jarduera bakoitza, bere materialekin, hezkuntzako etapetan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) pentsatuz orientatu eta diseinatu da; hori dela eta, etapa bakoitzerako jarduera egokienak ere adierazten ditugu.



Etaparen bakoitzean honako hau biltzen da:

- **Sentsibilizazio kartelak.**
- **Ipuinen, irakurketen proposamenak, bakoitza bere jarduerekin.**
- **Jolasak.**
- **Ikus-entzunezko euskarrian dauden materialak, filmak eta antzezlanak, ikusteko eta aztertzeko.**
- **Hala irizten badiote tutoreek garatu ditzaketen proposamenak.**

HEL- buruak

HELBURUAK

Materialen erabilerarekin bilatzen ditugun helburuak honako hauek dira:

• Bermatzea

Ikasleak, eskolako prozesu osoan, adimen edo garapen urritasuna duten ikaskideei buruzko informazio egokia eta egokitua izan dezan bermatzea.

• Heztea

Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonetik jarraera positiboetan heztea (errespetua, tratu egokia eta elkarrekiko laguntza, etab.).



Tutoretzak lantzean honako hau bilatzen da:

- ▶ **Sentsibilizatzea** Gizakien arteko desberdintasunen inguruan.
- ▶ **Sentsibilizatzea** “Ikusten diren urritasunen” inguruan.
- ▶ **Sentsibilizatzea** Urritasunen inguruan haien sintomen arabera (adibidez, jokaera, komunikazioa...).
- ▶ **Planifikatzea** Etapa bakoitzerako egokiak diren jarduerak planifikatzea eta burutzea, era egituratuan eta eduki argiekin.
- ▶ **Implikatzea** Ikasleak jardueraren burutzapenean.
- ▶ **Akordioetara eta jardunbide adostuetara** heltzea.

MARKO teorikoa

INKLUSIORAKO ESKUBIDEA

Inklusioa, beste ezer baino gehiago, eskubidea da, baina argi dago oso kontzeptu zabala dela, eta argitu behar da. Definizio bat baino gehiago bildu eta kontuan har dezakegu, Pattersonena, adibidez: **“Norbanako bakoitzak bere balioa duela eta taldeko kide dela uste izatean oinarritutako bizitzeko modu bat da, elkarrekin bizitzeko era. Inklusioan oinarritutako eskola ikasle guztiak barne, partaide, sentituko diren eskola izango da”**. Horrek esan nahi du ikasle guztiak onartuak izan behar direla, bakoitzari bere berezitasuna aitortu behar zaiola, baloratu egingo direla, eta guztiek ere eskolan parte hartuko dutela, bakoitza bere gaitasunen arabera. Esan dugun bezala, FEVA Sen helburua, irakaskuntzari dagokionez, eskola inklusiboa da.

Eskola inklusiboa honela ulertu behar da:

- ▶ Ikasketarako eta parte hartzeko oztopoak identifikatzen dituen, ondoren murrizteko, eta, halaber bi prozesu horiek bultzatzeko baliabideak indartzen dituen.
- ▶ Ikasleen beharretan zentratzeaz gain, **eskolako testuinguruaren planteamenduei buruzko gogoeta** egiten duena.
- ▶ Ikasle guztiei, aurrera egiteko **hezkuntza alorreko aukerak eta laguntzak** ematen dizkiena.
- ▶ Ikasle guztiak ahalik eta irakaskuntza indibidualizatuenean parte har dezaten **prestatzen dituen ikasketak giroa** eskaintzen duena.
- ▶ **Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean** guztiontzat aberastasun gisa erakusten duena.
- ▶ Hezkuntzako Erkidegoak bere hartzen dituen **balio inklusiboak garatzen dituen**.
- ▶ **Desberdintasunean hezten duena**, bakoitzaren berezitasuna ezagutaraziz.
- ▶ **Aniztasunaren errespetuan, aitorpenean eta balioan hezten duena**.

Ikuspegi inklusiboak **aniztasuna irakaskuntza-ikasketa prozesua aberastuko duen elementu gisa** eta, ondorioz, giza garapena bultzatuko duen elementu gisa, baloratzea bilatzen du. Inklusioak **etengabeko hobekuntza prozesuarekin konpromisoa eta jarrera eskatzen du**; hezkuntzako kulturak, politikak eta jardunbideak aztertzeke eta horien gainean gogoeta egiteko eta oztopoak eta hobetu beharreko alorrak identifikatzeko esfortzua eskatzen du. Inklusioan aurrera egitea errespetu, tolerantzia eta elkartasun jarreretan aurrera egitea da; balioetan hezte da, baina balioak, erakustez gain, bizi egiten dira; elkarrekin biziz elkarrekin bizitzen ikastea da.

Helburu horiek errealitate bilakatzeko, eta desio onetan gera ez daitezen, beharrezkoa da Hezkuntza Erkidegoko agente guztiak informatzea, sensibilizatzea eta mentalizatzea, baita ikasleak ere; oso garrantzitsua da aniztasun hori ezagutzeko eta ulertzeko aukera izatea.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da irakasleek desberdintasunean hezteko erantzukizuna beren gain hartzea. **“Desber-**

dintasunek ikasteko aukera handiak eskaintzen dituzte. Desberdintasunak baliabide doakoa, ugaria eta berriztagarria dira”. (Robert Barth 1990, Stainback eta Stainback-etik hartua, 2004, 26. orr.).

Horrela, aniztasuna elkarrekintzak eta ikasketak aberasteko aukera gisa onartu ahal izango da. Beharrezkoa da “desberdintasuna sozializatzea”, informazioan eta elkarrekintzarako adibide egokietan oinarrituz.

“Ikasgelan denok nolabait desberdinak garela planteatzea, denak berdinak garela, “Kepa” izan ezik, planteatzea baino askoz ere aukera aberasgarriagoa da”.

(Parrilla, 2005, 121. orr.)

Helburua ez da urritasuna ulertzea soilik, beste pauso bat eman behar da: urritasuna duten pertsonetikiko balio positiboak garatzea. Urritasuna duten pertsonak humanizatu, errespetatu eta dignifikatu dituzten balioak; tolerantzia, elkartasuna, errespetua eta inklusioa bultzatuko duten balioak.

Zalantzarik gabe, ikasle guztiei desberdintasunari buruzko informazioa ematea eta gai hori lantzea, eguneroko jardunaren bidez urritasuna duten pertsonekin nola aritu erakustea, oso lagungarri izango da elkarbizitza sustatzeko, enpatia –besteen tokian jartzeko eta besteak sentitzen duena sentitzeko gaitasuna– garatzeko, pertsonak hobeto onartzeko eta, azken finean, urritasuna duen edozein pertsonaren bazterketa saihestuko du.

Haurtzarotik balioetan heztea oso garrantzitsua da helburu horiek lortu ahal izateko. Horrela, desberdintasunen irakaskuntza-ikasketa prozesua sustatzeko lana egiteko orduan irakasleentzat lagungarri izango diren orientabideak eman nahi dizkiegu.

“Aniztasunaz hitz egiteak berdintasunez hitz egitera garamatza. Aniztasuna gizakiari loturik dagoen berdintasunaren adierazpen jakin bat baino ez da”.

(Parrilla 2003; 98.orr.)

FEVASen HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN aldeko apustua egiten dugu, hau da, guztiontzako eskola, pertsona guztiak bere izango dituen eskola, pertsona horiek era batekoak edo besteakoak izanik ere. Ikasgela eta eskola inklusiboak sortzen baditugu, desberdintasunak errespetatu dituzten eta desberdin ikusten dena baztertuko ez duten **gizarte inklusiboak lor ditzakegu. Aniztasuna aberastasunerako benetako balio gisa hartu behar da.**

Onartu behar dugu inklusioa prozesu bat dela izan ere eskolak aniztasunari erantzuteko erarik egokienak bilatu behar baititu. Horretarako estilo profesionala beharko da, irakasleek adimen urritasuna duten pertsonetikiko jarrera eta ekintza positiboak sor ditzaten; beharrezkoak dira **beraien inklusio jardunbideei buruzko gogoeta egingo duten eta aurrera egiteko helburuak ezarriko dituzten profesionalak.**

“Esperientziarengatik badakigu posible dela ikasle guztiak ikasgeletan izatea, baldin eta hezitzaileek horiek hartzeko, adiskidetasuna sustatzeko, curriculum egokitzeko eta praktikak graduatzeko esfortzua egiten badute. Hala ere, erabateko inklusioa ez da beti erraza izaten. Ondorioz, beharrezkoa da helduek haurra baztertzearen bide erraza ez hartzea, gizarte inklusio egokia lortzeko soluzioak bilatzea baizik”

(Stainback eta Stainback, 1999, Parrillatik hartuta, 2005, 115. orr.)

ADIMEN URRITASUNA

Azken bi hamarkadatan aldaketa handia ikusi dugu urritasuna ulertzeko eran. Laguntzan eta gaitasun funtzionalen berreskuratzean zentratutako betidaniko planteamenduen ordean, urritasuna duten pertsonen bizitzako alor guztietan parte har dezaten, aukera berdintasuna saihesten duten oztopoak identifikatzean eta kentzean oinarritutako beste planteamendu batzuk ezarri dira.

Uste dugu gure gizartea antolatzeko modua aldatzen badugu, urritasuna duten pertsonen aurkitzen dituzten oztopoak asko murriztu daitezkeela, kasu askotan desagertu ere egin daitezkeela. Gaur egun inklusioa bultzatzen da, mugatuagoa den egokitzenaren helburuaren gainetik, hori baita urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta gizarte aktiboan parte hartzeko aukera ematen duen faktore nagusia.

Urritasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenaren (CIF, OME-ak 2001ean onetsia) arabera, urritasuna duen pertsona, zenbait faktore elkarrekin aritzen diren in-

guruan dago. Faktore horiek funtsezkoak izan daitezke aukera berdintasun egoera edo bazterketa egoera izateko. Sistema horren eraketa zehatza egin ahal izateko beharrezkoa izango da faktore horiek identifikatzea, haien jokaera aztertzea eta pertsonarekiko berdintasuna edo bazterketa lortzeko orduan duten eragina ikustea.

“Gure gizartea antolatzeko modua aldatzen badugu, urritasuna duten pertsonen aurkitzen dituzten oztopoak asko murriztu daitezkeela, kasu askotan desagertu ere egin daitezkeela”

CIF 2001ak bi azpi-talde nagusitan antolatzen du informazioa:

1. FUNTZIONAMENDUA ETA URRITASUNA

1 a) Funtzionamendua:

Norbanako baten elkarrekintzaren (“osasun baldintza” batekin) eta testuinguruko faktoreen alderdi positiboak adierazten ditu. Bertan sartzen dira Gorputzaren Funtzioak, Gorputzaren Egiturak, Jarduerak eta Parte hartzea.

1 b) Urritasuna:

Norbanako baten elkarrekintzaren (“osasun baldintza” batekin) eta testuinguruko faktoreen alderdi negatiboak adierazten ditu. Bertan sartzen dira Gorputzaren Funtzioen eta Gorputzaren Egituren gabeziak, Jardueran dauden mugak eta Parte hartzeko zailtasunak.

2. TESTUINGURUKO FAKTOREAK

Norbanako baten bizitzaren eta bizimoduaren oinarria dira. Bertan Ingurumenearekin eta Pertsonarekin erlazionatutako faktoreek dute eragina.



Adimen Urritasunari buruzko Elkarte Amerikarrak (AAIDD) honela definitzen du adimen urritasuna: "adimen funtzionamenduan zein egokitze jokaeran, egokitze gaitasun kontzeptuzkoetan, sozialetan eta praktikoetan adierazitakoan, muga esanguratsuak dituen urritasuna. Urritasun hori 18 urte bete aurretik sortzen da"

(Luckasson eta cols)

Definizio hori abiapuntutzat hartuta, **pertsona batek adimen urritasuna izan dezan hiru irizpide bete behar ditu:**


- Muga esanguratsuak adimen funtzionamenduan.
- Muga esanguratsuak egokitze jokaeran.
- Urritasuna 18 urte bete aurretik agertzea.

AAIDD-aren iritziz, **BOST PREMI-SA** hartu behar dira kontuan definizioa aplikatu ahal izateko:

- Funtzionamenduan ematen diren mugak, adin eta kultura berekoen erkidegoko giro tipikoen testuinguruarekin erlazionatuz hartu behar dira kontuan.
- Baliozko ebaluazioak kontuan izan behar ditu kultur eta hizkuntz aniztasuna, bai eta komunikazioarekin eta zentzumenekin, trebezia motoreekin eta jokaerarekin erlasionaturiko desberdintasunak ere.
- Mugak, sarri askotan, bat datoz norbako baten gaitasunekin.
- Mugak deskribatzeko orduan xede garrantzitsua da beharrezko laguntzen profila garatzea.
- Eman beharreko laguntzak denbora luzean ematen badira, kasu gehienetan urritasuna duen pertsonaren bizitza funtzionamenduak hobera egingo du.

Beraz, eredu teorikoa aldatu egiten da aurreko definizioekin alderatuz. **Norbanako baten adimen mugak ez dira nahiko norbait adimen urritun gisa baloratzeko. Kontuan izan behar da pertsonaren eta inguruaren arteko elkarrekintza.** Inguruari garrantzia ematearen ikuspegi hori da, baita ere, 1978an Warnock txostenak hartu zuena, hezkuntza, behar berezien kontzeptuan sartzean eta behar horien alderdi erlatiboa eta interaktiboa azpimarratzean.

AAIDD-ak kontuan hartzen duen adimen urritasunaren eredu teorikoa honako hau da:



Dimentsio bakoitzeko garrantzitsuena laburbilduz:**1. Adimen gaitasunak:**

Adimena gaitasun orokor gisa hartzen da, eta haren barruan sartzen dira arrazoiketa, plangintza, arazoen konponketa, kontzeptu abstraktuen pentsamendua, ideia konplexuen ulerpena, azkartasunez ikastea eta esperientziatik ikastea.

2. Jokaera moldatzailea:

Pertsonak, beraien eguneroko bizitzan funtzionatzeko ikasi dituzten gaitasun kontzeptuzkoen, sozialen eta praktikoen multzoa da.

Kontzeptuzko trebezien, trebezia sozialen eta praktikoen ADIBIDEAK:**A. Kontzeptuzkoak**

- ➔ Hizkuntza (hartzailea eta adierazlea)
- ➔ Irakurketa eta idazketa
- ➔ Diruarekin erlazio-tutako kontzeptuak
- ➔ Zer egin nahi duten jakitea

B. Sozialak

- ➔ Interpertsonala
- ➔ Erantzukizuna
- ➔ Autoestimua
- ➔ Sineskortasuna (engainatua edo manipulatu izateko aukera)
- ➔ Xalotasuna
- ➔ Arauak jarraitzea
- ➔ Legeak betetzea
- ➔ Biktimizazioa saihestea

C. Praktikoak

⇒ **Eguneroko bizitzako jarduerak**
Jatea, transferentzia / mugikortasuna, garbitzea, janztea

➔ **Eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak**

Janariak prestatzea, etxea garbitzea, garraioa, botikak hartzea, dirua erabiltzea, telefonoa erabiltzea

- ➔ Lanbide hastapeneko trebeziak
- ➔ Inguru osasungarria izatea

3. Parte hartzea, interakzioak eta gizarte rola:

Dimentsio honek, norbanakoak erkidegoan duen parte hartzea eta bertan betetzen duen tokia ebaluatzen du.

4. Osasuna (fisikoa, burukoa, etiologia):

Osasunaren Mundu erakundeak emandako definizioa kontuan izanik, erabateko ongizate fisikoa, burukoa eta soziala dela ulertzen da.

5. Testuingurua (giroak eta kultura):

Dimentsio honek, urritasuna duen pertsonak egunero bizi dituen baldintzak deskribatzen ditu. Gutxienez hiru maila biltzen dituen Bronfenbrenner-en eredu ekologikoan oinarritzen da:

• **Mikrosistema:** hurbileko inguru soziala, pertsona, familia eta inguruko beste zenbait pertsona barne.

• **Mesosistema:** auzokideak, erkidegoa eta hezkuntza edo laguntza zerbitzuak eskaintzen dituzten elkarteak.

• **Makrosistema:** kultur patroia orokorrak, gizarte, herrialdea edo eragin sozio-politikoak.

“Inguru erabilerrazen egokitzapena eta diseinua ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonen funtzionamendua hobetzeko”

Kontzeptu berri horretan, bere gaitasunetan muga jakin batzuk dituen pertsonaren funtzionamenduan inguruak duen garrantzia aitortzen da. Hau da, **atzerapena ez dago pertsonan edo inguruan, baizik eta pertsonak, bere inguruan aritzeko dituen gaitasunen ondoriozko funtzionamenduan.**

Pertsonen gaitasunak genetikoki markaturik datoz, baina gaitasun horiek garatzea ez da genetikaren kontu soila: testuinguruak ere badu eragina. Beraz, ingurua lagungarria edo ez hain lagungarria izan daiteke. Inguru erabilerrazen egokitzapena eta diseinua ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonen funtzionamendua hobetzeko.

Garrantzitsuena, pertsona urritasunaren gaitetik dagoela ulertzea da; beste ezer baino lehen pertsona bat ikusi behar dugu, bere eskubideak onartu eta garapenerako aukerak eskaini.

AUTISMOAREN ESPEKTROAREN NAHASKETAK (TEA)

TEA hitzak dimentsio desberdinen jarraipena azpimarratzen du, kategoria bakarra kontuan hartu beharrean. **TEA duten pertsonengan era kualitatiboan aldatzen da gizarte elkarrekintzarako, komunikaziorako eta irudipenerako gaitasunen multzoa.** Ondoren laugarren faktorea ere sartu zen: jardueren eta interesen patroik errepikakorrak.

Horrek esan nahi du TEA duten baina oinarrizko sintoma anitzak dituzten pertsonak aurkituko ditugula:



“Nahasketa neuro-psikiatrikoak dira, mota askotako adierazpen klinikoak dituzte eta nerbio sistema zentralaren garapenerako faktore anitzeko disfuntzioen ondorio dira. Zergati organiko desberdinak dituen adierazpen kliniko espektro zabal horren ezaugarria zenbait funtzio fisiologikoren eta neuropsikologikoren ukipen nuklearra da”

(Autismo-Europa)

1. Elkarrekiko gizarte elkarrekintzaren garapeneraren nahasketa

Pertsona batzuegan gizarte isolamendua ikusten dugu; beste batzuk pasibo egoten dira, besteenganako interes gutxi erakutsiz. Pertsona batzuek era arraroan ezar ditzakete gizarte harremanak. Orokorrean, gizartearen arauak ulertzeko eta emozioak, pentsamenduak eta interesak konpartitzeko zailtasunak izaten dituzte. Ez dituzte ulertzen esanahi bikoitza duten esaldiak, zailtasunak dituzte besteen intentzioez jabetzeko. Hori guztia dela eta, pertsona horientzat zaila izaten da gizarte harremanak ezartzea.

2. Ahozko komunikazioaren eta ahozkoa ez denaren nahasketa

Pertsona batzuek ez dute inolako hizkuntza motarik garatzen; beste batzuk sistema alternatiboak edo komunikazio handigarririk erabiliz komunikatzen dira.

Sarri askotan, beraien hizkuntz trebezien era eta edukia desberdinak izaten dira. Batzuek ekolalia izan ohi dute, hau da, hitzen edo esaldien errepikapena; inbertsio

pronominala eta hitzen asmakuntza.

Aurpegiko adierazpenak, jarrerak edo keinuak ulertzeko zailtasunak izan ohi dituzte; jokaera horiek gizarte elkarrekintza zailtzen dute. Ez dute hizkuntza erabiltzen esperientziak konpartitzeko. Zailtasunak dituzte elkarrizketa bat hasteko edo jarraitzeko; ez dituzte txantxak, ironia eta esanahi bikoitzak ulertzen.

3. Interesen eta jokaeren errepertorio mugatua

Pertsona gehienek ez dute ohiko simulazio, fikzio edo fantasia jolasa garatzen, eta horrek asmo mugatzen du besteen emozioak eta intentzioak ulertzeko gaitasuna. Oso zaila egiten zaie gertatu behar dena aurrez ikustea.

Jokaeraren patroiak errepikakorrek eta errirozkoak dira, eta ezohiko objektu bitxiak hurbileko izan ditzakete. Pertsona batzuek interes bereziak izaten dituzte. Horrez gain, ez ohiko sentsibilitatea erakusten dute sentimenteren estimuluaren aurrean. Mugimendu estereotipatuak izaten dituzte: hegaz egitearen itxura, eskuak igurztea, balantza egitea...

Marko teorikoa

Nahasketa horiez gain, TEA duten pertsonak loturiko bigarren mailako sintomak izaten dituzte. Ohikoenak honako hauek izaten dira: krisi epileptikoak, elikaduraren nahasketak, loaren nahasketak, inpulsibitatea, hiperaktibitatea, adimen urritasuna...

Autismoaren jatorria oso argi ez dagoen arren, jatorri biologikoa duen nahasketa dela uste da. Baron-Cohen eta Bolton-en arabera, zergati biologikoen artean faktore genetikoa, infekzio birikoak eta haurdunaldian edo erditzean gertaturiko zailtasunak daude; horietako edozeinek sor dezake TEA eragiten duen buru kalte arina. Zergati biologiko horiek ez dira haur guztiengan aurkitzen, eta horrek esan nahi du oraindik beste zenbait faktore biologiko aurkitu gabe daudela.



TEAk eragin handiagoa du gizonezkoen artean (hiru bider gehiago ematen da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino), baina emakumeek pronostiko larriagoa izaten dute. Ez dakigu zergatik dauden desberdintasun horiek gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Joaquín Fuentesen iritziz (Gipuzkoako Poliklinikako haur eta gazte psikiatria zerbitzuko burua), Euskadin 250 haurretatik 1ek TEA-ren bat erakusten du, kasu arinenetatik hasi eta larrienetaraino.

TU- toretzak

Ikasle talde bakoitzak, bere ezaugarriak eta beharrak ezagutzen dituen irakasle tutore bat du bere eskola bizitza osoan. Tutore horren lana ezinbesteko laguntza da ikasleentzako trebakuntza integralerako, izan ere, hezkuntzako etapa bakoitzean ezaugarri edo jokaera desberdinak dituen arren, beti ere ahalegina egingo baitu ikasgelan harmonia egon dadin helburuen, edukien eta taldearen sozializazio prozesuaren artean.

Gure iritziz tutoreen lana **prozesu jarraitua da eta ikasleei munduaz eta besteez duten ikuspegi propioa eraikitzen lagundu behar die**; horrek diziplina anitzeko jarduerak burutzea eskatzen du, izan ere, **tutoretzak hezkuntza ekintza eta irakas-kuntza lana osatzen baititu**.

UNESCO-ren aurrean aurkeztutako XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordearen txostenaren arabera “hezkuntza, bizitza osoan, lau zutabetan oinarritzen da: **ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi**”. Horretarako tutorearen lana funtsezkoa da; ikasleari laguntzen dio hezkuntza prozesu osoan, ezagutzaren eta ikasketaren aldeko jarrerak bultzatuz eta sormena, autonomia eta erantzukizuna sustatuz.

“Desberdintasuna ez da bakoitza den izaki errepikaezin horren adierazpen soila, kasu askotan, izatera heldu ahal izanaren, izateko aukera gehiago edo gutxiago izatearen eta gizarte, ekonomia eta kultura alorretako ondareetan parte hartzeko adierazpena ere bada”

(Gimeno Sacristán, 1999, López Melerotik hartua 2004, 69. orr.)



Tutoreak ikaslea bere ikasketa prozesuan bertan inbolukratzen du ikasgai bakoitzaren programan beren beregi biltzen ez diren trebatze eta heltze prozesuaren zenbait alderdi lantzen baititu. Horrela, **balioetan hezten du eta ikasleentzat eredu da, erreferente garrantzitsua**. Helduak beti dira funtsezko elementua; esaten eta egiten dutena, nola jokatzeko duten eta nola zuzentzen diren urritasuna duten pertsonengana, imitatzeko eredu izango dira ikasle guztientzat. Hau da, **haurrek helduengan ikusten dituzten jarre-
rek eta jokaerek zerikusi handia izango dute urritasuna duten pertsonen balioak ezartzeko orduan. Hori guztia “curriculum ezkutuaren” parte da**. Oso garrantzitsua da argi izatea eta ondorio hori ezagutzea, desberdintasuna onartuko, errespetatuko eta aitortuko duen eredu inklusiborantz aurrera egin ahal izateko.

Tutoretzak oso une egokia dira eskolako antolakuntzan pertsona eta gizarte mailako trebakuntza hedatuko duten zenbait gai lantzeko orduan. Hori dela eta, tutoretza lana, ongi planifikatuta baldin badago, oso erabilgarri izan daiteke ikasleak adimen edo/eta garapen urritasunaren inguruan sentsibilizatzeko.

Gure esperientziak erakutsi digu **irakasleek, gai jakin batzuen inguruan, adimen urritasunaren inguruan, adibidez, sentsibilizatu ahal izateko eta ideia garrantzitsuak transmititu ahal izateko, horrekin bat datozen sinesmenak eta jarrerak izan behar dituztela, seguru sentitzeaz gain.**

Horretan laguntzeko oinarritzko ezagutzak emango ditugu, eta baita ikasgela barruan erabili beharreko zenbait material, ikasleak sentsibilizatzeko eta beraien artean urritasuna duten pertsonetik jarraera positiboak sortzen laguntzeko.

Emaitzak lortzeko oso garrantzitsua da profesionalek adimen edo/eta garapen urritasuna duten pertsonengan sinestea eta eskolan elkarrekintzarako eredu positibo gisa agertzea, horrela urritasuna duten pertso-

Informazioaren eta sentsibilizazioaren bidez berezko laguntza sortuko dira ikasgelako ateak zeharkatzen dituzten eta adimen urritasuna duten pertsonentzat.

nak ulertzeko eta beraienganako ulermen eta arreta giroa sortzeko.

Hau da, **tutoretzak eguneroko jardunaren osagarria dira; ikasleak onespenerako prestatu ahal izateko, irakasleek aniztasuna eta urritasuna onartu behar dituzte.**

Ezinbestekoa da irakasleek ikasleak motibatzea besteak onar ditzaten. Beraz, desberdintasunak aurkitzen, ezagutzen eta errespetatzen lagundu beharko diete, gelan horretarako giro egokia ezarriz. Guztien errespetuan eta onarpenean hezi behar dituzte, elkarlanean eta elkarrekiko laguntzan eta erantzukizunean. Komenigarria da **informazioaren eta sentsibilizazioaren bitartez berezko laguntzak sortzea ikasgelako ateak zeharkatzen dituzten eta adimen urritasuna duten pertsonentzat.**



Adimen edo/eta garapen urritasuna duten pertsonak dauden ikasgeletako ikasleek ezagutzen dute zer den desberdintasuna, beraien ideiak sortu dituzte urritasuna duen pertsonarekin izandako esperientziaren arabera, helduei pertsona horiekin ikusten dieten jarreraren arabera eta beraien gurasoen eta inguruko iritzia kontuan izanik. Kasu horretan, ikasleek beraien informazioa jaso dute, eta beha-

rezkoa da irakasleek, tutoretzen bitartez, ikasleen iritzia ezagutzea, iritzi hori aztertzea eta egituratzea eta eman beharreko azalpenak ematea. **Garrantzitsua da, baita ere, familiari baimena eskatzea edozein ekintza edo jarduera burutu ahal izateko.**

Irakasleei ematen zaien laguntza osatzeko, **“sareko” lanaren** edo elkarlanaren ideia gomendatuko genuke. Kasu horretan, urritasuna duten pertsonak beraiak, auto-kudeatzaileen taldeen bitartez, une batzuetan tutoretzetan har dezakete parte, beraien esperientziak ezagutarazteko... Auto-kudeatzaileak, adimen urritasuna duten pertsona helduak dira, eta aldian behin beraien elkarteetan biltzen dira, komunikaziorako trebeziak jasotzeko, pertsona eta gizarte mailan autonomia handiagoa lortzeko eta beraien kabuz hitz egiteko eta erabakitzeak aukerak zabaltzeko. Horrez gain, beraien eguneroko bizitzan erabakiak hartzen eta pertsona eta hiritar gisa beraiei ere dagozkien gai praktikoen inguruan eztabaidatzen ere ikasten dute. Adimen urritasuna duten pertsonen elkarteetan oso ohikoa da talde horiek eratzea.

“Aniztasunaz hitz egiteak berdintasunez hitz egitera garamatza. Aniztasuna gizakiari loturik dagoen berdintasunaren adierazpen jakin bat baino ez da”.

(Parrilla, 2003:98).

INFOR-
MAZIO
Osagarria
Adimen urritasuna

ATAL HONETAN HAINBAT LIBURUREN ETA HAINBAT WEB GUNEREN ERREFERENTZIA SARTUKO DUGU, LAGUNGARRI IZAN DAITEZKEELAKO IRAKASLEEK ADIMEN URRITASUNARI ETA GARAPENAREN BESTE NAHASKETA BATZUEI BURUZ GEHIAGO JAKIN DEZATEN

Déjame que te hable de los niños y niñas con autismo de tu escuela. Hernández, J; Martín, A. y Ruíz, B. (2007). Madrid: Teleno Ediciones, S.L.

Liburu hori lagungarri izan daiteke autismoaren espektroko nahasketa duten ikasleen aurrean erantzun egokia emateko.

¡Mírame! Forma de ser. Forma de actuar. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

¡Escúchame! Relaciones sociales y comunicación. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

¡Atiéndeme! Ocio y aprendizajes. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

Andresen bitartez, garapenaren nahasketa jeneralizatua (GNG-TGD) diagnostikatu zaion kasu errealeran hurbiltzeko aukera emango diguten hiru liburu.

Actividad física adaptada: El juego y los alumnos con discapacidad. Ríos Hernández, M; Blanco Rodríguez, A; Bonany Jané, T. y Carol Gres, N. (2006). Barcelona: Paidotribo.

Liburu honetan zenbait sentsibilizazio jolas biltzen dira, aniztasunaren errespeturako bide gisa.

“Valora la diferencia” ikasgelatik urritasuna lantzeko prestatu den hezkuntza programa da. Jerezko Udalak, Omad bulegoaren (Oficina Municipal de Atención a la DISCAPACIDAD) bitartez, honako gune honetatik jaitsi daitezkeen programa hauek bultzatzen ditu:

<http://www.omad.jerez.es/index.php?id=11>

Oinarrizko premisa honako hau da:

- Bazterketa ezaren gehi ekintza positiboaren emaitza gizartratzea da.

Lan horiek lantzeko honako material hauek jaitsi daitezke:

- Hezitzailearen Gidaliburua - Guía del educador.

- Lehen Hezkuntzako Unitatea - Unidad Primaria.

- Bigarren Hezkuntzako Unitatea - Unidad Secundaria.

- Batxilergoko Unitatea - Unidad Bachillerato.

Jarduera gehienak gehiago zentratzen dira sentimen urritasunetan edo urritasun fisikoetan.

La discapacidad en el cine. Alegre de la Rosa, O.M. (2003). Barcelona. Ediciones Octaedro.

Liburu horrek Hezkuntza Bereziak zinean izan duen historia laburbiltzen digu. Filmak laukietan agertzen dira sailkatuta. Eta zinea irakaskuntzarako baliabidea dela kontuan izanik, liburua-aren amaieran zenbait gidoi ditugu, ikasleekin urritasunaren gaia landu ahal izateko.

Web gune interesgarriak:

FEVAS Adimen Urritasuna duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa.
www.fevas.org

FEAPS Confederación Española de Organizaciones a favor de las personas con discapacidad intelectual
www.feaps.org

Attem Asociación para el tratamiento de personas con alteraciones del desarrollo
www.attem.com

CERMI Comité Español de Representantes de personas con discapacidad
www.cermi.es

Confederación Autismo España
www.autismo.org.es/AE/default.htm

Creena Centro de Recursos de Educación Especial de Navarra. Departamento de Educación del Gobierno de Navarra
www.pnte.cfnavarra.es/creena/003Documentacion/descargar.html

Discapnet El portal de la discapacidad
www.discapnet.es

Inico Instituto Universitario de Integración en la Comunidad
inico.usal.es

Junta de Andalucía Los trastornos generales del desarrollo. Una aproximación desde la práctica
www.juntadeandalucia.es/educacion/nav/contenido.jsp?pag=/Contenidos/PSE/orientacionyatenciondiversidad/educacionespecial/Publicaciones

NeedDirectorio. Recursos para la Atención a la Diversidad. Región de Murcia Consejería de Educación y Ciencia
www.needirectorio.murciadiversidad.org/

Real Patronato sobre Discapacidad
www.rpd.es

LEHEN hezkuntza



Helburua: Lehen hezkuntzako etapan, hiru zikloetan, tutoretzen jardueraren bitartez, ikasleak honako hau lortzea bilatzen da:

- 1** Ezintasun fisikoak, sentsorialak eta adimenekoak ezagutzea.
- 2** Pertsona bakoitzari ematen zaion laguntzaren garrantzia ulertzea, pertsona horrek zenbait egoeratan parte hartu ahal dezan.
- 3** Ikasleen arteko laguntzaren inguruko jardunbide onak garatzea.

Etapa honetan ziklo bakoitzaren arabera, adina kontuan izanik, planteatu ditugu jarduerak. Lehen eta bigarren zikloko materialak hirugarren ziklokoetatik bereizita gomendatzen dira. Jarduera proposamen batzuetan irakasleek aukeratu beharreko zenbait aukera eskaintzen dira, talde bakoitzaren ezaugarrien arabera.



1 jarduera

Adimen urritasunari buruzko identifikaziorako eta gogoetarako posterra (FEVASEk egin)

Panela aurkeztu behar da, ikasleekin bertan ikusten diren **irudiei buruz hitz egiteko eta gaia, urritasunaren inguruan gogoeta egitera** eman go gaituzten irudietan zentratzeko. Hainbat urritasun identifikatuko dugu eta pertsona horiei zer gertatzen zaien esan behar dugu.

tan adimen urritasuna duten pertsonen beraiek sentitu duten gauza bera sentitzen dutela (ez dute ulertzen zer eskatzen zaien) eta oso garrantzitsua dela laguntza ematea zailtasun bat gainditu ahal izateko. Uler-tu behar dute pertsonen laguntza egokiak ematen zaizkien neurrian, ikasgelan eta ikastetxean parte hartzeko lana errazten ari garela.

Ikasleen iritziak, gogoetak eta beraiek proposatzen dituzten ideiak, bildu eta kontuan izango dira, eta horietan oinarrituko gara lan egiteko eta ezagutza eraikitzeko.

Batzuetan zaila da ikasleek ulertzea zer den adimen urritasuna izatea, eta oso garrantzitsua da esperientzia zehatzen bitartez ezagutzea. **Aukera bat, testu bat beraiek ezagutzen ez duten hizkuntza batean (alemanez, txinoz...) idaztea izan daiteke.** Sentitu dutenari buruz gogoeta egin daiteke. Irakasleak azal dezake sarri asko-




Jardueraren
Ondorioa

**Urritasun mota bat baino gehi-
go dago, eta laguntza egokiak
hobeto har dezakete parte.**

**Urritasun duten pertsonekin
ikasteko aukera dugu.**

DESBERDINTASUNA BIZITZEA ETA LAGUNTZAREN GARRANTZIA SENTITZEA




2 jarduera

Lehen Hezkuntza

JARDUERA 2

Desberdintasuna bizitzea eta laguntzaren garrantzia sentitzea



Zenbait jarduera egingo ditugu, **desberdintasuna esperimatzeko**. Zirkuitu bat egin daiteke eta bertan ikasleak, bere zailtasuna esperimatzearaz gain, ikaskideren bati laguntzarekin lotutako funtzioak bete ahal izango ditu, ikusten diren urritasunetatik hasita.

Adibidez, zati bat baino gehiago dituen **zirkuitu bat egitea: begiak estalita joan, gurpildun aulkian ibili, zeinuen bitartez komunikatu...** Zirkuitua egiten duten lehen aldiak bakarrik egingo dute. Bigarren ibilbidean laguntza eskatzeko aukera izango dute.

Gure ustez beharrezkoa da, nolabaiteko urritasunak berarekin dituen zailtasunak esperimatzearaz gain, laguntzaren garrantziaz jabetzea. Horrela ikasleei erakutsi nahi zaie behar bezalako laguntzekin trabak txikiagoak direla, espazioan segurtasunez mugitu ahal direla, parte hartzeko, komunikatzeko... aukerak dituztela.



Jardueraren
Ondorioa

**Zenbait muga
esperimatzearaz
eta laguntzaren
garrantzia
baloratzea.**



OZTOPOAK IDENTIFIKATUZ



3 jarduera

Lehen Hezkuntza

JARDUERA 3

Oztopoak identifikatuz

Lehen eta bigarren zikloa



Ikasleak kontzientziatu behar dira, urritasuna eta desberdintasunak existitzen direla ikus dezaten, baina inguruak baldintzatzen duela urritasunak sortzen duen muga. Oso garrantzitsua da haurtzarotik garbi izatea pertsona-ingurua elkarrekin-tza eta, batzuetan, urritasuna duten pertsonen parte hartzea errazteko inguruak aldatzeak duen garrantzia.

Material gomendatua:

“Por cuatro esquinitas de nada”.

Ruillier, J. (2005). Bartzelona: Editorial Juventud, S.A.

Adin gomendatua: 6 urtetik aurrera.

Liburu hau baliagarri izan daiteke desberdintasunak, ingurua aldatzearen garrantzia, etab. lantzeko.

► Ipuinaren laburpena:

Hainbat koloretako borobiltxoak daude, baina bat laukitxoa da. Borobiltxo guztiak ate borobiletik sartzen dira etxe handira, baina laukitxoa kanpoan geratzen da, ezin duelako ate horretatik sartu.

Laukitxoak bere lagun borobiltxoekin sartu nahi du barrura, baina kanpoan geratzen da, luzatuz, okertuz... eta borobiltxoek, barrutik, borobila izan dadin esaten diote. Laukitxoa ahalegintzen den arren, ezinezkoa da. Borobiltxoek izkinak ebakitzeko esaten diote, baina laukitxoak ez du nahi, min handia egingo liokeelako.

Borobiltxoak, denbora luzez hitz egin eta gero, konturatzen dira ez dela laukitxoa aldatu behar dena, atea baizik. Horrela, lau izkinatxo mozten dizkiote, besterik gabe, laukitxoa bere adiskide borobiltxoekin sartu ahal dadin etxe handian.

Proposatutako jarduerak

► Ipuina kontatu ondoren egin daitezkeen jarduerak:

1. Saia zaitetze beste egoera batzuetan pentsatzen. Egoera horietan pertsona batzuek zer baitetan parte hartu ezinik geratzen dira, beraien ezaugarriak direla eta.

Gai honetan beharrezkoa izango da irakasleek adibideak ematea. Adibidez, gurpildun aulkian mugitu behar den eta zenbait tokitara sartu ezin den jendea, dendetan Braille alfabetoz markaturiko produkturik ez dutenitsuak, hitz egin ezin duen eta SPC sistema, Bliss sistema, hitz konplementatua bezalako komunikaziorako sistema alternatiboak ez dituzten pertsonak, motelagoak izategatik jolasetatik eta jardueretatik kanpo geratzen direnak, etab.

2. Zer egin dezakegu pertsona horiek gainerakoekin jolastu ahal dezaten eta toki berberetara joan ahal daitezen?

Ikusi behar dugu konponbidea ez dela pertsona baten ezaugarri indibidualak aldatzea, hori ezinezkoa izango litzatekeelako, ipuinean gertatzen den bezala, hau da, laukitxo borobiltxo bilakatzea, eta ezinezkoa da, baita ere, 1,60 m. neurtzen duen pertsona batek 1,80 m. neurtzea. Konponbidea inguruan dago; adibidez, atak handiago egitea, jende guztia igaro dadin, hau da, oztopo fisikoak zein burukoak saihestuz, gizarte honetan denontzat tokia egon dadin.

3. Ipuina antzestu ere egin daiteke.



Pertsona batzuek, laukitxoari gertatzen zitzaion bezala, ezin dira ate borobil batetik igaro, ez baitira sartzen. Ate hori eskolako atea, jolasetan parte hartzeko atea... izan daiteke. Konponbidea atea aldatzea eta handiagoa egitea da, guztiak sar daitezen, jolasaren arauak aldatu behar dira, guztiek parte hartu ahal dezaten.



Desberdina naiz...

Lehen eta bigarren zikloa

Talde osoari urritasuna hurbildu behar diogu, urritasunen bat duten protagonistak dituzten ipuinak irakurriz.

Material gomendatuak: Hiru proposamen eskaintzen dira, **Down syndromea** duten ikasleen gaia lantzeko. Proposamen bakoitzean irakurketa bat eta irakurketari buruzko jarduerak proposatzen dira.

Adin gomendatua: 6 urtetik aurrera.

► 1. PROPOSAMENA

“Berezia naiz lagunentzat” Sierra I Fabra, J. y Caruncho, I. (2003). Bilbo: Giltza.

“Zer izango naiz handia naizenean?” Sierra I Fabra, J. y Caruncho, I. (2003). Bilbo: Giltza.

“Nire anaiak eta ni” Sierra I Fabra, J. y Caruncho, I. (2003). Bilbo: Giltza.

Kataluniako Down Syndromearen Federazioak sortutako ipuinak dira, sindrome horren berezitasunak ezagutarazteko.

► Ipuinen laburpena:

Hiru liburu horietan egileak Paulo aurkezten digu, Down Syndromea duen haurra.

“Berezia naiz lagunentzat”

ipuinak erakusten digu pertsona guztiak trebeak garela gauza batzuetan, baina beste batzuk zailago egiten zaizkigula. Ez dago dena ongi egiten duen inor, eta hoberena, zerbait egiten ez dakigunean, ikaskideei laguntza eskatzea da.

“Zer izango naiz handia naizenean?”

Paulok duen ardurra da. Polizia, suhiltzaile, abokatu, igeltsero, dendari, astronauta... dira burura etortzen zaizkion lanbideetako batzuk. Parke batean gizon zahar batekin elkartzen da, eta hark argitzen dizkio bere zalantzak.

“Nire anaiak eta ni”

Iñaki Pauloren anaia nagusia da, eta Mikel gazteena, eta liburuan hiru anaia horien zenbait abentura kontatzen zaizkigu.

Proposatutako jarduerak**“Berezia naiz lagunentzat”****1. Ipuina laburbildu.****2. Egin gogoeta Paulok dituen akatsei eta bertuteei buruz.**

Azpimarratu behar da Paulok, gainerako pertsona guztiak bezala, gauza batzuk ondo egiten dituela, eta beste batzuk egitea gehiago kostatzen zaiola.

Pertsona guztiak zerbeit ikas dezakegu beste pertsonengandik.

3. Egin zerrenda bat, eta jarri bertan zuek ongi egiten dituzuen eta ez hain ongi egiten dituzuen gauzak.

Adibidez: Ona naiz dantzan, futbolean... Ez naiz oso trebea txistek kontatzen, igerian...

Jende gutzia trebeagoa da gauza batzuetan beste batzuetan baino. Hori egiaztatu daiteke ikasle guztien zerrendak aztertuta.

“Zer izango naiz handia naizenean?”**1. Egin gogoeta, ikasleek nagusitan izan nahi dutenaren inguruan.**

Azpimarratu behar da, garrantzitsuena, egiten duzun horretarako balio izatea dela eta Paulok, gainerako guztiak bezala, lor dezake.

2. Zer iruditzen zaizue emakumeak Paulorekin duen erreakzioa zabuetan dagoenean?

Badago jendea, laguntzeko asmoz, gehiegi babesten duena, eta oraingo honetan Paulok behar bezala erreakzionatzen du, zabuen ilaran jarrita, gainerako guztiak bezala.

3. Zer ikasten du Paulok parkeko gizon zaharregandik?

Bizitza sentitu eta gozatu behar dela, eta harro sentiarazten dizuna egin behar dela. Hau da, gauza bat edo beste eginda ere, zer baitetarako balio izatea.

“Nire anaiak eta ni”**1. Galdetu ikasleei zenbat anai-arreba dituzten; ikasleek ikusi behar dute pertsona bakoitza bakarra eta gainerako guztien desberdina dela.**

Azpimarratu pertsona batzuek azkarrago ikasten dutela eta beste batzuei gehiago kostatzen zaiela.

2. Zer iruditzen zaizue emakumeak izan zuten erreakzioaz hiru anaiak paseatzera irten zirenean?

Hitz egin Paulo bezalako pertsona bat ikustean izaten ditugun aurreiritziei buruz.

3. Idatzi istorio bat ipuinean aukeraturako bineta batean oinarrituz.**2. PROPOSAMENA**

“Inés crece despacio” Helft, C. (2003).

Bartzelona: Ediciones Serres, S.L.

Adin gomendatua: 6 urtetik 8 urtera.

► Ipuinaren laburpena:

Liburu horrek Inesen eta bere familiaren abenturak kontatzen dizkigu. Ines aurkezten digute, Down sindromea duen neskatua, jaiotzen denetik nerabe bihurtzen den arte. Liburu honen bitartez tolerantziaren balioa transmititu daiteke.

Proposatutako jarduerak

Lan egiteko galderak:

1. Zer da Down sindromea?

Down sindromea duten pertsonak, 46 kromosoma izan beharrean (23 amarengandik jasoak eta 23 aitarengandik jasoak) 47 dituzte, hau da, bat gehiago. Aitak edo amak 21 zenbakiko bi kromosoma jartzen dituzte, eta, ondorioz, bikotearenarekin gehituta, kromosoma gehigarria sortzen dute 21 bikotean.

Liburuan Down sindromea gaixotasun gisa aurkezten da, baina ikasleei argi utzi behar zaie ez dela gaixotasuna, eta ezinezkoa dela sendatzea. Sindromea da, hau da, pertsonaren garapenean agertzen diren sintoma eta zeinu berezi multzoa.

Oso garrantzitsua da azpimarratzea Ines bezala Down sindromea duten pertsonak gai direla ikasteko eta esfortzuak egiteko. 41. orrialdean agertzen den esaldia bildu nahi dugu: “... guk guztiok bezala, izaera, kalitateak eta akatsak ditu”.

2. Zuen ustez nola erreakzionatuko zenukete Down Sindromea duen anai-arreben bat jaioko balitzaizue?

3. Nor da Roberto?

Down sindromea duen pertsona da, 30 urtekoa. 6 eta 8 urte arteko haurren begiralea da eskola espezializatu batean.

4. Zuen ustez nolakoa izango da orain Inesen bizitza?

5. Marraztu Ines eta bere familia.

6. Egin idazlan bat, Ines zuen ikaskidea dela imajinatuz.

▶ 3. PROPOSAMENA

¿Quién es Nuria? Cadier, F. (2005). Zaragoza: Edelvives.

Adin gomendatua: 6 urtetik 8 urtera.

Federación Española de Síndrome de Down de España izenekoak eta Edelvives argitaletxeak argitaratu dute ipuin hau. Bertan, Nuriak, Down sindromea duen neskato batek, eskolan bizi dituen abenturak kontatzen ditu.

➔ **Ipuinaren laburpena:**

Nuriak bere bizimodua nolakoa den kontatzen digu. Badaki besteen desberdina dela, kaletik begiratzen diotelako. Bere familiaz hitz egiten digu (gurasoak, Sebastian anaia eta Elsa arreba).

Hasiera batean hezkuntza bereziko eskola batean dago eta bertan murgortu, musika entzun eta zaldi txikietan ibiltzen da. Baina eskolako zuzendariak erabakitzen du astean behin bere auzoko ikastetxeko lehen hezkuntzako klasera joan behar duela. Lehenengo egunean margotzen aritu ziren, baina badirudi beste ikasleen gurasoek kexak aurkeztu zituztela, Nuriak ikasgela osoaren maila jaitsiko zuelako. Hala ere, hurrengo astean Nuria berriro ere ohiko ikastetxera joan zen eta oraingo honetan zaldi txikietan ibiltzera joan ziren.

Jarduera horretan Nuria besteak baino trebeagoa zen, eta gainerakoak bere atzetik zihoazen. Esperientzia horren ondoren, gainerako haurrak Nuriarengana hurbiltzen ziren, eta adiskide asko egin zituen. Orain egunero joaten da gainerako umeak joaten diren ikastetxe berera.

Proposatutako jarduerak

1. Laburbildu ipuina eta idatzi zuen arreba deitu duten esaldiak.

2. Ezagutzen al duzue Down sindromea duen haurrik?

Ez badute ezagutzen, haien esperientzien berri izateko, honako hau azaldu behar diegu: beraiek bezala eskolara doazen, jolasten duten... PERTSONAK dira.

3. Zer iruditzen zaizue Nuria bere nebarrebak doazen ikastetxe berera (ohiko ikastetxea) joatea?

Egin gogoeta pertsona guztiek hezkuntza jasotzeko duten eskubideari buruz. Muturreko egoera batzuetan zenbait haur hezkuntza bereziko ikastetxeetara joaten dira, baina orduan ez dute aukerarik izaten urritasunik gabeko ikaskideekin egoteko eta desberdintasunak ikasteko eta ulertzeko.

4. Ezagutzen al duzue hezkuntza bereziko ikastetxeren batera doan haurrik?

Ahalegindu haurrek ezagutzen dituzten kasuak kontatu dituzten.

5. Zein bertute eta akats ditu Nuriak?

Azpimarratu Nuriak, gainerako pertsona guztiek bezala, bertuteak eta akatsak dituela.



Jardueraren
Ondorioa

Down sindromea duten haurren errealitatera hurbiltzera



DESBERDINA DA ETA NIRE LAGUNA DA



5 jarduera

Lehen Hezkuntza

JARDUERA 5

Desberdina da eta nire laguna da

Lehen eta bigarren zikloa

Aurreko proposamenean bezala, ikasleak beste urritasun baten sintometara hurbilduko dira, kasu honetan autismora. Lan egiteko bi proposamen egiten dira. Bi irakurketa gomendatzen dira, errealitate horretara hurbiltzeko.

Proposatutako jarduerak

Oso egokia iruditzen zaigu 9-11. orrialdeetan azaltzen diren orientazio jarraibideak kontuan hartzea ipuina azaltzeko. Idatzi egin beharko dira.

► 1. PROPOSAMENA

“Mi hermano tiene autismo”

González, A. y Labat, V. (2008). Madril: Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa.

Adin gomendatua: 6 eta 7 urte.

► Ipuinaren laburpena:

Ipuin honek autismoari buruzko informazio garrantzitsuena jasotzen du, baina 6 eta 7 urteko umeek ulertzeko moduan. Aniztasuna onartzeko material egokia izan daiteke. Ez dira anai-arrebak liburuaren hartzaile bakarrak, izan ere irakurle guzientzat erabilgarri izan baitaiteke (ikasleak, gurasoak, irakasleak).



Jardueraren

Ondorioa

Pertsona bakoitzak bere izaera eta berezitasunak ditu

► 2. PROPOSAMENA

“Cuidando a Louis”

Ely, L. (2004).artzelona: Ediciones Serres, S.L.

Adin gomendatua: 6 urtetik aurrera.

► Liburuaren laburpena:

Sarrera bat da autismoaren gaira. Louis izeneko haurra ikasgelara heldu berri da eta ikaskide batek eskolan gertatzen dena kontatzen du. Ikaskideek toki bat egiten diote beraien bizitzetan eta ikus dezakete futbol partida batek nola bil ditzakeen pertsona guztiak.

Proposatutako jarduerak

1. Zer egin dezakegu gure ikasgelako ikaskide batek guk esaten ditugun esaldi berberak errepikatzen dituenean (ekolalia) edo era arraroan mugitzen denean (este-reotipia)?

Ekolaliak, entzuten dutenaren errepikapenak dira, eta ohikoak izaten dira autismoa duten pertsonen artean. Estrategiarik hoberenetakoa gu “modelo” bilakatzea da, hau da, esaldia esatea Louisek esan beharko lukeen bezala. Adibidez, Sam-ek

galdetzen dionean Louisi “jolastu nahi al duzu, Louis?”, hark erantzuten dio “jolastu, Louis?”. Kasu horretan komenigarria izango litzateke Samek honako eredu hau erakustea “bai, jolastu nahi dut”, Louisek erantzun egokia ikas dezan.

Komenigarria izaten da, baita ere, komunikazio sistema alternatiboak edo/eta handigarriak erabiltzea, hobeto ulertzen laguntzeko (adibidez ikusmen laguntzak, besteentzat ere lagungarri izan daitezkeen piktogramak, besteak beste).

Esterotipiei (behin eta berriro errepikatzen diren mugimendu ez funtzionalak, hegaz egitearen itxurak, balantzaka aritzea...) dagokienez, oso garrantzitsua da guztion artean Louis bezalako pertsonen laguntza beraien ekintza berbideratzen, mugimendu funtzionalak ikas ditzaten.

2. Zure ustez, zergatik irakasleren baten arau bat saltatzen du ikasleren batekin?

Irakasleak ikasle bakoitzaren beharrak eza-gutzen ditu, eta une jakin batean erabaki dezake komenigarriagoa dela arau bat saltatzea. Louisekin adibidez, jolastokira lehenago irteten utziz, Samekin futboleko jolasteari lehentasuna emanez.



Gure adiskideak ere pertsona desberdinak izan daitezke

ZER GERTATZEN ZAIEN JAKIN NAHI DUGU.



6 jarduera

Lehen Hezkuntza

Zer gertatzen zaien jakin nahi dugu.

Lehen hezkuntzako hirugarren ziklotik aurrera

Kontua, adimen urritasunari buruzko ideiak hedatu eta argitu ditzakeen irakurketa eskaintzea da.

Material gomendatua:

¿Qué le pasa a este niño?

Ponce, A. (2005). Una guía para conocer a los niños con discapacidad. Bartzelona: Ediciones Serres, S.L.


Adin gomendatua: 10 urtetik aurrera.

► Ipuinaren laburpena:

Liburu hau oso erabilgarria eta irakurta erraza izan daiteke, Miguel Gallardoren irudiei esker.

Liburuak haur askok egiten duten galderari erantzun nahi dio, urritasuna aniztasunaren ikuspegitik azalduz. Kontua da urritasuna arazo bat bezala ikusi beharrean,

JARDUERA 6



pertsonak berez duen zerbait bezala ikustea, pertsona hori urritasun hori baino gehiago dela kontuan izanik.

Erabilgarri izan daiteke adimen urritasuna zein garapenaren nahasketak azaltzeko, beste urritasun mota batzuk azaltzen baditu ere. Horretarako, liburuko bi kapituluaren irakurketa eta jardueren proposamena egitea proposatzen dugu.



► 1. PROPOSAMENA

Bosgarren kapitulua. Adimen urritasuna azaltzen du.

Proposatutako jarduerak

1. Adimen urritasuna gaixotasuna al da?
Ez, ez da sendatzen eta ez da kontagiatzeko.

2. Noiz esaten da pertsona batek adimen urritasuna duela?

Adimen funtzionamendua kalteturik dagoenean, hau da, ikasteko, pentsatzeko edo arazoak konpontzeko zailtasunak dituen eta egokitzen jokoan (eguneroko bizitzan beharrezkoak diren trebeziak, janztea, jatea...) zailtasunak dituen.

3. Zer da garrantzitsua adimen urritasuna duten pertsonen eskaintza?

Laguntza, afektazio mailaren arabera izango da. Maila bat baino gehiago dago.

4. Bildu bikotetan edo talde txikietan eta jarri eman ditzakegun laguntzen adibideak.

Laguntza noizean behin baino behar ez duen pertsona, matematikako zenbait buruketa ebazteko.

Denbora tarte luzean laguntzako klaseak behar dituen pertsona. Janzteko, jateko, lanak egiteko... laguntza handia behar duten pertsonak.

5. Egin kartelak 48. orrialdean dauden aholkuekin, eta pentsatu bururatzeko zaizkizuen beste batzuk.



Jardueraren
Ondorioa

Adimen urritasuna duten pertsonen ukituta izaten dute adimen funtzionamendua eta, ondorioz, eguneroko bizitzarekin erlazionaturiko zenbait jardura egitea (irakurtzea, janztea, botikak hartzea...) asko kostatzen zaie. Astiroago ikasten dute, eta behar-beharrezkoa dute laguntza jasotzea.

► 2. PROPOSAMENA

Zazpigarren kapitulua. Bertan garapenaren nahasketak azaltzen dira.

Proposatutako jarduerak

Zein ezaugarri nagusi ditu autismoa duen pertsona batek?

Gabeziak, akatsak, ditu gizarte elkarrekintzan, komunikazioan, jokaera errepikakorrek eta interes mugatuak ditu, ez dituzte ezusteak atsegin, ez dituzte zaratak atsegin, oso sentikorrek direlako, asko kostatzen zaie irudimena erabiltzea...

1. Zergatik hitz egiten dugu espektroaz?

Urritasunaren eragin maila desberdinak daudelako, hau da, pertsona batzuek ez dute hitz egiten baina keinuen edo piktogramen bitartez komunikatzen dira, beste batzuek hitz egiten dute baina zailtasunak dituzte txantxak edo esanahi bikoitzak ulertzeko...

2. Egin kartelak 62-63. orrialdeetan dauden aholkuekin, eta pentsatu bururatzeko zaizkizuen beste batzuk.



Jardueraren
Ondorioa

Autismoa duten pertsonen zailtasunak dituzte komunikatzeko, erlazionatzeko...

Pertsona bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta eman beharreko laguntza eskaini beharko genioke bizitza errazagoa izan dadin.

BERDINAK AL GARA GUZTIOK?



7 jarduera

Lehen Hezkuntza

JARDUERA 7

Berdinak al gara guztiok?

Hirugarren zikloa

Down sindromea duten pertsonen errealiterara hurbiltzeko irakurketa eta jarduerak planteatu nahi dira.

Material gomendatua:

Horrelakoxea da nire arreba, eta zer? Donostia: Elkar argitaletxea.

Itzultzailea, Joxantonio Ormazabal.

Adin gomendatua: 8 urtetik gora.

► Ipuinaren laburpena:

Arreba berezia dela kontatzen du ume batek, Down sindromea duela eta elkarrekin gauza asko egiten dituztela.

Nahiz eta ipuinean "atzeratua" dela agertu, egokiagoa da adimen urritasuna duten pertsonak terminoa erabiltzea.



Proposatutako jarduerak

Ikasleei esango zaie bikoteka egin dezatela lan ondoko galdera hauei erantzuteko:

1. Protagonistari zer gustatzen zaio arreba-rekin egitea?

Harekin jolastu...

2. Zein gogoeta du protagonistaren atzerapenaren inguruan? Jarri adibideak.

Beti dago norberak baino gutxiago edo gehiago dakien norbait.

3. Zergatik da desberdina protagonistaren arreba?

Behar baino kromosoma bat gehiago duela. Hala ere, kontuan izan behar da pertsona bakarra dela.


4. Idazlan bat egin ipuineko protagonista bazina bezala.



Jardueraren
Ondorioa

**Pertsonenganako maitasuna
urritasunaren ginetik dago**

NOLAKOA NAIZ



8 jarduera

Lehen Hezkuntza

JARDUERA 8

Nolakoa naiz

Hirugarren zikloa

Autismoa duten pertsonengana hurbiltzea da kontua.

Material gomendatua:

Soy Especial: Informando a los niños y jóvenes sobre su trastorno del espectro autista.

Vermeulen, P. (2001). London and Philadelphia: Jessica Kingsley Publisher.

Adin gomendatua: 10 urtetik gora.

Isis komunitatean izena emanda jaitsi dezakezu interneten: <http://isis.zm.nu/-soy-especial-de-peter-vermeulen-vt8828.html>

Izatez, TEA (Espektro autistaren gaitza) duten pertsonentzat da materiala. Hala ere, gure ustez fitxak baliagarriak izan daitezke TEA ezagutarazteko gainerako ikasleei. Zenbait berba aldatu behar izango dira (adibidez, “ni”ren ordez “bera” jarrita).

Proposatutako jarduerak

Materialarekin batera, lan-fitxak doaz. Fitxa horiei esker, ondokoak lantzeko modua izango dugu:

- **Bakarra naiz: nire kanpoaldea**
- **Bakarra naiz: nire barnealdea**
- **Nire gorputza**
- **Desberdina izatea**
- **Autismoa: urritasun berezia**

Irakasleek eurek erabaki beharko dute eskuliburua lantzeko sakontasuna. Zenbait ikastetxetan, beharbada, fitxa guztiak egitea erabaki daiteke eta, beste batzuetan, zenbait hautatuko dira.




Jardueraren

Ondorioa

Azterlanetan ikertzen jarraitzen da TEAren jatorria biologikoa dela frogatu ahal izateko. Pertsonaren beraren eta inguruaren arteko elkarrekintzan ulertu behar da urritasuna; hori nabarmendu beharra dago. Eta TEA duten pertsonen ezaugarri komunak dituzten arren, bakarra da bakoitza.

HITZAK GARRANTZITSUAK DIRA



9 jarduera

Lehen Hezkuntza

JARDUERA 9

Hitzak garrantzitsuak dira

Hirugarren zikloa

Proposamen honen bidez, haurrak adimen urritasunaz jabearazteko modua lantzeko ideiak eman nahi ditugu, betiere curriculum-ikuspegi batetik.

8 jarduera proposatzen ditugu, Bidea egitarauan oinarrituta (Aspacek, Atzegik eta Gautenak eginikoa), eta irakasle bakoitzari dagokio horiek hautatzea taldearen ezaugarrien arabera.

► 1. PROPOSAMENA

Bilatu hiztegia ondoko berbak eta ordenatu (txartzat hartzen dituzuenetatik ontzat jotzen dituzuenetara):

Gaitzespena

Berdina

Mespretxua

Maitasuna

Barregarria

Atsegintasuna

Desberdina

Aukera

► 2. PROPOSAMENA

Ondorengo hitzek edo esaldiek urritasuna duten pertsonengana hurbiltzeko edo gaitzesteko sentimenduak adieraz ditzakete. Orain, **horiek sailkatzea da kontua, gaitzespenik handienetik sentimendu atseginetara** eta ondoren, taldeka, saia zaitetzke sailkapenean ados jarriz.

Ez zait gustatzen ikustea

Pena ematen dit

Sinpatikoa da

Txizatia da

Beldurra ematen dit

Biziki maite dut neba edo arreba

Lotsa ematen dit

Dibertigarria da jolasten

Nire laguna da

Adurra dario

Bitxia da

Atzeratua da

Leloa da

Maiz erortzen da

Mundu guztiak begiratzen dio zeharka

Eskuekin nola hitz egiten duen gustatzen zait

Oso ondo ulertzen nau

Ez dakite zer sentitzen duen urritasuna duen pertsona batek

Nire laguna izan daiteke

Ez dakit nolakoa den ez dudalako eza-gutzen

Ezin kontrola dezake txistua

Maite dut

Oso itsusia da

Zerbaitetan ez da nire modukoa

Ondo pasatzen dut harekin jolasean

Leloa da

▶ 3. PROPOSAMENA

Egin adimen urritasunari buruzko **idazlan bat**. Horretarako, bi proposamen egingo dizkizuegu:

- Demagun adimen urritasuna duzula eta zure bizitzako egun bat eskolan nola doan kontatu behar duzula.

- Demagun zenbait ordu igarotzen duzula adimen urritasuna duen batekin eta kontatu bizi duzuna.

Gogoratu beti dela komenigarriagoa egiten dakiguna nabarmentzea ez dakiguna baino, betiere pertsona guztiok aurrerapenak egiteko gai garela aintzat hartuta.

▶ 4. PROPOSAMENA

Aldarrikapen kanpaina bat egitea. Down sindromea duten pertsonen, autismoa du-

ten pertsonen, etab. eskubideen alde egiteko taldeak osatuko dira, gainerako pertsonen moduko bizitza izateko.

▶ Bilatu lelo bat kanpainerako.

▶ Egin zerrenda bat pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko alda daitezkeen gaiekin.

▶ Aipatu banan-banan errespetatzen ez zaizkien eskubideak.

▶ Egin taldearen lana islatuko duen kartel bat.

▶ Proposamenak guztion aurrean eman eta ondoren taldean edota gelan eztabaidatu. Ezaugarri komunei buruzko gogoeta egin talde guztien ekarpenekin.

▶ Eskolan ipini daiteke, beste ikaskide batzuek irakur dezaten.

▶ 5. PROPOSAMENA

Adimen urritasunari eta garapenaren beste gaitz batzuei buruz ikasleei interesa dakiekeen gairen baten gaineko **inkestak edota elkarrizketak egitea**, hurreko pertsonen artean burutu beharrekoak (eskolako pertsoneri, senideei, auzokideei eta herriko edo hiriko auzo-lagunei...). Jendeak gaiari

buruz pentsatzen duenaren gaineko informazioa lortzea da xedea.

Ikasle bakoitzak informazioa bildu beharko du, ondoren talde txikietan (lau ikaslekoak gutxi gorabehera) landuko dena taldean edo klasean ezagutaraziko diren ondorioak lortzeko.

Informazioa lortutakoan, pertsona bakoitzak emaitza hobekak izan daitezkeen zer egin dezakeen pentsatuko du.

▶ 6. PROPOSAMENA

Egin biribila ondoko ideietatik hiru ideia- inguruan; adimen urritasuna duen pertsona batek zuri hobeto ulertzeko onenak irizten diezun hiru ideia izan behar dute. Ondoren, konparatu zure ikaskideekin eta azaldu zergatik aukeratu dituzun.

▶ **Ozen hitz egitea**

▶ **Gauza sentikorrek esatea**

▶ **Haserretzea entzuten ez dizulako**

▶ **Maitasunez hitz egitea**

▶ **Eskolan lan gehiago egiteko esatea**

▶ **Argi eta astiro hitz egitea**

► 7. PROPOSAMENA

Irakurri arretaz ondoko istorioa eta ondoren urritasunaren gaiarekin duen erlazioari buruzko gogoeta egin..

“Bart gauean eta gaur goizean sartu naiz, lurraren oso antzeko planeta dago. Bertako biztanleek desberdintasun bakarra dute lurreko biztanleekiko: begi bakarra dute. Baina begi miresgarria da, eta horri esker, ilunpean ikus daiteke eta kilometro luzeko distantziara, baita pareten artetik ere. Begi harekin, asturuak ikus daitezke teleskopio batekin bezala, eta mikrobioak mikroskopio batekin moduan ikus daitezke. Hala ere, planeta horretan, seme-alabak dituzte amek, lurreko amek eurenak dituzten bezalaxe.

Egun batean, akats fisiko bitxi bat zuen ume bat jaio zen; bi begi zituen. Gurasoak triste jarri ziren. Ez zuten luzaro itxaron behar izan kontsolamendua izateko. Azken finean, oso ume alaia zen eta, gainera, nahikoa polita. Egunetik egunera pozago zeuden harekin. Asko zaintzen zuten. Medikuek askorengana eraman zuten, baina kasu sendaezina zen; medikuek ez zekiten zer egin. Ez zuten hazten ikusten, eta gero eta arazo gehiago zituen; izan ere, laguntza behar zuen gauetan ilunpean gauzen kontra talkarik ez egiteko. Pixkanaka, bi begi zituen umea atzean gelditzen hasi zen ikasketetan, eta irakasleek gero eta arreta bereziagoa ematen zioten. Etengabe behar zuen laguntza.

Umeak uste zuen ez zuela ezertarako balio izango nagusitan. Baina egun batean, besteek ezin ikus zezaketena berak ikusten zuela ohartu zen. Laster asko joan zitzairen gurasoei azaltzera nola ikusten zituen gauzak. Gurasoak mira eginda gelditu ziren. Eskolan izugarri gustatzen zitzaizkien bere istorioak ikaskideei. Guztiak sentitu nahi zuten gauzen koloreei buruz esaten zuena. Zirraragarria zen bi begiko umea entzutea. Eta denbora luzean hain ospetsua zen, inori ez zion ardura haren akats fisikoak. Nahiz eta gauza asko egiten jakin ez, ez zen ezdeusa, inondik inora. Planeta osoko biztanlerik miretsienetako bat bihurtu zen. Eta haren lehenengo semea jaio zenean, mundu guztiak aitortu zuen oso polita zela. Gainera, gainontzeko seme-alaben modukoa zen, begi bakarra zuen.”

► 8. PROPOSAMENA

Ikasleek, taldeka, hainbat galderari buruzko **erregistro-fitxa** bat egingo dute. Sarre-
ra bikoitzeko taula batean, taldeko kide bakoitzaren datuak idatziko dituzte.

	1. GALDERA	2. GALDERA	3. GALDERA...
AIORA			
MARKEL			
EIDER			
LIER			

1. galdera: bildu bakoitzaren adina. **2. galdera:** idatzi bakoitzaren sexua. **3. galdera:** idatzi pentsatzen duzuen. **4. galdera:** idatzi zenbat neurtzen duzuen. **5. galdera:** erabiltzen duzuen zapata zenbakia. **6. galdera:** pertsona bakoitzaren begien kolorea. **7. galdera:** pertsona bakoitzaren ilearen kolorea. **8. galdera:** zein da zure bertute nagusia? **9. galdera:** zein da zure akatsik handiena? **10. galdera:** zein kirol duzu gustuko?

Atera ondorioak taula hau kontuan izanik:


Berdinak zaretela erakusten duten ezaugarriak: Besteengandik bereizten zaituztena.
Adierazi zein gaitan zatozen bat: Adierazi zein gaitan zaretan desberdinak.



Jardueraren
Ondorioa

Desberdinak izan arren, gela berean zaudete, eskola berera zoazte, etab. Guztiok gara berdinak, baina desberdinak

FILMETAN ERREALITATEA ISLATZEN AL DA?



10
jarduera

Lehen Hezkuntza

JARDUERA 10

Filmetan errealitatea islatzen al da?

Hirugarren zikloa

Filmak ikustea aukera bat da ikasleek adimen urritasuna ezagutu dezaten. Hori dela-eta, filmak ikustea eta taldean lan egitea proposatzen dugu.

Material gomendatua:

► 1. PROPOSAMENA

Pauloren tesia (2002). Dokumentala.

Iraupena: 55 minutu.

Erreportaje honetan, Pablo Pinedaren istorioa kontatzen da; izan ere, Down sindromea duen 28 urteko gazte horrek goi mailako titulua lortu zuen.

Proposatutako jarduerak

Erantzun galdera hauei:

Zer deritzozu Pablaren familiaren jarre-rari?

Gizartean atek irekitzeko eta besteen mo-

duan tratatzeko borrokatu dira, eta uste sendoa dute adimena garatu egiten dela.

Zer pentsatu zuen Pablok Down sindromea duela jakin zuenean?

Berak ez zuen ideiarik ere zer esan nahi zuen horrek, eta bere buruari galdetu zion: “leloa al naiz?, ba al dut ikasten jarraitzerik?”

Zer dio Pablok maitasunaz?

Maitasun desengainuak izan dituela (kalabazak).

Zer deritzo Pablok desberdintasunari? Ados zaudete?

Desberdintasuna balioa da, ez akatsa.

Zer aldarrikatzen du Pablok? Zuen ustez, zer egin daiteke Pablok aldarrikatzen duena lortzeko?

Pablok sistema aldatzea aldarrikatzen du (politikak, ideologia, etab.), haren modukoek tokia izan dezaten gizartean.



Jardueraren Ondorioa

Adimen urritasuna duten pertsoneni aukera emanaz gero, helburuak lor ditzakete, eta horren etsenplua dugu Pablo. Kontuz jorratu behar da gai, zeren eta ez baitu esan nahi Down sindromea duten guztiak unibertsitateko ikasketak bukatuko dituztenik.

► 2. PROPOSAMENA

Forrest Gump (1994).

Iraupena: 142 minutu.
Herraldea: AEB

► Laburpena

Forrest Gump adimen urritasuna du eta bere bizitza birpasatzen du XX. mendeko bigarren zatian AEB-tan izandako gertaera historikoekin bat etorritz.

Nahiz eta filmak beste gai batzuk lantzeko modua eman hala nola gerra, tratu txarrak, HIESA..., urritasuna izango dugu ardatz.

Proposatutako jarduerak

1. Bildu Forrestek esandakoetatik deigarriak egiten zaizkien esaldiak.

Esate baterako, “bizitza bonboi-kutxa baten modukoa da”, “leloa da lelokeriak egiten dituen”, “amak beti azaltzen zizkidan gauzak nik ulertzeko moduan”, “ez zitzaion gustatzen elbarria deitzea, eta niri ere zitzaidan gustatzen lelo deitzea”...

2. Talde txikitik, galdera hauen erantzunak eman:

*Zelan deitzen diote zenbaitek Forresti?
Zer deritzezu termino horiei?*

“tentela”, “atzeratua”, “leloa”, “artaburua”...

Zuen ustez, nahikoa al da pertsona baten koefiziente intelektuala zein den jakitea nolakoa den eta zein laguntza behar duen jakiteko?

Ez. Beste ezaugarri batzuk jakin beharko lirake hala nola egokitze jarreraren zelan dabilen (eguneroko bizitzako beharrezko trebetasunak)...

Gizarteak balioetsitako zein lorpen izan zituen Forrestek?

AEBko selekzioko jokalaria izatea, gerra amaitzean urrezko domina jasotzea, AEBko

governuko presidentea ezagutzea, AEBko ping pongeko selekziokoa izatea, aberatsa izatea...

Zuen ustez, zerbait ikasiko zenukete Forresten lagunak izanda?

Bai, beti erakutsiko dizu zerbait.

Zein ezaugarri nabarmenduko zenituzkete Forresten nortasunean?

Bere lagunaren laguna da, agindutakoa betetzen du, eskuzabala da...

Gerran zauritu asko izan zen. Zure ustez horrek aldarazi zuen jendeak urritasuna duten pertsonen inguruan zuen ikuspegia?

Bai, zeren eta “normal”tzat jotzen diren pertsona asko, gerraren ondoren, zaurituta itzuli baitziren, tenientea adibidez, eta horrek eragina izan zuen urritasuna hobeto ulertzeko.

Zergatik ibili zen lasterka Forrest 3 urtez, 2 hilabetez, 14 egunez eta 16 orduz?

Hori egin nahi zuelako, beste barik.

Zuen ustez, Jennyk Forrest maite al zuen?

Bai.

Zein esanahi eduki dezake filmaren hasieran eta amaieran agertzen den lumak?

Bizitza adieraz dezake...



Jardueraren Ondorioa

Hasiera batean, baztertu egiten dute Forrest, baina gero heroitzat hartzen dute... Horrek argi uzten du zein garrantzitsua den urritasuna duten pertsoneni aukerak ematea.



Beste zenbait MATE- RIAL

► UNITATE DIDAKTIKOAK

Elkarrekin ikasten

“Aprenem junts” elkartasun eta tolerantzia balioak eta banakoen desberdintasunak onartzeko balioak lantzeko sortu zen.

<http://www.aprenemjunts.es/indexflashesp.html>

Ordenagailuaren bidez, eskolan nahiz familian egin daiteke lan, jarduera anitz eskaintzen baitira. Zenbait estekatan sartu ahal izateko, izena eman beharra dago.

Etapak: Haur eta Lehen Hezkuntza.

Bi eremu dituzte ardatz

HEZKUNTZAKOAK:

Aurkezpen-gida bat irakasleentzat.

Urritasunei buruzko informazioa (intelektuala, fisikoa eta zentzumenetakoa).

Estrategia didaktikoak eta metodologikoak ikasgelan txertatzeko.

Ikasleekin lan egiteko sentsibilizazio jarduerak, hezkuntzako etapetara egokituak (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloak).

Urritasunarekin lotutako erakundeei eta zerbitzuei buruzko informazioa.

Ikasleentzako gida bat, honako hauetarako egokitua:

Haur Hezkuntza

Lehen Hezkuntza (lehen zikloa)

Lehen Hezkuntza (bigarren zikloa)

Lehen Hezkuntza (hirugarren zikloa)

Familientzako gida bat

GIZARTE MAILAN:

Aniztasunaren errespetua, tolerantzia eta onarpen balioak eskolatik harago joateko ahaleginak eginez; hauexek antolatuta, esaterako:

Jarduera ludikoak, jarduera plastikoak, kultur jarduerak, kirol jarduerak.

Cuentos para soñar un mundo mejor y cuentos para todo el mundo: Para compartir en igualdad. Para vivir la diversidad. Unidades Didácticas sobre género y discapacidad.

García, A.M. y Viñuela, L. (2005). Oviedo: FASAD Fundazioa. <http://www.fasad.es/repositorio/104.pdf>

Adin gomendatua: 6-8 urte

Beatriz neskatilari Bety deritzo, eta gurpil-aulkian mugitu behar du.

Ondoko unitate didaktiko hauek eskaintzen dizkigute jarduerekin, ebaluazioarekin eta glosategi batekin batera:

1. unitate didaktikoa: Beatriz eta bere familia

2. unitate didaktikoa: Beatriz eskolan

3. unitate didaktikoa: Beatriz herrian

4. unitate didaktikoa: Beatriz eta bere lagunak

5. unitatea didaktikoa: Beatriz eta hiriko bere lagunak

3. unitatean (Beatriz herrian), adimen urritasuna landu daiteke zehazki, zeren eta ikasteko erritmoa besteena baino motelagoa duen Sonia izeneko neskatila bat agertzen baita.

Eta 5. unitatean (Beatriz eta bere lagunak hirian) autismoa, gaitz hori duen Karlota izeneko neska azaltzen baita.

Apreciamos las diferencias: Orientaciones didácticas y metodológicas para trabajar sobre la discapacidad en educación primaria.

Verdugo, M.A.; González, F.; Calvo, M.I. (2003). *Gaztela-Mantxako Erkidegoen Batzarra*, CERMI.

http://www.infodisclm.com/documentos/educacion/unidades_didacticas.htm

Nahikoa baliabide osoa da, non aurkezpeneko unitate didaktiko orokor bat eta urritasunak lantzeko bost unitate agertzen diren:

Aurkezpena: desberdintasunak estimatzen ditugu.

1. unitatea: urritasuna duten ikasleak.

2. unitatea: adimen urritasuna duten ikasleak.

3. unitatea: ikusmen eta entzumen urritasuna duten ikasleak.

4. unitatea: urritasun fisikoa duten ikasleak.

5. unitatea: hezkuntza behar bereziak dituzten beste ikasle batzuk.

Lan honetan, gehienbat bigarren unitatea interesatzen zaigu, adimen urritasuna duten ikasleei buruzkoa. Lehen unitatean, esaterako, urritasuna duten pertsonen koadrila bat ikus daiteke, eta burutu daitezkeen jarduerak proposatzen dira (aurreitziak lantzea, etab.).

Jarduera horiek landu ahal izateko zikloa proposatzen da, eta irakasleek ikasgelaren errealitatea aintzat hartuta egokitu ditzaketan proposamenak direla gogorarazten da.

► **LIBURUAK**

Down. Alfaya, A. (2006). *Bartzelona: Edebé.*

Adin gomendatua: 6 urtetik gora.

Sirok badaki lehengusua desberdina dela, inork ezer azaldu ez badio ere.

¡Qué animales! Allan, N. (2001). *Caracas: Ekaré.*

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Tomas Trompa bere eskola berrira joan zen astelehenean, baina ez zitzaion inor gustatu eta inor ez zen hura bezalakoa.

Los mejores amigos. Anderson, R. (1995).

Madril: Ediciones Alfaguara, S.A. Grupo Santillana.

Adin gomendatua: 6 urtetik gora.

Bearen istorioa da. Down sindromea duen 10 urteko neska bat da, eta Ana ahizparekin jolastea du gustuko, baina Anaren lagun batek, Isak, ez du oso ondo ulertzen zer gertatzen zaion Beari. Juan Bearen auzokidea da, eta une dibertigarriak pasatzen ditu harekin.

Oso lan errealista da, ezjakintasuna dela-eta askotan besteak baztertze joera izaten baitugu, Isaren kasuan bezala: ez du Bearekin jolas egin nahi.

Nire lagun bereziak. Bilbo: Aizkorri.

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Urritasun fisikoa edo intelektualak duten lagun berriak aurkezten dizkigute.

Alas de mosca para Ángel. Casallerrey, F. (2006).

Madril: Anaya.

Adin gomendatua: 9-14 urte.

Euskarara itzulita dago: "Euli-hegoak Anxorentzar".

Estrellak zaintza berezia behar du eta, horregatik, deseroso egin daitezke lehen bezkuntzako seigarren mailako ikaskideak. Bahiketa baten albiste jakin ondoren, bibotz handia izatea garrantzi handikoa dela frogatzen du Estrellak.

Otra cosa. Cave, K. (2003). *Bartzelona: Ediciones Elfos, S.L.*

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Mendi garai batean, Beste Gauza Bat bizi zen, bakarrik, inor barik. Norbaitengana hurbiltzen saiatzen zen bakoitzean, mundu guztiak esaten zion beste gauza bat zela. Gainerakoak modukoa izaten saiatzen zen bera.

Tres hurras por Errol. Cole, B. (1991). *Bartzelona: Destino.*

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Errol ganorabakoa da gauza askotarako, adibidez: ez da ona matematikan, ortografian, etab., baina oso ona da kirolerako.

Cada uno es especial: Un libro para levantar y mirar.

Damon, E. (1995) Bartzelona: Beascoa, S.A.

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Liburu honek gogorarazten digu bakoitza berezia dela. Modu atseginean aurkezten dizkigu hainbat haur. Azkenean, ispilua ematen du, non nork bere buruari begiratzen dion eta nolakoak garen agerrarazteko orrialdea dagoen.

Ellison, el elefante que quería cantar.

Drachman, E. (2008). Teià. Malsinet.

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Ellisonek besteen moduan abestu nahi du. Amak gogorarazten digu ez dela batere txarra desberdina izatea. Barre egiten diote, baina azkenean den bezalakoa izanda mires dezaten lortuko du.

Loreontzi bat lapitzez beteta. Farias, J. (2005). *Donostia: Elkar.*

Adin gomendatua: 9 urtetik gora.

Ume bat da protagonista, eta euria egiten duenean, ezin atera daiteke arrantzan egitera, amak ez diolako uzten; izan ere, horixe du gustukoena. Bere familiari buruzko eleberri bat idaztea erabaki du eta, hala, Down sindromea duen bere arrebetako bat (Nuria) aurkezten digu.

La letra que no tenía trabajo. Fernández Pacheco, M.A. (2003). *Madril: S.M.*

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Eme jaunak eta ene andreak neskatala bat izan zuten. Sorgintzailea zen, baina deigarria zen ile-xerlo bat zuelako buruan. Eskolan ez zuen lagunik, eta irakasleek esaten zioten ez zuela aurrerapen egokirik.

Guía didáctica de la discapacidad en Primaria. Gabás, R. y Monreal, M. (2006). *Zaragoza: Aragoiko Gizarte Zerbitzu eta Familia Sailsa.*

Adin gomendatua: 6-12 urte.

Gida horren bidez, urritasuna landu nahi da Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.

Alejandro no se ríe. Gómez, A. (1988). Madril: Anaya.

Adin gomendatua: 9-11 urte.

Alejandro adimen urritasuna duen haur bat da. Betaurrekoak daramatza eta ez du inoiz barrerik egiten. Ume talde bat ahalegindu egiten da Alejandrok barre egin dezan.

Haced sitio a mi hermano. Herrera, J.I. (1990).

Bartzelona: Noguer.

Adin gomendatua: 9-11 urte.

Ivanek anaia Diego gorroto du autismoa duelako, eta ez du onartzen arreta handiagoa behar izatea.

Una hermana como Danny. Krenzer, R. (2001). Madril:

Ediciones Rialp.

Adin gomendatua: 9-11 urte.

Oliverrek arrea biziki maite arren, ez du nahi ikastetxean jakiterik urritasuna duela

Cuando las piedras todavía eran pájaros. Lembcke, M.

(1999). Salamanca: Lóguez Edizioak.

Adin gomendatua: 11 urtetik gora.

Pekkek ez daki nola den pertsona inteligentea izatea, baina badaki zer den maitatzea.

El rey con orejas de caballo. Maddern, E. (2003). Bartzelona: Blume.

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Marcos erregeak zaldi belarriak ditu, baina inork ez daki ezer bizarginak izan ezik. Erregeak bere berezitasun horrekin bizi izaten eta onartzen ikasten du.

El calcetín del revés. Mataix, L. (2006). Madrid: Bruño.

Adin gomendatua: 9-11 urte.

Bizi diren munduarekin zerikusia duten pertsonaiak deskribatzen ditu Amadeok modu dibertigarrian. Pertsonaia horien artean, Constanza arrega dago; "azkarra" ez dela dio.

Los niños tontos. Matute, A.M. (2000).

I Media Vaca argitaletxea.

Adin gomendatua: 8 urtetik gora.

Haurtzaroari buruzko liburu bat da, eta 21 istorio ditu.

Ori FEAPSek, Valentziako Erkidegoak eta Andana Ediciones-ek sorturiko bilduma da. *Ori adimen urritasuna duen zortzi urteko haur bat da.*

Hona hemen Vicent Josep Escartik idatziriko liburuak:

“**Ori y su mascota**”, 2004

“**Ori va de campamento**”, 2005

“**Ori y su hermana**”, 2006

Adin gomendatua: 6-12 urte.

Interneteko orrialde hauetan zenbait proposamen didaktiko eskaintzen dizkigu:

<http://www.andana.net/andana.php?leng=cas&seccion=desc>

<http://www.feapscv.org/web/pdf/propuestas-didacticas.pdf>

María Caracolito. Pescador, P. (2008). Ciudad Real: Down

sindromearen Elkartea.

Edad recomendada: A partir de 6 años.

Idazle argentinar horrek liburu hori aurkezten digu. Down sindromea duen neskatxa baten abenturak kontatzen ditu.

Papel en blanco. Prestifilippo, P. (2001). Bartzelona: Edebé.

Adin gomendatua: 6 urtetik gora.

Haur bat ez zen besteak modukoa. Neskek “tentel” deitzen zioten eta mutilek “lelo”.

Mi hermana es un poco bruja. Puerto, C. (2005). Zaragoza: Edelvives.

Adin gomendatua: 9 urtetik gora.

Harekin bizi den norbaiti buruzko idazlan bat egiteko agindu dio irakasleak Luisari, eta abizpa aukeratu du.

Ondoko orrian, irakurketa-gida bat jaitsi daiteke:

<http://www.edelvives.com/catalogo/guias/95204.pdf>

Ana y el aliso. Rayó, M. (1998). Bartzelona: Edebé.

Adin gomendatua: 9-11 urte.

Ana animaliekin, landareekin, etab. hitz egiten duen haur bat da, eta harremanetan sartzen da haltz batekin.

La sonrisa de Carlos. Sabaté i Rodié, T. (2002).

Bartzelona: Salvatella.

Adin gomendatua: 6 urtetik gora.

Carlos Down sindromea duen haur bat da, eta baliabide egokiak izanda, ikasten ondo pasatzen du.

Un cuervo diferente. Schreiber Wicke, E. (1995). Bartzelona: Juventud argitaletxea.

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Kolore anitzeko erroi bat obartu zen inguruan zituen erroiak harengandik urruntzen zirela.

No todas las vacas son iguales. Ventura, A. (1999). Caracas. Camelia Edizioak.

Adin gomendatua: 6-8 urte.

Ezaugarri desberdinak dituzten behiak erakusten dizkigute.

Hau eskola bada ni tigrea naiz. Viza, M. (2001). Donostia: Elkar-Txalupa. Itzultzailea. Joxantonio Ormazabal

Adin gomendatua: 9 urtetik gora.

Carlosek ikusten duenez, ikasle guztiek izan behar dute berdinak irakaslearentzat







HEZKUNTZA INKLUSIORAKO

MATERIALEN GIDA:

ADIMEN ETA GARAPEN URRITASUNA

BIGAREN HEZKUNTZA



FEVAS

LAGUNTZEN DU:





HEZKUNTZA INKLUSIORAKO

MATERIALEN GIDA:

ADIMEN ETA GARAPEN URRITASUNA

BIGARREN HEZKUNTZA



FEVAS

LAGUNTZEN DU:



FEVASek (Adimen Urritasuna dutenen aldeko elkarten Euskal Federazioa) egindako gida.



aurki**b**idea

AURKEZPENA	6
SARRERA	11
HELBURUAK	15
MARKO TEORIKOA	17
Inklusiorako eskubidea	18
Adimen Urritasuna	22
Autismo Espektroaren Nahasketak	28
TUTORETZAK	31
INFORMAZIO OSAGARRIA	37
BIGARREN HEZKUNTZA, JARDUERAK	40
1) Urritasun moten posterra	42
2) Ez gara hain ezberdinak	46
3) Gogoeta egin dezagun	50
4) Laguntzak diseinatuz	54
5) Beste ikuspuntu batetik	58
6) Gai gara	62
7) Urritasuna onartzen	66
8) Adiskidetasuna ezinbesteko euskarria da	70
9) Denok ditugu maniak	74
Beste zenbait material	79



*Gure ikasgeletan adimen eta garapen urritasuna duten ikasleak ego-
tea ezinbesteko pausoa izan zen inklusiorako bidean. Baina FEVAS-
ek, adimen eta garapen urritasuna duten seme-alaben familiak
elkartzen dituen elkartze mugimendu bezala, lanean jarraitzeko
ardura dauka gaur egun ere gizartean benetako inklusioa ezinezko bilakatzen
duten oztopoak kentzen joatea.*

*Lan zaila da hori, inolako zalantzarik gabe. Horregatik FEVASen lehentasunezko
ekintzetako bat hezkuntza da. Ondorioz lan talde bat eratu dugu, elkarteetako
ordezkariak eta hezkuntza alorreko espezialistek osatua, ez ditzagun ahaztu adi-
men eta garapen urritasuna duten 1.300 ikasle horiek; haurrek eta gazteek etor-
kizun hobea izango dute hezkuntza komunitatea eta familiak elkarlanean aritzen
bagara eta norabide berean jarduten badugu.*

*Asko hitz egiten da adimen urritasuna duten pertsonak hezkuntza sisteman sar-
tzearen garrantziari buruz, izan ere justiziazkoa da, eta beraientzat oso ona,
baina oso gutxitan planteatzen da gai hori benetako interesa duen zerbait bezala,
ikasle guztientzat onuragarria eta aberasgarria izango den zerbait bezala; hala
ere, uste dugu ikasle guztiek dutela adimen urritasuna ezagutzeko eskubidea.*

*Gida honekin adimen urritasunaren ezagutza eskolako erkidegora hurbildu nahi
dugu, eta, horretarako, hezkuntzako etapa bakoitzeko ikasleei egokitutako in-
formazio garrantzitsua, edukiak eta egokitutako jarduerak bildu ditugu. Kontua
da aniztasuna arazo gisa hartu beharrean, guztien ikasketa aberastuko duen
errealitate gisa hartzea da. Horrela, guztion artean, ikasketekin zuzenean erla-
zionatutako alderdiez gain, elkartasunean, tolerantzian, enpatian eta bestee-
kiko, desberdinekiko, errespetuan oinarritutako jarreraren eta balioen sustapenean oina-
rritutako kultura bultzatuko duen eskola lortu ahal izango dugu; sentsibilizatuko
duen eta adimen urritasuna duten pertsonen beste era batera begiratzen eraku-
tsiko duen eskola. Hori da gure helburua.*

*FEVASen badakigu, horrela egiaztatu ahal izan dugulako sarri askotan, irakasleak
direla gurekin egunero borrokan ari direnak inklusioa lortu ahal izateko. Horre-
gatik zuen ikasgeletan eta taldeetan gida hau erabiltzeko gonbidapena luzatzen
dizuegu. Guk, behar duzuen laguntza guztia emango dizuegu. Hor duzue.*

Juan Cid, FEVASeko presidentea

Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (FEVAS), Euskadiko Autonomia Erkidegoan adimen urritasuna duten pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten familien elkartek biltzen ditu. 11 erakunde eratzten dute eta, ondorioz, alor honetako Euskadiko antolakuntza sare garrantzitsua da.

FEVASek zerbitzuak eskaintzen dizkie bere kide diren erakundeei, eta beraien jarduerak koordinatzen ditu, talde osoaren interesei dagozkien gaitan ekintzarako irizpideak bateratuz. Euskal Federazio honen helburu nagusietakoa gizartea sentsibilizatzea eta gizarte politiketan eragina izatea da.

ERAKUNDE ELKARTUAK:



FEVAS zifratan

Adimen urritasuna duten **9.100** pertsona
1.160 profesional **7.900** familia **800** bolondres
 Lan hastapeneko **2** zentro **3.000** erabiltzaile Aisia zerbitzuetan



Arreta Goiztiarreko **3** zentro Eguneko arretarako **37** zentro
 Hezkuntza bereziko **2** Ikastetxe **69** Egoitza unitate
3 Babes zerbitzu Kontzertaturiko **47** Hezkuntza Unitate

Aniztasuna ez da
ikusten gainditu
beharreko arazo gisa,
guztien ikasketari
laguntzeko baliabide
aberasgarri gisa
baizik

(Booth, Ainscow, Black-Hawkins, Vaughn eta Show)

SA-
rrera

Hezkuntza Inklusiorako
Hezkuntzako Materialak



Orain arte askotan esan da oso garrantzitsua dela urritasuna duten ikasleak beste guztien munduan aritzea, ikasgeletako bizitzako parte izan daitezen eta gizarte harremanak eta erabateko garapena indartuko duen hezkuntzako partaide izan daitezen... Ardura horiek, gehien bat, ikasgelan urritasuna duen ikasleren bat duten irakasleek izan dituzte. Hala ere, oso gutxitan egin da gai horri buruzko gogoeta urritasunik duen ikaslerik ez zegoen ikasgelatan.

Hori dela eta, Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioak (FEVAS) erabateko konpromisoa hartu du eskola inklusibo modeloaren garapenarekin. **Funtsezkoa da irakasleek konturatzeko zein garrantzitsua den aniztasuna, desberdintasuna eta urritasuna beraien eguneroko irakaskuntza jardunean sartzea.** Alor horretan aurre egin

ahal izateko, eman beharreko laguntza emango duten eta irakasleentzat erabilgarri izango diren materialak sortu ditugu, urritasunaren errealitatea barne izango duen hezkuntza sistemaren eraikuntzan aurrera egiten lagungarri izan daitezten.

“Desberdintasunean” heztea ezagutzea eta onartzea da, eta inoiz ez ezkutatzea. Ezkutatzen bada baztertu egiten da.

Irakasleei, **jardunbide inklusiboak martxan jartzea erraztuko dieten gakoak eman nahi dizkiegu, adimen eta garapen urritasunari buruzko oinarritzko edukiak eskainiz. Halaber, hezkuntzako etapatan zehar,** ikasleak sentibilizatzen eta desberdintasunean eta urritasunaren ezagutzan, ulerpenean eta onarpenean hezten lagunduko duten hainbat baliabide aurkezten ditugu. Laburbilduz, balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko kontzientziaioa sustatuko duten oinarritzko ezagutzak eta ikasgelako proposamenak.

Beste alde batetik, ikusten dugu beharrezkoa dela hezkuntzako inklusioa ikasle guztiek urritasunaren inguruan ikasteko duten aukera gisa lantzea, horrela desberdinak diren pertsonetikiko errespetua eskuratzeko edo garatzeko. Ezin dugu ahaztu ikasleek “urritasunari buruz jakiteko” eskubidea dutela, eta irakasleen ardura dela kontzientziaio horretan laguntzea.

Hezkuntzako komunitate osoak ezagutu behar duen errealitatea da. **Agente guztiak estrategia egokiak garatu behar dituzte hezkuntza sistema gero eta inklusiboa izan dadin.**

Urritasunaren inguruan sentibilizatzeko eta urritasun hori ulertzeko lan pedagogikoa aurrera eramateko eta adimen urritasuna duten pertsonekin elkarbizitzeko balio egokiak ezartzeko, hezkuntzako etapa bakoitzera egokitutako materialak proposatzen ditugu. Azken helburua elkarbizitzara heltzea da, **pertsona bakoitza den bezala aitortu behar dela ulertuz, eta ez izan nahiko lukeen bezala.**

“Haur guztientzat eta haien desberdintasun guztientzat toki izango duten eta horiek errespetatuko dituzten ikasgelak sortzea denbora asko eskatzen duen erronka da... Aurrera jarraitu behar dugu borrokan gure adierazpenekin, gure irakaskuntza lanarekin eta gure curriculumarekin, inklusioa, justizia eta errespetua lortzeko ahaleginean”

(Stainback-Stainback, 1999)

IRAKASLE GUZTIARENTZAT

Hemen aurkezten ditugun materialak irakasle guztiei daude zuzenduta, **beren ikasgeletan adimen urritasuna duen ikaslerik izan edo ez.**

Merkatuan dauden hainbat material buruzko proposamenak biltzen eta eskaintzen dira; guztiak ere bilaketa eta azterketa sakona egin ondoren aukeratu dira, eta ikasgelan erraz eta uneoro erabili daitezke.

Jarduera bakoitza, bere materialekin, hezkuntzako etapetan (haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza) pentsatuz orientatu eta diseinatu da; hori dela eta, etapa bakoitzerako jarduera egokienak ere adierazten ditugu.



Etapak bakoitzean honako hau biltzen da:

- **Sentsibilizazio kartelak.**
- **Ipuinen, irakurketen proposamenak, bakoitza bere jarduerekin.**
- **Jolasak.**
- **Ikus-entzunezko euskarrian dauden materialak, filmak eta antzezlanak, ikusteko eta aztertzeko.**
- **Hala irizten badiote tutoreek garatu ditzaketen proposamenak.**

HEL- buruak

HELBURUAK

Materialen erabilerarekin bilatzen ditugun helburuak honako hauek dira:

• Bermatzea

Ikasleak, eskolako prozesu osoan, adimen edo garapen urritasuna duten ikaskideei buruzko informazio egokia eta egokitua izan dezan bermatzea.

• Heztea

Adimen edo garapen urritasuna duten pertsonetik jarraera positiboetan heztea (errespetua, tratu egokia eta elkarrekiko laguntza, etab.).



Tutoretzak lantzean honako hau bilatzen da:

- ▶ **Sentsibilizatzea** Gizakien arteko desberdintasunen inguruan.
- ▶ **Sentsibilizatzea** “Ikusten diren urritasunen” inguruan.
- ▶ **Sentsibilizatzea** Urritasunen inguruan haien sintomen arabera (adibidez, jokaera, komunikazioa...).
- ▶ **Planifikatzea** Etapa bakoitzerako egokiak diren jarduerak planifikatzea eta burutzea, era egituratuan eta eduki argiekin.
- ▶ **Implikatzea** Ikasleak jardueraren burutzapenean.
- ▶ **Akordioetara eta jardunbide adostuetara** heltzea.

MARKO teorikoa

INKLUSIORAKO ESKUBIDEA

Inklusioa, beste ezer baino gehiago, eskubidea da, baina argi dago oso kontzeptu zabala dela, eta argitu behar da. Definizio bat baino gehiago bildu eta kontuan har dezakegu, Pattersonena, adibidez: **“Norbanako bakoitzak bere balioa duela eta taldeko kide dela uste izatean oinarritutako bizitzeko modu bat da, elkarrekin bizitzeko era. Inklusioan oinarritutako eskola ikasle guztiak barne, partaide, sentituko diren eskola izango da”**. Horrek esan nahi du ikasle guztiak onartuak izan behar direla, bakoitzari bere berezitasuna aitortu behar zaiola, baloratu egingo direla, eta guztiek ere eskolan parte hartuko dutela, bakoitza bere gaitasunen arabera. Esan dugun bezala, FEVA Sen helburua, irakaskuntzari dagokionez, eskola inklusiboa da.

Eskola inklusiboa honela ulertu behar da:

- ▶ Ikasketarako eta parte hartzeko oztopoak identifikatzen dituen, ondoren murrizteko, eta, halaber bi prozesu horiek bultzatzeko baliabideak indartzen dituen.
- ▶ Ikasleen beharretan zentratzeaz gain, **eskolako testuinguruaren planteamenduei buruzko gogoeta** egiten duena.
- ▶ Ikasle guztiei, aurrera egiteko **hezkuntza alorreko aukerak eta laguntzak** ematen dizkiena.
- ▶ Ikasle guztiak ahalik eta irakaskuntza indibidualizatuenean parte har dezaten **prestatzen dituen ikasketak giroa** eskaintzen duena.
- ▶ **Aniztasuna arazo gisa ikusi beharrean** guztiontzat aberastasun gisa erakusten duena.
- ▶ Hezkuntzako Erkidegoak bere hartzen dituen **balio inklusiboak garatzen dituen**.
- ▶ **Desberdintasunean hezten duena**, bakoitzaren berezitasuna ezagutaraziz.
- ▶ **Aniztasunaren errespetuan, aitorpenean eta balioan hezten duena.**

Ikuspegi inklusiboak **aniztasuna irakaskuntza-ikasketa prozesua aberastuko duen elementu gisa** eta, ondorioz, giza garapena bultzatuko duen elementu gisa, baloratzea bilatzen du. Inklusioak **etengabeko hobekuntza prozesuarekin konpromisoa eta jarrera eskatzen du**; hezkuntzako kulturak, politikak eta jardunbideak aztertzeke eta horien gainean gogoeta egiteko eta oztopoak eta hobetu beharreko alorrak identifikatzeko esfortzua eskatzen du. Inklusioan aurrera egitea errespetu, tolerantzia eta elkartasun jarreretan aurrera egitea da; balioetan hezte da, baina balioak, erakustez gain, bizi egiten dira; elkarrekin biziz elkarrekin bizitzen ikastea da.

Helburu horiek errealitate bilakatzeko, eta desio onetan gera ez daitezen, beharrezkoa da Hezkuntza Erkidegoko agente guztiak informatzea, sensibilizatzea eta mentalizatzea, baita ikasleak ere; oso garrantzitsua da aniztasun hori ezagutzeko eta ulertzeko aukera izatea.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da irakasleek desberdintasunean hezteko erantzukizuna beren gain hartzea. **“Desber-**

dintasunek ikasteko aukera handiak eskaintzen dituzte. Desberdintasunak baliabide doakoa, ugaria eta berriztagarria dira”. (*Robert Barth 1990, Stainback eta Stainback-etik hartua, 2004, 26. orr.*)

Horrela, aniztasuna elkarrekintzak eta ikasketak aberasteko aukera gisa onartu ahal izango da. Beharrezkoa da “desberdintasuna sozializatzea”, informazioan eta elkarrekintzarako adibide egokietan oinarrituz.

“Ikasgelan denok nolabait desberdinak garela planteatzea, denak berdina garela, “Kepa” izan ezik, planteatzea baino askoz ere aukera aberasgarriagoa da”.

(*Parrilla, 2005, 121. orr.*)

Helburua ez da urritasuna ulertzea soilik, beste pauso bat eman behar da: urritasuna duten pertsonetikiko balio positiboak garatzea. Urritasuna duten pertsonak humanizatu, errespetatu eta dignifikatu dituzten balioak; tolerantzia, elkartasuna, errespetua eta inklusioa bultzatuko duten balioak.

Zalantzarik gabe, ikasle guztiei desberdintasunari buruzko informazioa ematea eta gai hori lantzea, eguneroko jardunaren bidez urritasuna duten pertsonekin nola aritu erakustea, oso lagungarri izango da elkarbizitza sustatzeko, enpatia –besteen tokian jartzeko eta besteak sentitzen duena sentitzeko gaitasuna– garatzeko, pertsonak hobeto onartzeko eta, azken finean, urritasuna duen edozein pertsonaren bazterketa saihestuko du.

Haurtzarotik balioetan heztea oso garrantzitsua da helburu horiek lortu ahal izateko. Horrela, desberdintasunen irakaskuntza-ikasketa prozesua sustatzeko lana egiteko orduan irakasleentzat lagungarri izango diren orientabideak eman nahi dizkiegu.

“Aniztasunaz hitz egiteak berdintasunez hitz egitera garamatza. Aniztasuna gizakiari loturik dagoen berdintasunaren adierazpen jakin bat baino ez da”.

(Parrilla 2003; 98.orr.)

FEVASen HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN aldeko apustua egiten dugu, hau da, guztiontzako eskola, pertsona guztiak bere izango dituen eskola, pertsona horiek era batekoak edo besteakoak izanik ere. Ikasgela eta eskola inklusiboak sortzen baditugu, desberdintasunak errespetatu dituzten eta desberdin ikusten dena baztertuko ez duten **gizarte inklusiboak lor ditzakegu. Aniztasuna aberastasunerako benetako balio gisa hartu behar da.**

Onartu behar dugu inklusioa prozesu bat dela izan ere eskolak aniztasunari erantzuteko erarik egokienak bilatu behar baititu. Horretarako estilo profesionala beharko da, irakasleek adimen urritasuna duten pertsonetikiko jarrera eta ekintza positiboak sor ditzaten; beharrezkoak dira **beraien inklusio jardunbideei buruzko gogoeta egingo duten eta aurrera egiteko helburuak ezarriko dituzten profesionalak.**

“Esperientziarengatik badakigu posible dela ikasle guztiak ikasgeletan izatea, baldin eta hezitzaileek horiek hartzeko, adiskidetasuna sustatzeko, curriculuma egokitzeko eta praktikak graduatzeko esfortzua egiten badute. Hala ere, erabateko inklusioa ez da beti erraza izaten. Ondorioz, beharrezkoa da helduek haurra baztertzearen bide erraza ez hartzea, gizarte inklusio egokia lortzeko soluzioak bilatzea baizik”

(Stainback eta Stainback, 1999, Parrillatik hartuta, 2005, 115. orr.)

ADIMEN URRITASUNA

Azken bi hamarkadatan aldaketa handia ikusi dugu urritasuna ulertzeko eran. Laguntzan eta gaitasun funtzionalen berreskuratzean zentratutako betidaniko planteamenduen orde, urritasuna duten pertsonak bizitzako alor guztietan parte har dezaten, aukera berdintasuna saihesten duten oztopoak identifikatzean eta kentzean oinarritutako beste planteamendu batzuk ezarri dira.

Uste dugu gure gizartea antolatzeko modua aldatzen badugu, urritasuna duten pertsonak aurkitzen dituzten oztopoak asko murriztu daitezkeela, kasu askotan desagertu ere egin daitezkeela. Gaur egun inklusioa bultzatzen da, mugatuagoa den egokitzenaren helburuaren gaineratik, hori baita urritasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta gizarte aktiboan parte hartzeko aukera ematen duen faktore nagusia.

Urritasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapenaren (CIF, OME-ak 2001ean onetsia) arabera, urritasuna duen pertsona, zenbait faktore elkarrekin aritzen diren in-

guruan dago. Faktore horiek funtsezkoak izan daitezke aukera berdintasun egoera edo bazterketa egoera izateko. Sistema horren eraketa zehatza egin ahal izateko beharrezkoa izango da faktore horiek identifikatzea, haien jokaera aztertzea eta pertsonarekiko berdintasuna edo bazterketa lortzeko orduan duten eragina ikustea.

“Gure gizartea antolatzeko modua aldatzen badugu, urritasuna duten pertsonak aurkitzen dituzten oztopoak asko murriztu daitezkeela, kasu askotan desagertu ere egin daitezkeela”

CIF 2001ak bi azpi-talde nagusitan antolatzen du informazioa:

1. FUNTZIONAMENDUA ETA URRITASUNA

1 a) Funtzionamendua:

Norbanako baten elkarrekintzaren (“osausun baldintza” batekin) eta testuinguruko faktoreen alderdi positiboak adierazten ditu. Bertan sartzen dira Gorputzaren Funtzioak, Gorputzaren Egiturak, Jarduerak eta Parte hartzea.

1 b) Urritasuna:

Norbanako baten elkarrekintzaren (“osausun baldintza” batekin) eta testuinguruko faktoreen alderdi negatiboak adierazten ditu. Bertan sartzen dira Gorputzaren Funtzioen eta Gorputzaren Egituren gabeziak, Jardueran dauden mugak eta Parte hartzeko zailtasunak.

2. TESTUINGURUKO FAKTOREAK

Norbanako baten bizitzaren eta bizimoduaren oinarria dira. Bertan Ingurumenearekin eta Pertsonarekin erlazionatutako faktoreek dute eragina.



Adimen Urritasunari buruzko Elkarte Amerikarrak (AAIDD) honela definitzen du adimen urritasuna: "adimen funtzionamenduan zein egokitze jokaeran, egokitze gaitasun kontzeptuzkoetan, sozialetan eta praktikoetan adierazitakoan, muga esanguratsuak dituen urritasuna. Urritasun hori 18 urte bete aurretik sortzen da"

(Luckasson eta cols)

Definizio hori abiapuntutzat hartuta, **pertsona batek adimen urritasuna izan dezan hiru irizpide bete behar ditu:**


- Muga esanguratsuak adimen funtzionamenduan.
- Muga esanguratsuak egokitze jokaeran.
- Urritasuna 18 urte bete aurretik agertzea.

AAIDD-aren iritziz, **BOST PREMI-SA** hartu behar dira kontuan definizioa aplikatu ahal izateko:

- Funtzionamenduan ematen diren mugak, adin eta kultura berekoen erkidegoko giro tipikoen testuinguruarekin erlazionatuz hartu behar dira kontuan.
- Baliozko ebaluazioak kontuan izan behar ditu kultur eta hizkuntz aniztasuna, bai eta komunikazioarekin eta zentzumenekin, trebezia motoreekin eta jokaerarekin erlasionaturiko desberdintasunak ere.
- Mugak, sarri askotan, bat datoz norbako baten gaitasunekin.
- Mugak deskribatzeko orduan xede garrantzitsua da beharrezko laguntzen profila garatzea.
- Eman beharreko laguntzak denbora luzean ematen badira, kasu gehienetan urritasuna duen pertsonaren bizitza funtzionamenduak hobera egingo du.

Beraz, eredu teorikoa aldatu egiten da aurreko definizioekin alderatuz. Norbanako baten adimen mugak ez dira nahiko norbait adimen urritasun gisa baloratzeko. Kontuan izan behar da pertsonaren eta inguruaren arteko elkarrekintza. Inguruari garrantzia ematearen ikuspegi hori da, baita ere, 1978an Warnock txostenak hartu zuena, hezkuntza, behar berezien kontzeptuan sartzean eta behar horien alderdi erlatiboa eta interaktiboa azpimarratzean.

AAIDD-ak kontuan hartzen duen adimen urritasunaren eredu teorikoa honako hau da:



Dimentsio bakoitzeko garrantzitsuena laburbilduz:**1. Adimen gaitasunak:**

Adimena gaitasun orokor gisa hartzen da, eta haren barruan sartzen dira arrazoiketa, plangintza, arazoen konponketa, kontzeptu abstraktuen pentsamendua, ideia konplexuen ulerpena, azkartasunez ikastea eta esperientziatik ikastea.

2. Jokaera moldatzailea:

Pertsonak, beraien eguneroko bizitzan funtzionatzeko ikasi dituzten gaitasun kontzeptuzkoen, sozialen eta praktikoen multzoa da.

Kontzeptuzko trebezien, trebezia sozialen eta praktikoen ADIBIDEAK:**A. Kontzeptuzkoak**

- ➔ Hizkuntza (hartzailea eta adierazlea)
- ➔ Irakurketa eta idazketa
- ➔ Diruarekin erlazio-tutako kontzeptuak
- ➔ Zer egin nahi duten jakitea

B. Sozialak

- ➔ Interpertsonala
- ➔ Erantzukizuna
- ➔ Autoestimua
- ➔ Sineskortasuna (engainatua edo manipulatu izateko aukera)
- ➔ Xalotasuna
- ➔ Arauak jarraitzea
- ➔ Legeak betetzea
- ➔ Biktimizazioa saihestea

C. Praktikoak

⇒ **Eguneroko bizitzako jarduerak**
Jatea, transferentzia / mugikortasuna, garbitzea, janztea

➔ **Eguneroko bizitzako jarduera instrumentalak**

Janariak prestatzea, etxea garbitzea, garraioa, botikak hartzea, dirua erabiltzea, telefonoa erabiltzea

- ➔ Lanbide hastapeneko trebeziak
- ➔ Inguru osasungarria izatea

3. Parte hartzea, interakzioak eta gizarte rola:

Dimentsio honek, norbanakoak erkidegoan duen parte hartzea eta bertan betetzen duen tokia ebaluatzen du.

4. Osasuna (fisikoa, burukoa, etiologia):

Osasunaren Mundu erakundeak emandako definizioa kontuan izanik, erabateko ongizate fisikoa, burukoa eta soziala dela ulertzen da.

5. Testuingurua (giroak eta kultura):

Dimentsio honek, urritasuna duen pertsonak egunero bizi dituen baldintzak deskribatzen ditu. Gutxienez hiru maila biltzen dituen Bronfenbrenner-en eredu ekologikoan oinarritzen da:

• **Mikrosistema:** hurbileko inguru soziala, pertsona, familia eta inguruko beste zenbait pertsona barne.

• **Mesosistema:** auzokideak, erkidegoa eta hezkuntza edo laguntza zerbitzuak eskaintzen dituzten elkarteak.

• **Makrosistema:** kultur patroia orokorrak, gizarte, herrialdea edo eragin sozio-politikoak.

“Inguru erabilerrazen egokitzapena eta diseinua ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonen funtzionamendua hobetzeko”

Kontzeptu berri horretan, bere gaitasunetan muga jakin batzuk dituen pertsonaren funtzionamenduan inguruak duen garrantzia aitortzen da. Hau da, **atzerapena ez dago pertsonan edo inguruan, baizik eta pertsonak, bere inguruan aritzeko dituen gaitasunen ondoriozko funtzionamenduan.**

Pertsonen gaitasunak genetikoki markaturik datoz, baina gaitasun horiek garatzea ez da genetikaren kontu soila: testuinguruak ere badu eragina. Beraz, ingurua lagungarria edo ez hain lagungarria izan daiteke. Inguru erabilerrazen egokitzapena eta diseinua ezinbestekoa da adimen urritasuna duten pertsonen funtzionamendua hobetzeko.

Garrantzitsuena, pertsona urritasunaren gaitetik dagoela ulertzea da; beste ezer baino lehen pertsona bat ikusi behar dugu, bere eskubideak onartu eta garapenerako aukerak eskaini.

AUTISMOAREN ESPEKTROAREN NAHASKETAK (TEA)

TEA hitzak dimentsio desberdinen jarrapena azpimarratzen du, kategoria bakarra kontuan hartu beharrean. **TEA duten pertsonengan era kualitatiboan aldatzen da gizarte elkarrekintzarako, komunikaziorako eta irudipenerako gaitasunen multzoa.** Ondoren laugarren faktorea ere sartu zen: jardueren eta interesen patroia errepikakorrak.

Horrek esan nahi du TEA duten baina oinarrizko sintoma anitzak dituzten pertsonak aurkituko ditugula:



“Nahasketa neuro-psikiatrikoak dira, mota askotako adierazpen klinikoak dituzte eta nerbio sistema zentralaren garapenerako faktore anitzeko disfuntzioen ondorio dira. Zergati organiko desberdinak dituen adierazpen kliniko espektro zabal horren ezaugarria zenbait funtzio fisiologikoren eta neuropsikologikoren ukipen nuklearra da”

(Autismo-Europa)

1. Elkarrekiko gizarte elkarrekintzaren garapeneraren nahasketa

Pertsona batzuegan gizarte isolamendua ikusten dugu; beste batzuk pasibo egoten dira, besteenganako interes gutxi erakutsiz. Pertsona batzuek era arraroan ezar ditzakete gizarte harremanak. Orokorrean, gizartearen arauak ulertzeko eta emozioak, pentsamenduak eta interesak konpartitzeko zailtasunak izaten dituzte. Ez dituzte ulertzen esanahi bikoitza duten esaldiak, zailtasunak dituzte besteen intentzioez jabetzeko. Hori guztia dela eta, pertsona horientzat zaila izaten da gizarte harremanak ezartzea.

2. Ahozko komunikazioaren eta ahozkoa ez denaren nahasketa

Pertsona batzuek ez dute inolako hizkuntza motarik garatzen; beste batzuk sistema alternatiboak edo komunikazio handigarriak erabiliz komunikatzen dira.

Sarri askotan, beraien hizkuntz trebezien era eta edukia desberdinak izaten dira. Batzuek ekolalia izan ohi dute, hau da, hitzen edo esaldien errepikapena; inbertsio

pronominala eta hitzen asmakuntza.

Aurpegiko adierazpenak, jarrerak edo keinuak ulertzeko zailtasunak izan ohi dituzte; jokaera horiek gizarte elkarrekintza zailtzen dute. Ez dute hizkuntza erabiltzen esperientziak konpartitzeko. Zailtasunak dituzte elkarrizketa bat hasteko edo jarraitzeko; ez dituzte txantxak, ironia eta esanahi bikoitzak ulertzen.

3. Interesen eta jokaeren errepertorio mugatua

Pertsona gehienek ez dute ohiko simulazio, fikzio edo fantasia jolasa garatzen, eta horrek asmo mugatzen du besteen emozioak eta intentzioak ulertzeko gaitasuna. Oso zaila egiten zaie gertatu behar dena aurrez ikustea.

Jokaeraren patroiak errepikakorrak eta erri-tozkoak dira, eta ezohiko objektu bitxiak hurbileko izan ditzakete. Pertsona batzuek interes bereziak izaten dituzte. Horrez gain, ez ohiko sentsibilitatea erakusten dute sentimeneen estimuluaren aurrean. Mugimendu estereotipatuak izaten dituzte: hegaz egitearen itxura, eskuak igurztea, balantza egitea...

Marko teorikoa

Nahasketa horiez gain, TEA duten pertsonak loturiko bigarren mailako sintomak izaten dituzte. Ohikoenak honako hauek izaten dira: krisi epileptikoak, elikaduraren nahasketak, loaren nahasketak, inpulsibitatea, hiperaktibitatea, adimen urritasuna...

Autismoaren jatorria oso argi ez dagoen arren, jatorri biologikoa duen nahasketa dela uste da. Baron-Cohen eta Bolton-en arabera, zergati biologikoen artean faktore genetikoa, infekzio birikoak eta haurdunaldian edo erditzean gertaturiko zailtasunak daude; horietako edozeinek sor dezake TEA eragiten duen buru kalte arina. Zergati biologiko horiek ez dira haur guztiengan aurkitzen, eta horrek esan nahi du oraindik beste zenbait faktore biologiko aurkitu gabe daudela.



TEAk eragin handiagoa du gizonezkoen artean (hiru bider gehiago ematen da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino), baina emakumeek pronostiko larriagoa izaten dute. Ez dakigu zergatik dauden desberdintasun horiek gizonezkoen eta emakumezkoen artean.

Joaquín Fuentesen iritziz (Gipuzkoako Poliklinikako haur eta gazte psikiatria zerbitzuko burua), Euskadin 250 haurretatik 1ek TEA-ren bat erakusten du, kasu arinenetatik hasi eta larrienetaraino.

TU- toretzak

Ikasle talde bakoitzak, bere ezaugarriak eta beharrak ezagutzen dituen irakasle tutore bat du bere eskola bizitza osoan. Tutore horren lana ezinbesteko laguntza da ikasleentzako trebakuntza integralerako, izan ere, hezkuntzako etapa bakoitzean ezaugarri edo jokaera desberdinak dituen arren, beti ere ahalegina egingo baitu ikasgelan harmonia egon dadin helburuen, edukien eta taldearen sozializazio prozesuaren artean.

Gure iritziz tutoreen lana **prozesu jarraitua da eta ikasleei munduaz eta besteez duten ikuspegi propioa eraikitzen lagundu behar die**; horrek diziplina anitzeko jarduerak burutzea eskatzen du, izan ere, **tutoretzak hezkuntza ekintza eta irakas-kuntza lana osatzen baititu**.

UNESCO-ren aurrean aurkeztutako XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordearen txostenaren arabera “hezkuntza, bizitza osoan, lau zutabetan oinarritzen da: **ezagutzen ikasi, egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi eta izaten ikasi**”. Horretarako tutorearen lana funtsezkoa da; ikasleari laguntzen dio hezkuntza prozesu osoan, ezagutzaren eta ikasketaren aldeko jarrerak bultzatuz eta sormena, autonomia eta erantzukizuna sustatuz.

“Desberdintasuna ez da bakoitza den izaki errepikaezin horren adierazpen soila, kasu askotan, izatera heldu ahal izanaren, izateko aukera gehiago edo gutxiago izatearen eta gizarte, ekonomia eta kultura alorretako ondareetan parte hartzeko adierazpena ere bada”

(Gimeno Sacristán, 1999, López Melerotik hartua 2004, 69. orr.)



Tutoreak ikaslea bere ikasketa prozesuan bertan inbolukratzen du ikasgai bakoitzaren programan beren beregi biltzen ez diren trebatze eta heltze prozesuaren zenbait alderdi lantzen baititu. Horrela, **balioetan hezten du eta ikasleentzat eredu da, erreferente garrantzitsua**. Helduak beti dira funtsezko elementua; esaten eta egiten dutena, nola jokatzen duten eta nola zuzentzen diren urritasuna duten pertsonengana, imitatzeko eredu izango dira ikasle guztientzat. Hau da, **haurrek helduengan ikusten dituzten jarre-
rek eta jokaerek zerikusi handia izango dute urritasuna duten pertsonetikiko balioak ezartzeko orduan. Hori guztia “curriculum ezkuaren” parte da**. Oso garrantzitsua da argi izatea eta ondorio hori ezagutzea, desberdintasuna onartuko, errespetatuko eta aitortuko duen eredu inklusiborantz aurrera egin ahal izateko.

Tutoretzak oso une egokia dira eskolako antolakuntzan pertsona eta gizarte mailako trebakuntza hedatuko duten zenbait gai lantzeko orduan. Hori dela eta, tutoretza lana, ongi planifikatuta baldin badago, oso erabilgarri izan daiteke ikasleak adimen edo/eta garapen urritasunaren inguruan sentsibilizatzeko.

Gure esperientziak erakutsi digu **irakasleek, gai jakin batzuen inguruan, adimen urritasunaren inguruan, adibidez, sentsibilizatu ahal izateko eta ideia garrantzitsuak transmititu ahal izateko, horrekin bat datozen sinesmenak eta jarrerak izan behar dituztela, seguru sentitzeaz gain.**

Horretan laguntzeko oinarritzko ezagutzak emango ditugu, eta baita ikasgela barruan erabili beharreko zenbait material, ikasleak sentsibilizatzeko eta beraien artean urritasuna duten pertsonetik jarraera positiboak sortzen laguntzeko.

Emaitzak lortzeko oso garrantzitsua da profesionalek adimen edo/eta garapen urritasuna duten pertsonengan sinestea eta eskolan elkarrekintzarako eredu positibo gisa agertzea, horrela urritasuna duten pertso-

Informazioaren eta sentsibilizazioaren bidez berezko laguntza sortuko dira ikasgelako ateak zeharkatzen dituzten eta adimen urritasuna duten pertsonentzat.

nak ulertzeko eta beraienganako ulermen eta arreta giroa sortzeko.

Hau da, **tutoretzak eguneroko jardunaren osagarria dira; ikasleak onespenerako prestatu ahal izateko, irakasleek aniztasuna eta urritasuna onartu behar dituzte.**

Ezinbestekoa da irakasleek ikasleak motibatzea besteak onar ditzaten. Beraz, desberdintasunak aurkitzen, ezagutzen eta errespetatzen lagundu beharko diete, gelan horretarako giro egokia ezarriz. Guztien errespetuan eta onarpenean hezi behar dituzte, elkarlanean eta elkarrekiko laguntzan eta erantzukizunean. Komenigarria da **informazioaren eta sentsibilizazioaren bitartez berezko laguntzak sortzea ikasgelako ateak zeharkatzen dituzten eta adimen urritasuna duten pertsonentzat.**



Adimen edo/eta garapen urritasuna duten pertsonak dauden ikasgeletako ikasleek ezagutzen dute zer den desberdintasuna, beraien ideiak sortu dituzte urritasuna duen pertsonarekin izandako esperientziaren arabera, helduei pertsona horiekin ikusten dieten jarreraren arabera eta beraien gurasoen eta inguruko iritzia kontuan izanik. Kasu horretan, ikasleek beraien informazioa jaso dute, eta beha-

rezkoa da irakasleek, tutoretzen bitartez, ikasleen iritzia ezagutzea, iritzi hori aztertzea eta egituratzea eta eman beharreko azalpenak ematea. **Garrantzitsua da, baita ere, familiari baimena eskatzea edozein ekintza edo jarduera burutu ahal izateko.**

Irakasleei ematen zaien laguntza osatzeko, **“sareko” lanaren** edo elkarlanaren ideia gomendatuko genuke. Kasu horretan, urritasuna duten pertsonak beraiak, auto-kudeatzaileen taldeen bitartez, une batzuetan tutoretzetan har dezakete parte, beraien esperientziak ezagutarazteko... Auto-kudeatzaileak, adimen urritasuna duten pertsona helduak dira, eta aldian behin beraien elkarteetan biltzen dira, komunikaziorako trebeziak jasotzeko, pertsona eta gizarte mailan autonomia handiagoa lortzeko eta beraien kabuz hitz egiteko eta erabakitzeak aukerak zabaltzeko. Horrez gain, beraien eguneroko bizitzan erabakiak hartzen eta pertsona eta hiritar gisa beraiei ere dagozkien gai praktikoen inguruan eztabaidatzen ere ikasten dute. Adimen urritasuna duten pertsonen elkarteetan oso ohikoa da talde horiek eratzea.

“Aniztasunaz hitz egiteak berdintasunez hitz egitera garamatza. Aniztasuna gizakiari loturik dagoen berdintasunaren adierazpen jakin bat baino ez da”.

(Parrilla, 2003:98).

INFOR-
MAZIO
Osagarria
Adimen urritasuna

ATAL HONETAN HAINBAT LIBURUREN ETA HAINBAT WEB GUNEREN ERREFERENTZIA SARTUKO DUGU, LAGUNGARRI IZAN DAITEZKEELAKO IRAKASLEEK ADIMEN URRITASUNARI ETA GARAPENAREN BESTE NAHASKETA BATZUEI BURUZ GEHIAGO JAKIN DEZATEN

Déjame que te hable de los niños y niñas con autismo de tu escuela. Hernández, J; Martín, A. y Ruíz, B. (2007). Madrid: Teleno Ediciones, S.L.

Liburu hori lagungarri izan daiteke autismoaren espektroko nahasketa duten ikasleen aurrean erantzun egokia emateko.

¡Mírame! Forma de ser. Forma de actuar. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

¡Escúchame! Relaciones sociales y comunicación. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

¡Atiéndeme! Ocio y aprendizajes. Alonso-García, J. (2005). Madrid: Cepe.

Andresen bitartez, garapenaren nahasketa jeneralizatua (GNG-TGD) diagnostikatu zaion kasu errealeran hurbiltzeko aukera emango diguten hiru liburu.

Actividad física adaptada: El juego y los alumnos con discapacidad. Ríos Hernández, M; Blanco Rodríguez, A; Bonany Jané, T. y Carol Gres, N. (2006). Barcelona: Paidotribo.

Liburu honetan zenbait sentsibilizazio jolas biltzen dira, aniztasunaren errespeturako bide gisa.

“Valora la diferencia” ikasgelatik urritasuna lantzeko prestatu den hezkuntza programa da. Jerezko Udalak, Omad bulegoaren (Oficina Municipal de Atención a la DISCAPACIDAD) bitartez, honako gune honetatik jaitsi daitezkeen programa hauek bultzatzen ditu:

<http://www.omad.jerez.es/index.php?id=11>

Oinarrizko premisa honako hau da:

- Bazterketa ezaren gehi ekintza positiboaren emaitza gizartratzea da.

Lan horiek lantzeko honako material hauek jaitsi daitezke:

- Hezitzailearen Gidaliburua - Guía del educador.

- Lehen Hezkuntzako Unitatea - Unidad Primaria.

- Bigarren Hezkuntzako Unitatea - Unidad Secundaria.

- Batxilergoko Unitatea - Unidad Bachillerato.

Jarduera gehienak gehiago zentratzen dira sentimen urritasunetan edo urritasun fisikoetan.

La discapacidad en el cine. Alegre de la Rosa, O.M. (2003). Barcelona. Ediciones Octaedro.

Liburu horrek Hezkuntza Bereziak zinean izan duen historia laburbiltzen digu. Filmak laukietan agertzen dira sailkatuta. Eta zinea irakaskuntzarako baliabidea dela kontuan izanik, liburua-aren amaieran zenbait gidoi ditugu, ikasleekin urritasunaren gaia landu ahal izateko.

Web gune interesgarriak:

FEVAS Adimen Urritasuna duten pertsonen aldeko Elkarteen Euskal Federazioa.
www.fevas.org

FEAPS Confederación Española de Organizaciones a favor de las personas con discapacidad intelectual
www.feaps.org

Attem Asociación para el tratamiento de personas con alteraciones del desarrollo
www.attem.com

CERMI Comité Español de Representantes de personas con discapacidad
www.cermi.es

Confederación Autismo España
www.autismo.org.es/AE/default.htm

Creena Centro de Recursos de Educación Especial de Navarra. Departamento de Educación del Gobierno de Navarra
www.pnte.cfnavarra.es/creena/003Documentacion/descargar.html

Discapnet El portal de la discapacidad
www.discapnet.es

Inico Instituto Universitario de Integración en la Comunidad
inico.usal.es

Junta de Andalucía Los trastornos generales del desarrollo. Una aproximación desde la práctica
www.juntadeandalucia.es/educacion/nav/contenido.jsp?pag=/Contenidos/PSE/orientacionyatenciondiversidad/educacionespecial/Publicaciones

NeedDirectorio. Recursos para la Atención a la Diversidad. Región de Murcia Consejería de Educación y Ciencia
www.needirectorio.murciadiversidad.org/

Real Patronato sobre Discapacidad
www.rpd.es

BIGARREN HEZKUNTZA



Hauek dira Bigarren Hezkuntzako etapako tutoretzan landu beharreko *helburuak*:

- 1** Urritasunaren ezagutza sakontzea eta kausak aztertzea.
- 2** Laguntzen garrantziaz jabeaztea ikasleak.
- 3** Laguntzarako estrategia egokiak bultzatzea ikasleen artean.
- 4** “Guztiori gerta dakigukeela” ikusaraztea ikasleei.

URRITASUN MOTEN POSTERRA




1
jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 1

FEVAS-ek egindako urritasun moten posterra



FEVASen sentsibilizazio-posterra erabil daiteke adimen urritasunari buruzko gogoeta eta ezagutza bultzatzeko. Halaber, garrantzitsua da eztabaidarako beste osagai batzuk planteatzea.



Jardueraren
Ondorioa

**Urritasuna ez da
eragozpena ametsak
betetzeko.**

Beste proposamen bat urritasunen bat izan zuten edo duten pertsonaia ospetsuak oinarri hartuta lan egitea izan daiteke.

Pertsonaia ospetsuen argazkiak ematea proposatzen dugu, izenekin eta haien lanaren eta urritasunaren gaineko deskribapen batekin. Ikasleek horri buruzko lanak eta erakusketak egin ditzakete.



Urritasunen bat duten pertsonaia batzuei buruzko informazioa:

José Feliciano

(Lares, Puerto Rico, 1945eko irailak 10).

Bolero eta balada abeslari bat da, gitarra espainiarraren jole nabarmenetako bat. Ikusmenean du urritasun bat, baina 60 album grabatu ditu, bai ingelesez, bai espainolez. Musikari birtuoso da, oso ondo dakielako hamar instrumentu baino gehiago jotzen eta sei hizkuntzatik gora dakizkielako.

Stevie Wonder

(1950eko maiatzak 13).

Abeslaria, konpositorea, diskografia ekoizlea, musikaria eta gizarte militante estatubatuarra da. Salmenta arrakasta izan duten 30 abesti baino gehiago grabatu ditu; 24 Grammy sari irabazi ditu. Hainbat album grabatu ditu; beste artista batzuentzat ere idatzi eta ekoitzi ditu lanak. Hainbat instrumentu jotzen ditu: bateria, baxua, konga, pianoa, aho-soinua eta teklatuak. Urritasuna du ikusmenean haurtzarotik.



Ludwig van Beethoven

(Bonn, 1770eko abenduak 16 – Viena, 1827ko martxoak 26).

Konpositore eta piano-jole alemana izan zen. Genero ugaritan adierazi zuen bere artea, eta batez ere sinfoniengatik ospea lortu bazuen ere, eragin nabarmenagoa izan zuen piano eta ganbara-musikarako bere lanak. Beethovenen aitak ume birtuoso bihurtu nahi zuen eta txiki-txikitatik hasi zitzaion irakasten. Gorreria goiztiarraren tragediak ez zion galarazi konposizio berriak sortzea.



Marlee Matlin

(1965eko abuztuak 24).

AEBko aktorea. “Jainko txikiago baten seme-alabak” filmarekin estreinatu zen zinemagintzan; aktorea dramatikoaren Urrezko Globo eta aktorea onenaren Oscar sariak irabazi zituen. Hainbat filmetan eta serietan hartu du parte. 18 hilabete zituela galdu zuen entzumenik gehiena.

Temple Grandin

(1947ko abuztuak 29).

Coloradoko Estatu Unibertsitateko irakaslea eta hiltegien diseinatzailea da. Animalia Zientzietako doktoregoa lortu zuen Illinois-eko unibertsitatean. Gaur egun animalien jokabidearen psikologiako irakaslea da Coloradoko Unibertsitatean. Gainera, hainbat liburu idatzi ditu, adibidez: Thinking in Pictures eta Animaliak interpretatzea. Autismoa du, baina gaitzak ez dio galarazi interesatzen zaion arloan jarduten.

Stephen Hawking

(Oxford, 1942ko urtarrilak 8).

Erresuma Batuko fisikari, kosmologo eta zientzia-dibulgatzailea da. Hainbat sari eman dizkiote, horien artean 12 honoris causa doktorego. 1963ko hasieran, neuronon mugimendu-gaitzaren diagnostikoa egin zioten: alboko esklerosi amiotrofikoa. Ahots-sintetizagailua erabiltzen du komunikatzeko. Ia ez du mugikortasunik. Ordenagailu bidez kontrolaturiko gurpila erabiltzen du.

EZ GARA HAIN DESBERDINAK



2 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 2

EZ gara hain desberdinak

Dokumentalak ikustea proposatzen dugu urritasun desberdinetara hurbiltzeko.

Material gomendatua:

Bideoa: **“Giza urritasunak”**

GIZA URRITASUNEI buruzko 13 bideoren bilduma bat dago, Urritasuna duten pertso-
nen lankidetzarako eta gizarteratzerako ONCE Fundazioak, Europar Batasunak (Euro-
pako Gizarte Funtsa) eta FAROk aurkeztua 2003an.

Bildumak hiru kapitulu ditu:

1. Aurkezpena

2. Ikusmen urritasuna

3. Entzumen urritasuna

4. Adimen urritasuna

5. Buruko paralisia

6. Muineko lesioa

7. Min fisikoak

8. Garuneko gaitza

9. Autismoa

10. Down sindromea

11. Parkinson

12. Eskizofrenia

13. Ezohiko gaixotasunak

Lehen kapituluan aipatzen denez, hiru milioi lagunek dute urritasuna Espainian. Hortaz, norberaren hurreneko ingurua aintzat hartzen bada (familia), kontuan izan behar dugu pertsona asko egunero urritasunarekin bizi dela.

Bideo horien bidez, pertsona guztiak eskubide berdinak dituztela eta aukera berdinak izan behar dituztela jakin behar dira ikasleak.

Gutxi gorabehera ordu erdiko iraupena duen eta adimen urritasuna lantzen duen kapitulu honetan, hainbat lekutan agertzen dira pertsonak (Madril, Valladolid, Donostia, Santander, Oviedo), eta haien esperientziak kontatzen dituzte. Esate baterako, adimen urritasuna duten pertsonak dira, adimen urritasuna duten seme-alaben gurasoak, hainbat elkartetan lan egiten duten profesionalak, etab.

You Tuben ikus daitezke bideoak.

<http://www.youtube.com>

BIDEOAN AGERTZEN DIREN OINARRIZKO IDEIEN LABURPENA:

- “Ikerketarik berrienak frogatzen dutenez, adimen urritasuna duten pertsonen ikaste-prozesuaren garapenak gainerako pertsonen bide bera jarraitzen du.” Hala ere, ikaste-prozesu hori motelagoa dela aitortu beharra dago
- Ume baten aitak: “Zuk seme-alabak zorientsuak izatea nahi duzu eta zorientsuak izan daiteke oinez ibili barik, ibiliaz, ez dago zertan ume perfektua izan.” Nork bere posibilitateak ahalik eta gehien erabiltzen saiatzea da funtsezkoena.
- Ingurune lagungarriak sortzea, hots, laguntzak ematea adimen urritasuna duten pertsonen gizartearen parte hartzeko modua izan dezaten.
- Adimen urritasuna duten pertsonak hartu behar ditugu aintzat.
- Gizartearen parte-hartzea bultzatu behar da pertsona horien aldeko borrokan.
- Pertsona horien lana funtsezko tresna da, gizarteratzea errazten duena.

- Normaltasunez hurbildu behar dugu urritasuna duten pertsonengana; hortaz, albo batera utzi behar dira zenbait sentimendu: errukia, etab.
- Hauxe komentatu du profesional batek: “Irudiaren munduan bizi gara, polita denak konfiantza ematen digu eta deigarriena zaigunak defentsara jokarazten digu. Berriz diot, itxuraren atzean giza ahalmen ikaragarriak dituzten pertsonak daude.”
- Adimen urritasuna duten pertsonak ere zahartuz doaz eta profesionalak erantzun egokiak eman behar dizkiete nahitaez, programa espezifikoak sortuz, etab. Azken urteetan, gora egin du urritasuna duten pertsonak zahartzen direnean zer gertatzen den aztertzeke interesak.
- Javier Tamarit-ek, FEAPSkon kalitate arduradunak, hauxe gogorarazten digu: “Inor ez da pertsona hobetua adimen handiagoa edo txikiagoa izateagatik. Pertsona izatea ez da azaltzen norberak duen adimen mailagatik, ezta altueragatik edo pisuagatik edo kirola egiteko gaitasuna-

gatik ere. Giza kalitatea gizakiari berari datzekio, giza munduan izate hutsagatik, giza testuinguruan egoteagatik. Eta, beraz, pertsona orok merezi ditu eskubideak testuinguru horretan eta pertsona orok merezi du herritarra izatea.”

PROPOSATURIKO JARDUERA

Idea nagusiak biltzea. Guztien artean go-goeta egin daiteke; deigarriena egin zaiena eta zergatik azal dezake bakoitzak.



GOGOETA EGIN DEZAGUN



3 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 3

GOGOETA egin dezagun

Gaia sakontzeko hainbat irakurketa proposatzea da kontua.

Material gomendatua:

”Yo como tú” Villaró, G; Fernández, H. y Gallardo, A. (Coords.). De la Mano, P. y De la Mano, D. (Auto-reak). (2005). Madril. FEAPS Madril.

Lau ardatzetan dago egituratuta argitalpen original hau, eta filmeko haria Diego da, adimen urritasuna duen gazte bat. Aurrez ditugun ideiak desegiteko balio du dokumentuak, eta adimen urritasuna duten pertsonen egungo irudia erakusten digu.

Argitalpena eskuragarri dago Interneteko orri honetan:

http://www.infodisclm.com/documentos/educacion/yo_como_tu.html

“Liburuari buruzko hitzezko irakurketa egin dezakegu. Irakurketa, ikuspegi horretatik, testuinguru jakin batean gertatzen da, motibagarria da, gogoeta kritikoa bultzatzen du; zentzua du”

(Alonso, M.J. y Soler, M. 2008)

“Esperientzia, bizipen eta jakintza desberdinak dituzten ikasleen arteko interakzioak eta elkarrizketak bultzatzen direnean, kutsatu egin daiteke irakurtzeko motibazioa, jarduera interesgarriagoa bilakatzen baita”

(Adarra, 2006)



PROPOSATURIKO JARDUERA

Literatur solasaldia egin **“Ni zu bezala”** oinarri hartuta. Literatur solasaldia jarduera hezigarria eta kulturala da, non partaide guztiek euren esperientzia eta gogoeta kritikoa, gogoetak eta eztabaidak egiten dituzten eta argudioak ematen dituzten.

Hauxe izan daiteke hori burutzeko prozesua:

1. Zenbat orrialde irakurriko dituzten zehaztuko da, ikasle bakoitzak deigarriena edo harrigarriena egiten zaiona azpimarratuko du...

2. Moderatzaile bat egongo da literatur solasaldian; inork bere iritziak ez inposatzeko ardura du, hitz egiteko txanda ematen du eta lehentasuna ematen die berba gutxien egiten dutenei.

3. Azken xedea gogoeta kritikoa egitea eta adimen urritasuna duten pertsonen inguruko aurretiazko ideiak desegitea da.

Batez ere hauexek nabarmendu behar dira adimen urritasuna duten pertsonen inguruan:

- ➔ **Pertsonak dira**
- ➔ **Gozatzen dute**
- ➔ **Laguntzak dituzte**
- ➔ **Ordutegiak jarraitzen dituzte**
- ➔ **Etorkizun hobea bilatzen dute**
- ➔ **Gaitasunak dituzte**
- ➔ **Mugak dituzte**
- ➔ **Lan duina lortzeko prestatzen dira**
- ➔ **Pertsonak behar dituzte**
- ➔ **Ekarpenak egiten dizkiete besteei**
- ➔ **Eskubideak eta betebeharrak dituzte**



Adimen urritasuna duten pertsonak ez dira oso desberdinak zurekin alderatuta: gozatu egiten dute, lagunak dituzte, gaitasunak eta mugak dituzte, eskubideak eta betebeharrak dituzte...



LAGUNTZAK DISEINATUZ



4 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 4

LAGUNTZAK DISEINATUZ



Adimen urritasuna dutenek mundua ulergarriagoa egiteko zenbait laguntza emateko modua eskaintzea da kontua, eta zehazkiago, autismoa dutenei.

Material gomendatua:

“**María y yo**” Gallardo, M. (2007).
Bilbo: Astiberri Edizioak.
Adin gomendatua: 15 urtetik gora.

Miguel ikusizko komunikazioa izaten dago ohituta Maria alabarekin; izan ere, Mariak autismoa du. Alabarekin izandako interakzio horren emaitza den liburua aurkezten digu.

PROPOSATURIKO JARDUERA

Landu ondoko galdera hauek.

1. Miguelek dio ez duela gustuko Mariari begiraten diotenean pertsona batzuk jartzen duten zenbait aurpegi. Marraztutakoaz gain, besterik gehituko al zenuke? Zergatik uste duzu jendeak begiraten diola hala?

2. Zergatik uste dugu Mariak ez dituela gustuko aldaketak?

Autismoa duten pertsonen ohituren aldaketek frustrazioa eragiten dietelako, segurtasuna galtzen baitute, gertatuko dena aurreikusteko modurik ez dutela eta.

3. Zer dira estereotipiak?

Jokamolde errepikakorrak dira; adibidez, besoen mugimendu errepikakorrak, etab.

4. Zein espezialitate du Mariak?

Aparteko oroimena du jendearen izenak gogoratzeko.

5. Nola neurtzen dira Mariarekin eginiko aurrerapenak?

Edozein aurrerapen txiki pozgarria da eta lorpen txikiak balioesten dira.

6. Zer deritzozue Miguelek eta Mariak izandako elkarrizketari? Zer egingo zenuke elkarrizketa hori hobetzeko?

Ikusizko laguntzak erabil daitezke (piktograma) Mariari lagungarri izan dakizkion, esan nahi dioguna uler dezan eta berak ere laguntza horiek erabiltzeko modua izan dezan nahi duena kontatzeko. Piktogramak erabiltzea lagungarria da eguneko jarduerak planifikatzeko eta antolatzeko; aldaketak gertatu behar direnean ere, gomendagarria da gertatuko dena piktogramen bidez erakustea.

7. Miguelek diosku autismoa duten pertsonen hainbat ezaugarri izan ditzaketela. Imajinatu zeuek aukeratzen dituzuen ezaugarrien 5 adibide, Mariak egingo balitu bezala, baina Miguel izango bazinete zelako erreakzioa izango zenuketean ere.

Barreari ematea une desegokietan: Maria hileta batean hasten da barreka. Miguel hura isiltzen saiatuko litzateke, baina barreka jarraituko balu, jende artetik aparte eramango luke piktogramen bidez azaltzeko hiletan ez dela barrerik egin behar, eta isilik egon behar dela esango lioke.

Baliteke laztanak jaso nahi ez izatea: Miguelek musua eman behar dio Mariari, baina Maria alboratu egiten da. Miguelek errespetatu egingo luke Mariak une horretan laztanak nahi ez izatea.

Bere beharrak adierazteko zailtasunak: Mariak besotik heltzen dio Migueli eta laranja bat seinalatzen dio. Laranja baten piktograma erakutsiko lioke Miguelek, zertarako eta piktograma hori emanda laranja jan nahi duela adierazteko.

Hitzak edo esaldiak errepikatzea: Mariak etengabe errepikatzen du lehen esan dugun esaldi bat. Esan dezakeenaren eredu eskainiko lioke Miguelek, komunikatzeko modu gehiago ikas ditzan. Esate baterako, hauxe bada errepikatzen ari den esaldia (ekolalia): “hondartzara joango gara?”, Miguelek eredu hau eskaini liezaioke: “bai, gustatzen zait hondartzara joatea.”

Bere burua biratzen du edo objektuak birarazten ditu: Maria etengabe ari da boligrafoari birak ematen lurrean. Mariak ondo pasatuko lukeen jolasen bat irakasten saiatuko litzateke Miguel; esate baterako, piezak jartzea marrazkiak sortzeko, etab.



Jardueraren
Ondorioa

Beharrezko laguntzarekin autismoa duten pertsonekin bizi izaten ikas daiteke



BESTE IKUSPUNTU BATETIK



5 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 5

Beste ikuspuntu batetik



Urritasuna gure bizitzan izan daiteke-ela jabeaz nahi dira haurrak irakurketaren eta bideoen bidez.

Material gomendatua:

“Déjame intentarlo. La discapacidad: Hacia una visión creativa de las limitaciones humanas” Castillo Arenal, T. (2007). Bartzelona. CEAC Edizioak.

Urritasunari buruzko gogoeta egin dezagun nahi da liburuan. Bigarren Hezkuntzako etapako ikasleekin lan egiteko baliagarria izan daitekeen DVD bat dakar.

Hauxe da liburuaren edukia:

➔ **Urritasuna, gaitasuna bezala, giza izarrerari datzekio.**

➔ **Urritasuna aldi baterakoa izan daiteke, osasun egoera bat den aldetik.**

➔ **Urritasuna inguruabar hutsa da.**

➔ **Gizarteak nire mugak onartzeak baldintzatzen du urritasuna.**

➔ **Urritasunak ez du esan nahi adingabe-koak garenik betirako.**

➔ **Pertsonak ezin sailka daitezke haien urritasunaren arabera.**

➔ **Norbera bizi den ingurunearen arabera da urritasuna.**

➔ **Urritasuna berrikusi beharreko termino orokorra da.**

➔ **Gauza negatiboetatik ihes egitea.**

➔ **Aniztasuna nabarmentzea, ez desberdintasunak.**

PROPOSATURIKO JARDUERA

Bideoa ikusi baino lehen, bideoa ikusi ahala ideia nagusiak bil ditzatela eskatuko diegu ikasleei. Banaka egiteko eta ondoren taldean hausnartzeko lana da



Bideoaren ideia nagusien laburpena:

- ➔ **Urritasuna, gaitasuna bezala, giza bizitzari datxekio.**
- ➔ **Urritasuna gure bizitzaren baitan dago, eta noizbait ezagutuko dugu guztiguztiok.**
- ➔ **Pertsona guztiak etenik gabeko prozesuan mugitzen gara, gaitasunetik urritasunera.**
- ➔ **Bizitzaren hasieran, ez dakigu oinez ibiltzen, hitz egiten, etab., eta ondoren ditugun gaitasun eta trebetasun asko eskuratuko ditugu inguruneari eta ikaste-prozesuari esker.**
- ➔ **Zahartzaroan zenbait trebetasun gal dezakegu, eta urritasuna hainbat modutan agertzen da pertsona bakoitzarengan.**
- ➔ **Bizitzako egoerek gure gaitasuna aldaraz dezakete hala nola istripu batek edo gaixotasun batek.**



Urritasuna uste duguna baino hurbilago egon daiteke guregandik.



GAI GARA



6 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 6

Gai gara



PROPOSATURIKO JARDUERA:

Programa ikasgelan ikusi eta taldeka galdera hauei erantzun:

1. Programaren edukia laburbiltzea.
2. Zer deritzozu programari?
3. Pentsatu pertsona horiek egin litzaketen lanbide gehiago.
4. Egin rol-joko bat programako protagonistak izango bazinete bezala.
5. Bilatu autokudeatzaileen taldeei buruzko informazioa. Oso ona izango litzateke harremanetan jartzea haien esperientzia kontatzera etor litekeen ikastetxetik hurbileko talderen batekin. Gorabidek, Atzegik, Apdemak eta Uribe Costak burutzen dute programa hori.

Adimen urritasuna duten gizonek eta emakumeek osatuta dago autokudeatzaileen talde bat, eta euren bizitzetan protagonismo handiagoa izateko biltzen dira.

Ikasleak adimen urritasuna duten pertsonen gaitasunez jabeaz nahi dira, hainbat telebista saio ikusita eta eztabaiatuta.

Material gomendatua:

“**Guk ere bai**” Hileko programa bat da, TVEko bigarren katean eman izan dena. Adimen urritasuna duten pertsonen programarik gehiena ematen dute eurek ere gizartearentzako ekarpenak egin ditzaketela erakutsi nahian. Pertsona horien lana, aisialdia eta bizitza pribatua dira programan jorratzen diren oinarritzko hiru esparru.

6. Aritu bihurtzen dira.

► Lau laguneko taldetan bana daiteke ikasgela, **aditu bihur daitezzen**. Gure ustez, oso gai zabala landu beharrian interesgarriagoa izango litzateke adimen eta garapenaren urritasunari buruzko okerreko ideiak hartzea oinarri.

► Informazioa bila dezakete **interneten**. (Elkarteen web orriak).

► Hauexek izan daitezke okerreko edo **gezurrezko ideiak**:

Autismoa sendatu egiten da.

Autismoa ez da sendatzen, ez da gaixotasuna. Hezkuntza funtsezkoa da haien gaitasunak garatzeko.

Adimen urritasuna duten pertsonen ezin egin dezakete lanik.

Adimen urritasuna dutenek lan egin dezakete. Baina gehienetan ez zaie aukerarik ematen; gainera, askotan aurreiritziak ditugu haien gaitasunaren inguruan.

Amek eragiten dituzte seme-alaben garapenaren gaitzak.

Lehen teoriaren arabera, amek eragiten zizuten gaitzak, “hozkaileak” zeritzen. Amen eta seme-alaben arteko interakzioa desegokia zela irizten zioten, eta hori dela eta, autismoa garatzen zuten seme-alabek. Gaur egun, egia ez dela frogatu da. Kausei buruzko zalantza asko egon arren, jakin badakigu erdiko nerbio sistemen garapenaren gaitz orokorren emaitza dela..

Uneoro behar dute laguntza adimen urritasuna duten pertsonen.


Bakoitza desberdina da, baina txikitatik irakasten zaie ahalik eta autonomoenak izaten (badakite metroan ibiltzen, ordaintzen...). Bakoitzak laguntzak behar ditu, haien ezaugarrien eta gaitasunen arabera betiere. Urritasuna duten batzuek pisua partekatzen dute eta uneko laguntzak dituzte zenbait jardueratarako.

Azkenean, talde bakoitzak bere lana azalduko die ikasgelako gainerako ikaskideei.



Adimen urritasuna duten pertsonen, aukera eskaintzen bazaie eta beharrezko laguntza badute, guk uste baino jarduera gehiago egin ditzakete. Adimen urritasuna duten pertsonen eskubidea dute haien bizitzari buruzko erabakiak hartzeko, eta guztion erantzukizuna da ahalik eta bizitzarik osotuena izan dezaten.

URRITASUNA ONARTZEN



7 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 7

urritasuna onartzen



PROPOSATURIKO JARDUERA

Galderak aipa daitezke dokumentala ikusi baino lehen, ikasleak zien informazio bildu jakin dezan eta ondoren talde txikitan edo binaka landu dezaten, informazioa talde handiaren aurrean adierazi baino lehen. Hona hemen planteaturiko zenbait gai:

► Filmaren laburpen bat egin.

Paolok jaiotzetik du urritasun fisikoa eta intelektuala. Ama erditzeko gelan hil zen eta aitak abandonatu egin zuen. Osaba-izekok hazi zuten harik eta aita agertu zen arte, Berlinen ebakuntza ortopediko batean lagun ziezaion. Paolok 15 urterekin ezagutzen du aita, zeren aitak Berlingo ospitale batean errehabilitazioan laguntzea erabakitzen baitu. Giannik (aita) hasieran ez du onartzen bere semea dela, eta Nicolerekin dituen elkarrizketei esker, semea abandonatzeak dakarkion erruduntasuna gainditzen du; izan ere, Nicoleren alaba ere ospitalean dago. Azkenean, bai Paolok eta bai Giannik maitasun lotura handia izango dute eta maitasun horrek bizitza aldatzen die bie.

Urritasuna ezagutzea eta onartzea batzuetan zein zaila den erakusten duen filmeren bat eskaini nahi da.

Material gomendatua:

Filma: **Etxeko giltzak (2004).**

Iraupena: 105 minutu. Herrialdeak: Italia, Frantzia eta Alemania

Filmaren laburpena:

Paolok urritasun intelektuala eta fisikoa du. Jaioberritan abandonatu zuen aitak, eta 15 urteren buruan, berriz elkartu dira. Giuseppe Pontiggia-ren "Bi aldiz jaioa" (Salamandra Ediz.) eleberrian dago oinarrituta filma. Pontiggia, G.-ren (2002) eleberria irakurtzea hauta daiteke. Liburu horretan, badirela desberdintasunak eta balio positiboak direla gogorarazten zaigu.

► **Paolok beti onartzen al du hari laguntzea?**

Paolok, une batzuetan, ez du laguntzarik onartzen eta intimitatea eskatzen du. Esate baterako, Giannik oinez ibiltzen lagundu nahi dionean, berak bakarrik badakiela erantzuten dio; txiza egiten ari denean eta Gianniri joateko eskatzen dionean, bestela kontzentratzen ez delakoan eta ez begiratze-ko esaten dio; Gianni okela zatiak moztzen ari zaionean, berak egin nahi du, etab. Baina benetan laguntza behar duenean, eskatu egiten du; adibidez, alkandora janzteko.

► **Azaldu Gianni eta Paoloren artean gertatzen diren egoera deserosoak, Giannik esaten dionari jaramonik egiten ez dionean, eta komentatu bien erreakzioa.**

Gehienbat hiru egoera deseroso agertzen dira. Batean, Paolo ohetik jaiki eta korridorera irten da etxera joan nahi duela esanez, aita bakarrik dagoela... “ba al dakizu non bizi naizen?”... Gianni arrastoan sartzen saiatu da, baina azkenean besoe-tan hartu eta berriz sartu du gelan, Paolok etxera joan nahi duela esaten jarraitu du.

Beste bat hotelean, Paolok telebistako bolumena ozen jartzen duenean. Giannik

hainbat aldiz eskatzen dio mesedez isilago jartzeko, eta Paolok erantzuten dio: “ez, ez, ez eta ez, ados?”. Giannik telebista itzali eta biak isilik gelditu dira. Ondoren, etxera eramango duen galdetu dio Paolok, gauza asko duela egiteko, ontziak garbitu behar dituela, erosketak egin behar dituela...

Beste egoera deseroso bat Paolo autoan dagoela klaxona etengabe jotzen hasten denean dugu. Giannik ez egiteko esaten dio, arriskutsua dela, baina jaramonik egiten ez duenez gero, autoa gelditu eta isilik gelditzen da. Paolok berandu edo goiza den galdetzen du eta etxera joan behar duela esanez erreakzionatzen du, gauza asko duela egiteko... Giannik autotik irten eta negarrari eman dio. Paolo ere irten da, eta harengana doa laztanak eginez eta negarrik ez duela egin behar gogoraraziz, “ez egin negarrik, hementxe nago zurekin eta.”

► **Zuen ustez zergatik abandonatu zuen Giannik Paolo jaiotzeaz batera?**

Lotsatuta zegoelako eta ihes egiten du erantzukizun hori onartzeko gai ez dela sentitzean.

► **Errepara iezaiezu Gianni eta Nicoloren arteko harremani. Zure ustez, emakume horrek lagundu egiten dio Gianniri Paolo abandonatu izana gainditzen?**

Ospitalean dagoen alaba 20 urtez gau eta egun zaintzen daraman ama bat da Nicole. Hasieran, Nicolek Gianniri galdetzen dionean ea Paoloren aita den, ezetz erantzuten du. Filmean biek dituzten elkarrizketetan, hark kontaktzen dionetik ikasten du Giannik (esate baterako, eguneroko gauza txikitian pentsatzea) eta egia bereiztea lortzen du azkenean, hots, Paoloren aita dela eta benetan gertatu zena (azken unean forzepsekin atera zutela eta ikusi ere ez zuela egin nahi izan).

► **Zer deritzozu Paolok neska-lagunari kontaktzen dionari?**

Paolok ilusioa du neska-laguna dela-eta, gezurrezko neska-laguna bada ere, zeren ezagutu ere ez baitu egiten. Gizaki guztiok bezala, maitemintzeko eskubidea du.

► **Zuen ustez, zer dela-eta filmeko “Etxeko giltzak” izenburua?**

Gurasoek seme-alabei etxeko giltzak ematen dizkietenean, nahikoa autonomia eta

erantzukizuna duten erakusgarria da, baita bakarrik joan daitezen konfiantza dagoela ere. Giltza horiek lortzeko bi ibilbide ikus ditzakegu filmean, etxea irekitzeko gako baitira; bata Paolorena, bere mugak gainditzen saiatzen baita, eta bestea aurrera egiteko duintasuna eta adorea eskuratzea lortzen ari den aitarena.

► **Zure ustez, zer adierazi nahi du “ahultasunean dago indarra” esatean?**

Sufritzen ari garenean, irribarre egiteko indarra ateratzen dugu nolabait, hots, oso egoera zailtan aurrera jarraitu ahal izateko indar bat dagoela.

► **Bildu komentatu ez diren galderak, deigarri egin zaizkizunak.**



Jardueraren
Ondorioa

Paolo bezalako pertsonak gure bizitzaren parte izan daitezke, mementu ugari elkarrekin ikas-teko konpartitzen.

ADISKIDETASUNA EZINBESTEKO EUSKARRIA DA



8 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 8

Adiskidetasuna ezinbesteko euskarría da.

Material gomendatua:

“Viento salvaje de verano”

Carpelan, B. (1994). Madril: SM.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.



► **Liburuaren laburpena:**

Udan oso ondo pasatzen ari diren gazte batzuen istorioa kontatzen da liburuan. Uda batean, altxor guztiak non zeuden ezagutzen zuen Nora izeneko neska gazte bat ezagutu zuen Johaneke, baita adimen urritasuna zuen Marvin izeneko gazte bat (liburuan atzeratua dela agertzen da). Johan, Nora eta Marvinen istorioak lagungarri zaizkigu adiskidetasunak era guztietako urritasunak gainditzeko dituela ulertzeko.



PROPOSATURIKO JARDUERAK:**1. Egin laburpen bat liburuan.****2. Erantzun galdera hauei:*****Zelan tratatzen dute Marvin liburuko pertsonaiek?***

Erikek eta Beatricek leloa dela uste dute, erotuta dagoela.

Jevak ahalmena duen mutila dela uste du.

Norak maitasun handiz tratatzen du eta ahal duen guztian laguntzen dio.

Johanek askotan ez daki zelan jokatu, baina azkenen haren lagun handia egiten da, hura den bezalakoa onartuta.

Ba al du Marvinek indargunerik?

Bai, badaki arrantzan, oso arraunlari ona da eta oso ona da hegaztiekin, segurtasun handiz ibiltzen da basoan zehar...

Zer deritzozu Marvini zehatzean egin zioten jokoari, lotuta eta benda jarrita? Horrelako jokoren batean hartuko zenuke parte?

Ez da bidezkoa. Erik hartaz baliatu zen, baina ordurako ez zen joko bat, Marvin


irainduta zegoelako. Azkenean barkamena eskatu zion Erikek.

Söder-ek, Noraren aitak, onartu egiten du laguntza edateko, noiz-eta bakarrik ezin egin dezakeela onartzen duenean. Laguntza eskatu behar dugun uneei buruzko gogoeta egin eta idatzi zerrenda batean.

Mundu guztiak hainbat unetan besteen laguntza behar duela onartzea da kontua.

Johan eta Marvin kobazulorantz zihozaz gertatzen zena kontatzen du.

Johanek laprast egin eta airean zintzilik gelditu zen enbor bati helduta. Marvin oso indartsua denez, lagundu egin zion. Johanek oinarekin bermatzeko modurik ez duenez gero, kobazuloan gelditu eta Marvin laguntza eske abiatu zen. Johan kezkatu gelditu zen ea Marvin ez ote zen gogoratuko hantxe zegoela eta, beraz, arrastaka jaisten saiatu zen harik eta hari laguntzeko zetozen Gerda eta Marvinen oihuak entzun zituen arte.

Eleberriko zein pertsonaiekin identifikatzen zara gehien***Marvinen laguna izango zinateke?***

Oso garrantzitsua da adimen urritasuna duten pertsonekin ditugun aurreiritziez ohartzea eta askotan okerrekoak izan daitezkeela jabeaztea.

DENOK DITUGU MANIAK




9 jarduera

Bigarren Hezkuntza

JARDUERA 9

denok ditugu maniak



Material gomendatua:

Filma: **Snow Cake** (Elurrezko opila) (2006).

Iraupena: 112 minutu.

Herrialdeak: Erresuma Batua eta Kanada.

Filmaren argumentua:

Alex jaun ingelesa da eta espetxetik irten berria da, 22 urteko semea istripu batean hil zuen pertsona hil zuelako. Kanadarrantz abiatu da semearen amarekin elkartzeko. Bidean, ama ikustera eramango duen norbaiten bila dabilen Vivian ezagutu du; argidun pilota batzuk erosi dizkio Viviani. Istripu larri baten ondorioz, Vivian hil eta Alex Vivianen amarengana doa doluminak ematera. Lindak, Vivianen amak, funtzionamendu altuko autismoa du, eta jarrera desberdina du tragediaren aurrean. Alex egun batzuetan Lindaren etxean geldituko da eta honen auzo-laguna ezagutuko du.

Lindarekin batera, bere burua hobeto ezagutzen lagunduko dio horrek ere.

PROPOSATURIKO JARDUERA

Filma ikusi baino lehen, galderak banatu behar dira; hala, funtsezkotzat jotzen ditugun zatieta adi egotea lortuko dugu. Galdera hauei erantzunez lan egin dezaten da kontua:

► **Aipatu zure ustez Lindak dituen jokabide bereziak.**

Argiekin eta ehundurekin suspertzen da, objektuak eskuan eraman ohi ditu, sukaldean dena du txukun-txukun, ez ditu orbanak jasaten, etxean sartzen diren guztiek erantzi behar dituzte oinetakoak, jasanezina zaio zaborra ateratzea, ez du gustuko jendearekin egotea, ez du minik adierazten Vivianen heriotza dela-eta, tranpolinean jolastea gustatzen zaio, elurra miazkatzea du gustuko, etab.

► **Zure ustez, zein zailtasun ditu Lindak?**

Zailtasunak ditu komunikazioan, eta hitz egiteko gai bada ere, ez du jendearen begietara begiratzen eta kosta egiten zaio berbazkoa ez den lengoia ulertzea. Esate baterako, Alexek negarrari ematen diotenean, tea ez zaiolako gustatzen dela uste du. Gainerakoen emozioak interpretatzea kostatzen zaio.

Zailtasunak ditu gizarte interakzioan, hots, ez du gustuko jendearekin egotea.

Irudimena erabiltzeko zailtasunak ditu, batez ere gainerakoen buruko egoerak ulertzeko. Hau da, emozioak ulertzeko.

Jarduerak eta interesak errepikatze joera du; adibidez, erritualak ditu: sarrerako alfonbra jartzea; obsesioak, hala nola etxea jasota eta txukun izatea, etab.

► **Pentsatu dituzun jokabide bitxietan eta deskribatu.**

► **Zer erlazio sortzen da Alex eta Lindaren artean?**

Biek ikasten dute elkarrengandik. Lindak Alexi uzten dio sukaldeko txoko bat,

etxean bost lagun baino gehiago sartzea onartzen du, etab.; eta Alexek barkatzen ikasten du eta ezbeharrak dela onartzen du, eta kasu honetan, Vivian hil zuen kamioizaleak ez duela merezi hiltzerik; Linda onartzen ikasten du, etab.

► **Zer gertatzen da Vivianen hileta egunean?**

Linda elizan, aita irakurtzen ari dela, argiekin suspertzen da. Ondoren, etxean oso urduri dago, jendeak dena zikintzen duelako, musika jartzen duelako eta alaba nolabait gogorarazten dioten dantzak egiten dituztelako. Batzuek ez dute ulertzen mina erakusteko modu hori, eta badoaz etxetik.

► **Zer oparitu dio Alexek Lindari joatean?**

Elurrezko opil bat oparitzen dio, jakin badakielako Lindari izugarri gustatzen zaiola elurra miazkatzea.

► **Zer deritzozue filmari?**



Linda bezalako pertsonak gure bizitzakoak izan daitezke, eta nahi beste denbora dugu haiekin egoteko eta elkarrekin ikasteko.



“Desberdintasunek
ikasketarako aukera
handiak biltzen dituz-
te. Desberdintasunak
doako baliabide ugaria
eta berriztagarria dira”.

(Robert Barth 1990, Stainback eta Stainback-etik hartuta 2004:26).

Beste zenbait
MATE-
RIAL

► LIBURUAK

Haur literaturak duen garrantzia aipatzen genuen moduan, gazte literatura ere balioetsi behar dela deritzogu.

Unos chicos especiales. Anderson, R. (1993). Madril: Alfaguara.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Hainbat arrazoi tarteko gizartearen intolerantzia eta bazterketa pairatzen duten hainbat pertsonaren bizitza agertzen zaigu liburu honetan.

Quisco, mi amigo. Agüera Espejo-Saavedra, I. (1990). Madril: Edelvives.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Quisco mundu guztiaren laguna da.

Idazlearen web orri honetan irakur daiteke liburua:

<http://www.isabelaguera.com/quisco.htm>

El verano de los cisnes. Byars, B. (2004). Bartzelona: La Galera.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Sarak 14 urte ditu eta nahastuta dabil. Bere burua, familia eta lagunak onartzeko zailtasunak ditu.

Delfines en la ciudad. Carpelan, B. (1988). Madril: SM.

Adin gomendatua: 14 urtetik gora.

Marvin adimen urritasuna duen gazte bat da, eta zenbait zailtasun ditu, gehienek eragozpenak jartzen baitizkiote, harekin bat egiten duten nerabe batzuek izan ezik (Nora eta Johan).

La Imbécil. Company, M. (1996). Salamanca: Lóguez.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Bazterketa erakusten zaigu liburu honetan. Hartara, tratu txar fisikoak eta psikologikoak agertzen diren lau istorio kontatzen zaizkigu.

Zinemarako egokitzapen bat egin dute, "Nork maite zaitu, Babel?"

Lagarto. Covington, D. (1997). Madril: SM.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Cooley andereñoak uste du Lucius-ek hezkuntza bereziko zentro batera joan behar duela.

Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia. Iruñea: Igela Argitaletxea. Itzultzailea, Xabier Olarra.

Adin gomendatua: 15 urtetik gora.

Eleberri eder hau lagungarria zaigu Asperger gaitza ulertu abal izateko, protagonistaren bidez (Christopher izeneko 15 urteko nerabe bat). Nabiz eta Asperger gaitzak DI-rekin loturarik ez izan, oso liburu interesgarria iruditzen zaigu.

Mi hermano es un huracán. Janssen, K. (2001). Madril: Edelvives.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Hannah familiako gazteena da eta haren familiaren historia kontatzen digu; besteak beste, autismoa duen 12 urteko neba erakusten digu.

Flores para Algernon. Keyes, D. (2005). Madril: SM.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Charliek adimen urritasuna du eta adimena hobetzeko ebakuntza bat egitea erabaki du. Aurretik ebakuntza hori egin zaion sagua da Algernon.

Desde otro punto de vista. Larraz, C. (Coord.). (2003). Madril: CEAPAT-IMSERSO.

Adin gomendatua: 14 urtetik gora.

Euren bizipenak adierazi nahi izan dituzten hainbat pertsonaren testu laburren bilduma da liburua. Urritasuna duten pertsonen eurek idatzi dituzte zenbait testu; beste batzuk, berriz, gurasoek idatzi dituzte, etab. Baliagarriak izan daitezke bigarren hezkuntzan lantzeko, batez ere Down sindromea agertzen diren batzuk eta oro har urritasunak azaltzen diren bestetarik.

El Síndrome de Mozart. Moure Trenor, G. (2003). Madril: SM.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Eleberri honetan Williams sindromea duen pertsona bat agertzen zaigu, 18 urteko Tomi. Garapenaren gaitza da sindrome hori. Irene, Tomi, Yarchik eta Tesa dira liburu honetako protagonistak.

Senén. Olaizola, J.L. (1986). Madril: SM.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Senen futbol jokalaria bat da eta gehienek den modukoa onartzen dute.

El cuerno de Maltea. Ramírez Lozano, J.A. (2003). Madril: Alfaguara.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Lulinok adimen urritasuna du eta ez da ahuntza den Maltea lagunarengandik urruntzen. Baserrian bizi dira, baina hirira joan nahi dute bizi izatera. Maltea ere joatea lortu du Lulinok.

Pequeños pasos. Sachar, L. (2006). Madril: SM.

Adin gomendatua: 14 urtetik gora.

Arraza eta gizarte aurreiritziak salatzen dira liburu honetan.

Benni no habla. Steinbach, P. (1995). Madril: Alfaguara.

Adin gomendatua: 12 urtetik gora.

Benni jaiotzean arnasa hartu barik egon zen une batez. Ez du hitzik egiten eta ez da inguruarekin komunikatzen; gero eta bakartuago dago, baina opor batzuetan konfiantza ematen dioten lagun batzuk ezagutu eta komunikatzen hasten da.

La decisión. Thüminge, R. (1998). Leon: Everest.

Adin gomendatua: 14 urtetik gora.

Christinek 14 urte ditu eta alaba bakarra da. 39 urteko amak diotso haurdun dagoela eta Christinek bere emozio guztiak agerrarazten ditu idatzita egunerokoan, haurra adimen urritasunarekin jaioko dela dioten komentarioak barne.

El tren diabólico. Waluszek, C. (1996). Bartzelona: El Arca.

Adin gomendatua: 14 urtetik gora.

Batzuetan errealistak eta beste batzuetan zentzugabeak diren egoerak kontatzen dituen misteriozko istorio bat.

Bola de fuego. Wolf, K.P. (1997). Madril: Anaya.

Adin gomendatua: 14 urtetik gora.

Mundu guztiak zorrotzat du Jens. Aita sute batean nola hil zen ikusi zuen txikitari.

► FILMAK

Lan egiteko baliabideak ere izan daitezke filmak, batez ere bigarren hezkuntzan.

Alegre de la Rosa, O.M. ren liburua(2003). La discapacidad en el cine. Bartzelona. Octaedro edizioak. Lagungarria izan dakiok irakasleari film bat aukeratzeko, berrikuspenera baitakar.

Saguak eta gizonak (1992).

Iraupena: 115 minutu. Herrialdea: AEB.

AEBko 30 urteko krisialdi ekonomikoko urteetan bi lagun, Lenny eta George, lan bila ari dira. Lennyk adimen urritasuna du eta horrek zailtasunak dakartzio.

Esnatzea (1990).

Iraupena: 110 minutu. Herrialdea: AEB.

Bizitza errealeko gertaeran oinarrituriko filma. Medikua berria egoera begetatiboan dauden pertsonak dituen ospitale batera iritsi eta haiek esnarazten saiatzen da.

Bizitzako olioia (1992).

Iraupena: 135 minutu. Herrialdea: AEB.

Bizitza errealeko gertaeran oinarrituriko filma. Gurasoak seme bakarraren gaixotasun neurologiko larria gainditzeko borrokatzen dira.

Elling (2001).

Iraupena: 90 minutu. Herrialdea: Norvegia.

Ellingek zentro psikiatriko batean bi urte eman ditu eta "mundu erreal"era itzuli da. Mundu horretan, bizitzako egoerei egin behar die aurre gelako kidearekin batera.

Zortzigarren eguna (1996).

Iraupena: 113 minutu. Herrialdea: Frantzia.

Exekutibo bat eta Down sindromea duen pertsona bat dira filmeko protagonistak.

Basati txikia (1969).

Iraupena: 85 minutu. Herrialdea: Frantzia.
Bizitza errealeko gertaera batean oinarrituriko filma da. Ume bat basoan aurkitu eta Victor izenez bataiatu dute. Itard medikua haren bezkuntzaz arduratuko da.

San Gregorioko erregea (2005).

Iraupena: 82 minutu. Herrialdea: Txile.
Pedro eta Cati bikotea dira. Hainbat lagun harreman horren kontra agertzen dira, gehienbat adimen urritasuna dela eta.

Leon eta Olvido (2004).

Iraupena: 112 minutu. Herrialdea: Espainia.
Leon eta Olvido umezurtz gelditu diren bi anaia dira. Leonek Down sindromea du eta Leonek bere erabakiak pixkanaka har ditzala saiatzen da Olvido.

Radio deitzen naute (2003).

Iraupena: 109 minutu. Herrialdea: AEB.
Bizitza errealeko gertaera batean oinarrituriko filma da. Radiok adimen urritasuna du eta institutuko errugbi entrenatzailearekin harreman bereziak egiten ditu. Pertsona horiekiko jarrerai buruzko gogoeta egiteko balio du filmak.

Ricky nire laguna (1998).

Iraupena: 98 minutu. Herrialdea: AEB.
Harriet 10 urteko haur bat da eta adimen urritasuna duen 30 urteko pertsona baten laguna egin da.

Nire ezkerreko oina (1989).

Iraupena: 103 minutu. Herrialdea: Irlanda, Erresuma Batua.
Bizitza errealeko gertaera batean dago oinarrituta filma. Christy Brown irlandar gazteak buruko paralisia du eta ezkerreko oina besterik ez du kontrolatzen. Norberari aurkezten zaizkion eragozpenak gainditzen direneko etsenplua da.

Liburu hau ere irakur daiteke:

Brown, C. (2005). *Mi pie izquierdo*. Madril: Rialp

Nell (1994).

Iraupena: 113 minutu. Herrialdea: AEB.
Natur gunean hazitako emakume bat da, eta bakarrik amarekin ditu harremanak. Amaia hiltzean, zenbait pertsonak hura aurkitu eta aztertzen hasten dira.

Pauline eta Paulette (2001).

Iraupena: 78 minutu. Herrialdeak: Belgika, Holanda eta Frantzia.
Martha, lau ahizpetako bat, hil egin da eta haren testamentuarekin hasten da bilbea. Ahizpetako batek, 66 urtekoak, adimen urritasuna du. Ahizpek zaharren egoitza batean sartzea erabakitzen badute, ez dute jaraunspenaren zatirik jasoko.

Neguko gau bateko ametsa (2004).

Iraupena: 95 minutu. Herrialdea: Serbia-Montenegro.
Lazar gizon serbiarra da, eta kanpoan hamar urtez izan ondoren, bere apartamentura itzultzea erabaki du. Apartamentuan Jasna eta alaba Jovana bizi dira; Jovana 12 urteko neskatxa bat da, autismoa duena (aktorea autista da errealtatean).

Maite zaitut Eugenio (2002).

Iraupena: 95 minutu. Herrialdea: Italia.
Eugeniok Down sindromea du eta atsedeen-erretze batean egiten du lan lorezain. Istripua izan duen gazte bat sartu da etxe horretan eta Eugenio haren laguna egingo da.

Animalia txiki guztiak (1998).

Iraupena: 112 minutu. Herrialdea: Erresuma Batua.
Bobbyk adimen urritasuna du. Ama hil ondoren, aitaordearekin gelditzen da, eta zentro psikiatriko batean sartzen saiatzen da. Bobbyk ihes egin eta Summers jauna ezagutu du.

Mundu desberdin bat (1999).

Iraupena: 87 minutu. Herrialdea: AEB.
20 urteko Hopek eta Berniek adimen urritasuna dute. Hopek istripu baten ondorioz, eta Berniek jaiotzez. Alaba bat dute, Libby, gaitasun "normalak" dituen.

Alexen gurasoak (2007).

Adimen urritasuna du Alexek, du, eta haren familiak aurrerapenak egiteko dituen irromotasuna eta ahaleginak ikus ditzakegu erreportajearen.

TB Dokumentuetan ere, adimen urritasuna duten pertsonen munduan murgilarazten gaituzten dokumentalak eman dira.

Erreportaje horien artean, hauexek daude:

Sexua duten arimak (2002).

Sexualitatearen eta urritasunaren gaia islatzen da dokumental honetan. Ez dugu abaztu behar sexualitatea ukatu zaion taldea dela. Oraingoan, Espainian eta Danimarkan urritasun fisikoak duten pertsonak dituzten desberdintasunak agertzen zaizkigu. Urritasun fisikoak duten pertsonak badira ere, erreportaje interesgarria izan daiteke.

Bizitzak ihes egiten digunean (2003).

Ezohikotzat jotzen diren gaixotasunak dituzten lau pertsonen istorioa ematen du dokumentalak.

▶ ANTZEZLANAK

"Ikusezinetik" La Quintana konpainiak antzezturiko antzezlan da.

<http://www.laquintanateatro.com/>

Adin gomendatua: 14 urtetik gora.

Adimen urritasuna duten pertsonen mundua adierazten duten eszenen collage bat da lana. Madrilen urritasuna duten pertsonekin lanbide zentro batean hainbat hilabetez izan ondoren prestatu zuten lana. Bertan agertzen zaizkigun bizitzak kontatzea merezi du, eta ikuslea beste begi batzuekin begirarazten saiatzen da.



“Guía de materiales para la inclusión educativa: discapacidad intelectual y del desarrollo”

Han participado en la elaboración de esta Guía las siguientes personas:



- Leire Darretxe
- Eguskiñe Etxabe
- Irantzu Rojo
- Amaia Ansoleaga
- Idoia Castillo
- Marije Goikoetxea
- Ione Zubiria
- Txus Gomara
- Mitxel Lakuntza
- Lucía Soria

Diseño e ilustración: Olatz Goikouria y
Manuel Ortega

A todas ellas, eskerrik asko